

## GIPUZKOAKO UDALETXEAK KRISIALDIAN<sup>1</sup>

IMANOL ORMAZABAL AIZPURUA

GRADU-AMAIERAKO LANA

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

imanolormazabal@gmail.com

### LABURPENA

Lan honetan Gipuzkoako udaletxeetan krisialdi ekonomikoak izan duen eragina aztertuko da. Horretarako adierazle ekonomiko-finantzario nagusiak aztertuko dira. Analisia sakonagoa izan dadin, azalduko diren zenbait irizpideren baitan aukeratutako 12 udaletxeetan zentratuko da. Honela arazo ezberdinei aurre egiteko irtenbide ezberdinak aukeratu direla ikusi ahal izango dugu, bakoitzak zuen ahalmenaren arabera. Era berean Gipuzkoako sektore publikoaren egitura eta funtzionamendu azalduko da. Bertan, kompetentzien banaketa eta bakoitzaren autonomiaren mugak aztertuko dira. Halaber, azken urteotan erregulazioan eman diren zenbait aldaketa ere komentatuko dira. Aldaketa horiek udaletxeen aurrekontuetan izan duten eragina ere ikusiko dugu.

**Hitz Gakoak:** Udaletxeak. Aurrekontuak. Udal Finantzaketarako Foru Fondoak. Aurrezkoa. Diruzaintza gerakina. Defizita. Zor Bizia. Gastua.

---

<sup>1</sup> Eskolako aldizkariko erredakzio taldeak 2013ko abenduaren 17an buruturiko bileran Gradu Bukaerako Lan (GBL) hau aukeratzea erabaki zen, 2012-2013 ikasturtean tribunalak bederatziko nota baino altuagoa emaniko lanen artean eta honen errekonozimendurako aldizkari honetan argitaratzea. GBL hau Imanol Ormazabal Aizpuruak burutu zuen Agustin Erkizia Olaizola eta Errapel Ibarloza Arrizabalaga irakasleen gidaritzapean, biak Ekonomia Finantzarioa I saileko kideak.

## **ABSTRACT**

The aim of this report is to analyse the effects of the economic crisis on the town halls of Gipuzkoa, using the main economic and financial index to quantify the effect of it. Regarding to certain characteristics the exam has been focused on 12 town halls, so as to get more in deep on the data. Furthermore, that will show different types of problems and ways to correct them depending on their capacity. Gipuzkoa's public sector structure and its running is also explained in this work. In this part we will see how the competences are divided and their limits. There are also some other issues that affect the town halls such us the regulation. It will be shown how the adjustments done in different organisms affects Gipuzkoa's town halls budgets.

**Keywords:** Town hall. Budget. Udal Finantzaketarako Foru Fondoa. Savings. Treasury surplus. Deficit. Outstanding debt. Expenses

**JEL Kodea:** H12,H61

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>145</b>
<b>2. Egitura Ekonomikoa</b> .....	<b>151</b>
2.1 <i>Europar Batzordea</i> .....	151
2.2 <i>Espainako Gobernu Zentrala</i> .....	151
2.3 <i>Eusko Jaurlaritza</i> .....	152
2.4 <i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i> .....	153
2.5 <i>Udaletxeak</i> .....	154
<b>3. Aurrekontuen kompetentziak</b> .....	<b>157</b>
<b>4. Aurrekontuen Egitura</b> .....	<b>161</b>
<b>5. Udaletxeen analisisa</b> .....	<b>170</b>
5.1 <i>Aurrezki Garbia</i> .....	175
5.2 <i>Zor Finantzarioa</i> .....	184
5.3 <i>Diruzaintza Gerakina</i> .....	192
5.4 <i>Defizit analisisa</i> .....	200
5.5 <i>Gastuaren Aldaketa</i> .....	205
<b>6. Etorkizunera begira</b> .....	<b>210</b>
<b>7. Ondorioak</b> .....	<b>213</b>
<b>8. Bibliografia</b> .....	<b>215</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>219</b>

**TAULEN AURKIBIDEA**

---

<b>1. taula:</b> <i>Gastu konpetentziak</i> .....	156
<b>2. taula:</b> <i>Espainia eta Gipuzkoako udaletxeen helburuen diferentzia</i> .....	160
<b>3. taula:</b> <i>Udal aurrekontuen egitura</i> .....	162
<b>4. taula:</b> <i>Diruzaintza Gerakinaren kalkuloa</i> .....	166
<b>5. taula:</b> <i>Gipuzkoako Udalek 2012an 2011ko UFFFren likidazioaren saldo negatiboaren zati bat finantzatzeko hitzartu dituzten kreditu-eragiketak</i> .....	169
<b>6.1. taula:</b> <i>Udaletxeen kokapena eskualdetan</i> .....	172
<b>6.2. taula:</b> <i>Udaletxeen biztanleriaren arabera sailkapena</i> .....	173
<b>6.3. taula:</b> <i>Udaletxeen biztanle kopurua 2008-2012</i> .....	173
<b>6.4. taula:</b> <i>Udaletxeen dentsitatearen arabera sailkapena</i> .....	174
<b>7.1. taula:</b> <i>UFFFaren bilakaera orokorra</i> .....	175
<b>7.2. taula:</b> <i>Aurrezki garbiaren balio absolutuak</i> .....	177
<b>7.3. taula:</b> <i>2009. urteko aurreikuspenen eta UFFFren diferentzia</i> .....	178
<b>7.4. taula:</b> <i>2009-2010ren arteko UFFFren aldaketa</i> .....	180
<b>7.5. taula:</b> <i>Aurrezki garbia biztanleko</i> .....	181
<b>7.6. taula:</b> <i>Aretxabaleta eta Pasaiaren sarrera eta gastuen aldaketa</i> .....	182
<b>7.7. taula:</b> <i>Eragiketa finantzarioko gastuak bazterturiko aurrezki garbia</i> .....	183
<b>8.1. taula:</b> <i>Biztanleko zor biziaren balio erlatiboak</i> .....	185
<b>8.2. taula:</b> <i>Aretxabaleta eta Azkoitiaren 2009ko aurrezki garbi eta zorpetze aldaketa</i> .....	185
<b>8.3. taula:</b> <i>Zor biziaren balio absolutuak</i> .....	187
<b>8.4. taula:</b> <i>Zumaiako udalaren zorpetzearen bilakaera</i> .....	187
<b>8.5. taula:</b> <i>Sarrera arruntekiko zorpetze maila</i> .....	188
<b>8.6. taula:</b> <i>Zorraren helburua betetze mailaren sailkapena</i> .....	189
<b>9.1. taula:</b> <i>Diruzaintza gerakinaren balio absolutuak</i> .....	192
<b>9.2. taula:</b> <i>Diruzaintza gerakinaren adierazlea</i> .....	194
<b>9.3. taula:</b> <i>Aurrezki garbi eta diruzaintza gerakinaren aldaketa 2010-2011an</i> .....	196
<b>10. taula:</b> <i>2008-2012n hitzartutako kreditu-eragiketak eta aplikaturiko batez besteko diferentziala</i> .....	197
<b>11. taula:</b> <i>Zumaiako udalaren adierazle esanguratsuenak</i> .....	199
<b>12.1. taula:</b> <i>Defizita KSE-95 metodologian oinarrituta</i> .....	200
<b>12.2. taula:</b> <i>KSE-95an oinarritutako defizitaren balioak</i> .....	201
<b>12.3. taula:</b> <i>KSE-95an oinarritutako defizita sarrerarekiko erlatibizatuz</i> .....	202
<b>12.4. taula:</b> <i>Aretxabaletako inbertsio eragiketak</i> .....	204
<b>13. taula:</b> <i>Gastu konputagarriaren kalkuluaren metodologia</i> .....	206
<b>14. taula:</b> <i>Gastu konputagarriaren bariazioaren aldaketa</i> .....	207

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

---

<i>1. grafikoa: Udaletxeen likidazioak jasotze data.....</i>	<i>170</i>
<i>2. grafikoa: Azkoitiko aurrezki garbian finantza eragiketen eragina.....</i>	<i>184</i>
<i>3. grafikoa: Aurrezki gordina zor biziarekiko. ....</i>	<i>190</i>

## AKRONIMOEN GLOSARIOA

---

**AEFILO:** Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa

**AETLO:** Autonomi Erkidegotako Tributu lege Organikoa

**CDO:** Collateralized Debt Obligations

**CDS:** Credit Default Swaps

**DZgerakina:** diruzaintza gerakina

**E.A.E.:** Estatua Euskal Autonomia Erkidegoan

**EB:** Europar Batasunak

**EGEEF:** Europako Garapen Ekonomi Erregionaleko Fondoa

**EK:** Europar Komisia

**EUDEL:** Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL)

**KSE-95:** Kontuen Sistema Europarra

**NPB:** Nekazaritza Politika Bateratua

**UFFF:** Udal Finantzaketarako Foru Fondoa

## 1. SARRERA

---

Gaur egun ekonomiak bizi izan duen egoera zailenetako bat bizitzen ari gara. Honek ekonomian parte hartzen duten agente guztiei eragiten die. Sektore pribatu nahiz publikoak oztopo ugari aurre egin behar izaten ari dira. Hori honela izanik, buruturiko gradu bukaerako lanak sektore publikoaren zati baten krisialdi ekonomikoak izan duen eragina aztertzeke helburua du, konkretuki Gipuzkoako udaletxeena.

Gradu bukaerako lanak aldiz ez du helburu bakarra. Lanaren beste helburuak unibertsitateko ikasketen bidez eskuraturiko ezagutza teoriko eta praktikoak aplikatzea eta prozesuan aurrekontuen azterketarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzea ere badira.

Lanari hasiera emateko, Gipuzkoako sektore publikoan eragiten duten agenteen parte hartzea eta konpetentzia nagusien banaketa azalduko da. Bertan gastu eta sarreretan dituzten obligazio eta eskumenak ikusiko dira, zenbait organo konpetenteren arteko erlazio nagusiekin batera.

Ondoren bi atal independentetan aurrekontuen egituraketan indarrean dauden oinarriak eta azken urteetan buruturiko helburuen zehaztapen nagusien berri emango da. Era berean udaletxe baten aurrekontuen egitura eta barneratzen diren kontzeptu nagusiak ere azalduko dira.

Hurrengo atalean aukeraturiko hamabi udaletxeen analisia burutuko da, adierazle ekonomiko finantzarioak erabiliko direlarik. Bertan, krisialdi ekonomikoak, aukeratu diren udaletxeetan izan duten ondorio nagusiak eta ondorio horiek sortzearen faktoreak ondorioztatzen ahaleginduko gara. Halaber, 2013. urtetik aurrera ezarritako helburuak krisialdi ekonomikoan izan duten betetze maila aztertuko da.

Analisia burutzeko beharrezko datu gehienak eskuratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza departamentuaren *Udalgida* plataforma erabili da, udaletxeen aurrekontuen informazioa publikatzen baita. Lanean informazioa eskuragarri izan dadin, aukeratutako udaletxeen 2008-2012 epealdiko hasierako eta likidatutako aurrekontuak eranskin gisa txertatu ditugu. Era honetan lanean zehar buruturiko datuen aipamenak noiz nahi kontsultagarri izan daitezten. Zenbait udaletxeren kasuan, urte konkretu batzuetan ez zituzten aurrekonturik onartu eta hortaz aurrekontu luzatuekin lan egin arren, hauek ez dira *Udalgida* plataforman argitaratu.

*Etorkizunera begira* atalean, legean ezarritako aldaketak betetzeko helburuak inplikaturiko duten esfortzua ere baloratuko da lanean, beti ere aurreko ataleko adierazleetan zentratuz. Bertan ere azkenaldiko albisteetan oinarrituz, espero diren zenbait aldaketen berri emango da.

Gipuzkoako udaletxeek krisialdian izaniko aldaketa nagusiak eta horien arrazoiak azpimarratuko dira azken atalean. Baita ere, udaletxeen aurrekontuetan nabarmentzekoak diren ezaugarri nagusiak ere islatuko dira.

## **2. EGITURA EKONOMIKOA**

---

Gipuzkoako udaletxeen aurrekontuen azterketa burutzeko, berain estruktura ekonomikoa ezagutzea komeni zaigu. Gipuzkoaren kasua berezia da estatu mailan kompetentzien banaketa desberdin gauzaturik baitaude.

Honen oinarri formala bi gertaera ezberdinetan islatzen dira. Alde batetik 1978ko konstituzioan sektore publikoaren deszentralizazioa ahalbidetu zen. Honela, Euskal Autonomi Erkidegoaren Estatutuaren bitartez, Eusko Jaurlaritza osatu zen. Halaber, bertako lurralde historikoetako foruetan oinarriturik, diputazioen botere ekonomikoa indartu ziren. Bestetik, 1986ean Espainiaren Europar Batasunean sartzeak beste organo kompetente baten sarrera ondorioztatu zuen.

Hori dela eta gaur egun Gipuzkoan eragiten duten bost gobernu maila ezberdin existitzen dira: Europar Batzordea, Espainiako Gobernu Zentrala, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazio Forala eta udaletxeak.

Bakoitzaren kompetentziak direla eta, estruktura konplexua osatzen dute, hortaz atal honetan Gipuzkoan bakoitzaren eragina azalduko dugu.

### ***2.1 Europar Batzordea***

Europar Batzordeak era ezberdinetan eragiten dio Gipuzkoako lurraldeari 1986a geroztik. Gastuari dagokionean, Nekazaritza Politika Bateratua (NPB), Europako Garapen Ekonomi Erregionaleko Fondoa (EGEEF) eta beste planen bidez parte hartzen du. Plan hauen ondorioz eginiko ekarpenak ez dira zuzeneko gastu gisa ematen, dagokion ente kompetenteari transferentzia burutuaz gauzatzen dira. Hau da, Europar Batzordea ez da gastuaren antolaketaz arduratzen, bere lana finantzazioan oinarritzen da.

Hala ere Europar Batzordeak Gipuzkoan duen eragin nagusia, erregulazio eta kontrol ahalmenaren bidez ematen da. Bertan ezartzen diren erregulazioak obligaziozkoak dira batzordeko herrialde partaideentzat. Honek transferituriko kompetentzien exekuzioan mugak ezartzen ditu, maila gorenekoak diren legeak bete behar baitituzte.

### ***2.2 Espainiako Gobernu Zentrala***

Espainiako Gobernu Zentral 1978ko konstituzioa hasiera gisa hartuz, deszentralizazio sistema zabaltzen jarraitu du, beregain zeuden zenbait kompetentzia transferituz. Aldaketa hauek direla eta, gaur egun, Gipuzkoan egiten dituen gastuaren zati garrantzitsuena pentsioen ordainketan kontzentratzen dira. Hala ere badaude beste zenbait gastu zuzenki, lurraldean egiten ez direnak, baina bertako biztanleriari eragiten

dizkietenak. Honen adibide dira adibidez defentsa edo atzerriko harremanetan buruturiko gastuak.

Sarrereren arloan, esan beharra dago, Gobernu Zentralaren sarrereren kompetentzia garrantzitsuenak transferiturik dituela, aurrerago ikusiko dugun legez. Hala ere oraindik Estatua Euskal Autonomia Erkidegoan (E.A.E.) zenbait zerga biltzeaz arduratzen da. Horiek inportazioen gaineko zerga, estatuko funtzionario eta langileen gaineko zerga eta estatuko eta erregimen komuneko autonomi erkidegoen zorren jaulkipenaren erretentzioaz arduratzen da. Halaber, Gizarte Segurantzako kotizazioak jasotzearen arduraduna da Gobernu Zentrala, garrantzizko sarrera publikoak direlarik (105.311.663,14€ 2011ean)<sup>2</sup>. Kotizazioen sarrerak ordea, helburu baterako bildutako zergak dira. Helburu horiek pentsioen, langabeziaren, osasunaren edo eta zerbitzu sozialen ordainketetarako bideraturik daude. Horietako zenbait kompetentzia Eusko Jaurlaritza edo Foru Aldundiaren esku daude, hortaz, dagozkien transferentziak burutzen ditu estatuak dagokion organo kompetenteari.

### **2.3 Eusko Jaurlaritza**

Eusko Jaurlaritzaren papera ulertzeko bi ikuspuntutik aztertzea komenigarria izango litzateke, Gobernu Zentralarekin eta Lurralde Historiko bakoitzeko Diputazioarekin erlazio ezberdina baitu. Horretarako zenbait legetan oinarrituko gara.

1979an onartutako autonomi estatutuak Gobernu Zentrala eta Euskal Autonomi Erkidegoaren gastu eta sarrereren kompetentziak eta beraien arteko erlazio finantzarioa zehazten du. Horren arabera, gastuari dagozkion transferitutako kompetentziak E.A.E.ri transferitzen zaizkio, Eusko Jaurlaritza edo dagokion lurraldeko Foru Aldundien ardura definitu gabe. Bestalde, sarrerei dagokionean, Gobernu zentralak transferituriko ardurak Foru Aldundiak jaso behar dituztela definitzen da. Hori dela eta Eusko Jaurlaritzak erregimen komuneko beste autonomi erkidegoen gaitasun berdinak ditu, zerga propioak ezartzeko eta Autonomi Erkidegotako Tributu lege Organikoan (AETLO)<sup>3</sup> aurreikusitako zergei, lurralde historikoek ezarritako zergak, errekarquak ezartzeko aukera. Hala ere Foru Aldundiei Eusko Jaurlaritzari dagozkion gastu kompetentziak estaltzeko diru transferentziak egitera behartzen ditu.

Bestalde Estatua eta E.A.E-ren arteko erlazioa 2002ko Ekonomi Itunaren bidez erregulatzen da. Bertan bi atal ezberdin bereizten dira. Alde batetik E.A.E.ko sarrereren kompetentziak zehazten jarraitzen ditu.

- Euskal Lurralde Historikoei transferituriko zergak zehazten dira. Horietan garrantzitsuenak PFEZ eta BEZ dira.
- Dagokion administrazioan tributatzeko irizpideak ezarri

<sup>2</sup> Lan eta Gizarte Segurantzako ministerioa. Espainiako gobernu.

[http://www.seg-social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Presupuesto\\_aprobado/Ingresos/index.htm](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Presupuesto_aprobado/Ingresos/index.htm)

<sup>3</sup>AETLO (Autonomi Erkidegotako Tributu Lege Organikoa). Gazteleraz: LOFCA (Ley Orgánica de Financiación de las Comunidades Autonomas)



- Itundutako zergetan Lurralde Historikoek duten askatasuna zehazten du, beti ere, Estatu Zentraleko eta Euskal Autonomi Erkidegoko sistemekin harmonizazio irizpideak mantenduz.

Bestalde Estatu Zentraleko eta E.A.E.ren arteko ordainketak egiteko sistema zehazten du *Kupoaren* bitartez. *Kupoa*, Estatuak E.A.E.n eginiko gastuak estaltzeko jasotzen duen konpentsazioa da. Zenbateko kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren artean negoziaketa ematen da. Hala ere bertan ez da finkatzen Lurralde Historiko bakoitzak egin behar duen ekarpena.

Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko erlazioetan zehazten da gai hau Lurralde Historikoen Legearen<sup>4</sup> bidez. Sarrera eta gastuei dagozkion erlazioak finkatzen dira bertan. Sarreraren aldetik, Foru Aldundiek bere osotasunean eta indibidualki, Eusko Jaurlaritzari egin behar dizkioten ekarpenen kalkularen oinarri metodologikoak zehazten dira. Irizpide hauek Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak aplikatzen ditu. Organo hau Eusko Jaurlaritzaren hiru kidek eta Foru Aldundi bakoitzeko beste kide batek osatzen dute.

Gastuari dagokionean, gobernu bakoitzaren gastu kompetentziak zehazten dira, hau da, Eusko Jaurlaritzarenak alde batetik, eta Lurralde Historiko bakoitzaren Foru Aldundiena. Honela Eusko Jaurlaritzaren gastu kompetentzia nagusiak finkatzen dira, Osasun eta Hezkuntzari dagozkionak hain zuzen ere (2011eko aurrekontu likidatuaren arabera 6.225.069.439€ gastatu zituen Osasun eta Hezkuntza zerbitzuetan, aurrekontuaren %59,36a)<sup>5</sup>.

Bestalde aipatu beharra dago 1997az geroztik Foru Aldundien arteko solidaritate funtsa osatu zen, Foru Aldundien baliabideen berdintasunaren alde.

## **2.4 Gipuzkoako Foru Aldundia**

Lehenago ikusi dugun legedian oinarriturik, Gipuzkoako Foru Aldundia, zerga kompetentzia oso handia dela ikusi dugu, zerga garrantzitsuenak bere alde itaunduta baititu. Horien adibide dira PEFEZ, BEZ, Zerga bereziak, Sozietateen gaineko zerga eta beste hainbat zergen gainean duen autonomia.

Hala ere, Foru aldundiak arlo honetan ez ditu eskumen guztiak beregain. Muga horietan garrantzitsuenak, harmonizazioarekin loturik daudenak izan daitezke:

- Espainiak sinatutako Hitzarmen edo Itun Internazionalak errespetatzea.
- Enpresen kompetentzia askea eta kapitalen mugimendu askea ez oztopatzea.
- Erregimen komunekin lurraldeen antzeko presio fiskala mantentzea.

Gainera ezin dugu ahaztu, Euskal Lurralde Historikoen Foru Aldundien arteko parekotasunak ere mantendu behar dela. Horretarako Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak, Foru Aldundien arteko desberdintasunak handiak izan ez daitezela jarduten du.

<sup>4</sup> Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta euren Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea (EHAA 1983/12/10)

<sup>5</sup> Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza saila <http://aurrekontuak.irekia.euskadi.net/es/budgets>

Muga nagusiak ikusi arren, zerga gehienak Foru Aldundien esku daude, hala ere gastu konpetentziak ez dira sarrerekin zuzenki erlazionatzen. Hori dela eta Foru Aldundiak gainontzeko gobernu organoei hitzartutako diru ekarpenak egiten dizkiete, kupo bitartez edo transferentzi zuzenen bidez. Bere gastu konpetentzia nagusiak azpiegituren eraikuntza eta gizarte babesak biltzen ditu (2012ko hasierako aurrekontuen arabera 419.692,03€ko gastua osatuko dute bi partida horiek, aurrekontu guztiaren %61,76a)<sup>6</sup>.

Hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldearen gastuan garrantzia izan arren, zer egin nagusia sarrera publikoen arduran oinarritzen dela defini dezakegu. Foru aldundiak, erregimen komuneko beste diputazioek ez dituzten konpetentziak ditu zerga bilketa eta erregulazio mailan. Beraz, hiritarrek eginiko ekarpenen zuzeneko onuraduna da, sarrera publikoetan duen garrantzia azpimarratuz. Foru Aldundiak zerga bilketa burutu ostean, transferentziak hitzartu behar ditu dagozkion organoekin. Alde batetik, udaletxeekin harremanetan jartzen da hurrengo puntuan azaltzen den moduan. Bestalde, Euskal Autonomi Erkidegoaren gastua finantzatzeko dagokion zenbatekoa definitzen da, honen barne Eusko Jaurlaritzak osasun eta hezkuntza zerbitzuen konpetentziak estaltzeko zenbatekoa adibidez. Baita ere, Espainiako Gobernuak lurraldean buruturiko gastua finantzatzeko dagokion kupoaren zatia bideratzen zaio Eusko Jaurlaritzari, kupoaren zenbateko osoa ordaintzeko. Beraz Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernu zentralarekin kupoaren negoziazioa burutzen du, finantzatzeko konpetentzia nagusiak Foru Aldundiek dutelarik, Foru Aldundiaren sarreraren arloan duen zeregina azpimarratuz.

## **2.5 Udaletxeak**

Gipuzkoako udaletxeak, hiritarren bizitzan gertuko gastuez arduratzen da gehienbat. Horiek oinarritzko udal zerbitzuak (ura, zaborren gestio, etab.), hirigintza, gizarte laguntza edo eta kirol eta kultura jarduerak dira.

Sarrerei dagokionean, bost udal zergaz arduratzen dira. Ondasun higiezinak, Jarduera ekonomikoak eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak izaera obligatorioa dute, hots, udaletxe guztiek aplikatu behar dituzten zergak dira. Bestalde eraikuntzak, instalazio eta obrak eta hiri izaerako lurren balio-gehitzeagatiko zergak aukerazko izaera dute. Udaletxe bakoitzak bi udal zerga hauek aplikatzeko autonomia du.

Udal zergez gain beste tributuen bitartez ere diru sarrerak eskuratzen dituzte udaletxeek. Horiek tasak dira, emaniko zerbitzu baten gastu totala edo zati bat estaltzeko sarrerak izanik. Tasen bitartez lortutako finantzazioa ezin da tasa hori

---

<sup>6</sup>Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza departamentua  
<http://www4.gipuzkoa.net/ogasanenet/aurrekontuak/comparaPresupuestos.aspx?g=2>

bideratuta dagoen zerbitzuarekin erlaziorik ez duen gastura bideratu, helburudun sarrera bat baita.

Azterturiko tributuen bilketa ahalmena ez da udaletxeek dituzten gastu kompetentziak estaltzeko nahikoak izaten. Hori dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (UFFF) bitartez udaletxeen beharrak asetzeko finantzaketa ahalbidetzen du. UFFF-a udaletxeek jasotzen duten sarrera garrantzitsuenetakoa da, hori dela eta sakonago aztertuko dugu.

UFFF-a Gipuzkoako udaletxeek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) ohikotasunez jasotzen dituzten errekurtsioak dira. Bere erabilpena ez dago mugatuta, hau da, gastu arrunt nahiz kapitalekoak estaltzeko erabil daiteke. Bere kalkulua era automatikoan burutzen da formula matematiko baten bitartez. Udaletxeen arteko banaketa, herri bakoitzean bizi den biztanle kopuruan oinarritzen da bereziki. Hala ere beste zenbait ezaugarri kontuan hartzen ditu, udaletxeak burutzen duen esfortzu fiskala, bertako biztanleen errenta maila, biztanle gutxiko herrien bereizpena edo eta Donostiaren hiriburu izaera. Azkenik UFFF-aren ezaugarri garrantzitsuenetakoa, itundutako tributuen bilketaren arrisku partekatuan oinarritzen dela da. UFFF-a urte hasieran eginiko tributuen bilketaren aurreikuspenean oinarritzen da. Urteak aurrera egin ahala diru-bilketa gauzatu doa, normalean diru-bilketa erreala eta aurreikuspenaren artean diferentzia emanik. Bereziki azken urteetan eman den arazoetako bat, diru-bilketa errealak aurreikuspenenaren azpitik kokatzean datza, ondorioz, udaletxeei UFFF-aren bitartez aurreratutako diruaren zati bat bueltatzeko obligazioa sortuaz. Arazo honen garrantzia “*Udaletxeen azterketa*” atalean azterturiko lehen puntuan sakontzen da.

Laburbilduz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gastu eta sarreren kompetentziak bost gobernu organoen artean banaturik daude, sare zabal eta konplexua eratuz. Sarreren arloan, Foru Aldundiak eta Gobernu Zentralak dituzte eskumen nagusiak, beti ere sistemaren harmonizazioa mantenduz. Gastuari dagokionean 1.1 taulan ikus daitekeen gisan, gai ezberdinetan organo bakoitzaren ardura islatzen da, zenbait kasutan, arlo komunak direlarik.

	Europar Batasuna	Estatu Zentrala	E.A.E	Gipuzkoako Foru Aldundia	Udaletxeak
Administrazio orokorra		√	√	√	√
Atzerria		√			

**1. taula: Gastu kompetentziak.**<sup>7,8,9</sup>

Azpiegiturak	EGEEF	√ (Portu eta aireportu)	√ (Errepide, obra hidrauliko, trenbide euskarri)	√ (Errepide eta Obra hidraulikoak)	
Hezkuntza	EGEEF		√		√
Kultura		√	√	√	√
Kirolak					√
Osasuna	EGEEF		√		
Justizia		√	√		
Defentsa		√			
Hiritar segurtasuna			√ (Ertzaintza)		√
Suhiltzaile					√*
Ingurugiroa			√		√
Pentsioak		√			
Gizarte zerbitzuak			√	√ (Gizarte babesa)	√** (Zerbitzu sozialak)
Lana			√		
Langabezia		√ <sup>10</sup>	√		
Ekonomi sustapena			√	√	
Turismo eta merkataritza			√		
Nekazal politika	NPB		√	√	
Industria			√		
Enpresa jarduera sustapena			√		
Eraikuntza eta Hirigintza			√	√ (Hirigintza)	√
Trafikoa		√			
Garraioa			√	√	√*
Bide publikoa					√
Zerbitzuak (basurak, argia, etab.)					√

\* 20.000 biztanletik gorako hirietan

\*\*50.000 biztanletik gorako hirietan

<sup>7</sup>Eusko Jaurlaritza <http://www.euskadi.net>

<sup>8</sup>Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Estructura económica de Gipuzkoa <http://www.camaragipuzkoa.com/secciones/publicaciones/publicacionesEconomicas.php>

<sup>9</sup>7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena [http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/es/contenidos/informacion/leyes\\_euskera/eu\\_3818/adjuntos/Administracio-zuzenbidea/Toki-araubidearen\\_oinarriak\\_arautzen\\_dituena.pdf](http://www.ivap.euskadi.net/r61-3039/es/contenidos/informacion/leyes_euskera/eu_3818/adjuntos/Administracio-zuzenbidea/Toki-araubidearen_oinarriak_arautzen_dituena.pdf)

<sup>10</sup> Euskal Erkidego Autonomoan eskumen transferituak: Lanbide

### 3. AURREKONTUETAN KONPETENTZIAK

---

Europaren konpetentziak aurrekontuen arloan garatuz joan dira denborak aurrera egin ahala. Beste zenbait arlotan gertatu den legez, Europar Batasunak (EB) hartzen dituen erabakiak era zuzenagoan eragiten diete osatzen duten herrialdeei. Aztertu behar dugun arloari dagokionean, 1996ean Europar Batasunak Kontuen Sistema Europarra (KSE-95) derrigorrezkotzat zehaztu zuen erregelamendu maila emanez<sup>11</sup>. Era honetan EBk osatzen duten herrialdeen arteko politika eta ekonomi bateratuaren aldeko aurrerapausoa izan zen.

KSE-95ak kontzeptu kontableak definitzen ditu, EBeko herrialde bakoitzak bere araudian integratzen dituelarik. Honela Europa maila kontzeptuen bateratasuna lortzen da. Kontzeptuak finkatzeaz gain KSE-95aren erabilpena anitza da:

- Ekonomia baten estruktura bere osotasunean ezagutzea.
- Ekonomia baten atalak aztertzea (administrazio publikoaren kontuak adibidez).
- Denboran ekonomiaren eboluzioa aztertzea.
- Ekonomien arteko alderaketak burutzeko informazioa homogeneousatzea.

Hala ere KSE-95ren ondorio nagusia, kontzeptu kontableen kalkuluen metodologia zehazpena da. Honek ondorio zuzenak ditu, Europa mailan hartzen diren erabakiak gero eta gehiago direlarik. Herrialdeen adierazleen kontrol neurgailu gisa erabiltzeko metodologia zehaztuta dago araudian. Herrialde baten egoera kontablea neurtzeko irizpideak amankomunak badira, erabakitako helburuak betetzen dituzten ala ez aztertzea errazago finkatu daiteke. Hori dela eta, herrialde batek helburuak beteko ez balitu, neurriak hartzeko oinarri baliagarria ahalbidetzen du. Hau da, KSE-95ak marko kontablearen homogeneousazioari lagundu egiten dio, zenbait oinarri ezagun eta adostuak ezarriz.

Lehenago aipatu dugu, Europa mailan aurrekontuen arloan hartzen diren erabakiak gero eta ugariagoak direla. Hala nola azken urteetan garrantzitsuena Euroan sartzeko 1997an buruturiko Hazkunderako eta Egonkortasunerako Akordioa izan zen. Akordio honen helburu nagusia herrialdeen egoera fiskala kontrolatuko lukeen mugak ezartzean zetzan eta muga horiek ez betetzearen neurriak ezartzea. Harturiko erabaki garrantzitsuena herrialdeen defizit publikoa %3ra mugatzea izan zen, Euroan sartzeko ezinbesteko baldintza izanik. Defizit publikoaren kalkulua KSE-95an oinarriturik zegoen, herrialde guztiek era amankomun batean zehaztu zezaten. Hortaz argi ikus daiteke kasu honetan KSE-95aren garrantzia Europar Batasuna osatzen duten herrialdeentzat, bertan ezarritako metodologia aplikatzen baitzitzaion Euroaren kide izateko baldintzak betetzen ziren edo ez jakiteko. Helburuak hala ere ez dira beti konstante mantendu. Bernardo de Miguel-ek “¿Qué está pasando?” liburuan azaltzen du 2003. urtean defizitaren helburua indargabetu egin zela, Alemania edo Frantzia

---

<sup>11</sup>1996ko ekainaren 25eko kontseiluko erregelamendua (EK) zk. 2223/96 europar kontu nazional eta komunitateko erregioen sistemari buruzkoa, Egunkari Ofiziala zk. L310/11/1996. <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:1996:310:0001:0469:ES:PDF>

bezalako herrialdeak helburua betetzen ez zutelarik. Hala ere bi urte geroago 2005eko irailean, diziiplina fiskala berrezarri zuten.

Garbi ikus daiteke Europaren garrantzia aurrekontu publikoen arloan, zenbait helburu finkatuaz eta horien kontrolerako irizpideak ezartzean oinarritu dela. Denborak aurrera egin eta krisi ekonomikoa gogortu ahala, ez da Europaren garrantzia murriztu, kontrakoa baizik. Europar Batasunean harturiko zenbait erabakiren ondorioz, Espainiako estatuak, *Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa* (AEFILO) aurkeztu zuen, betebeharreko zenbait baldintza ezarriaz.

Hiru dira AEFILOen bitartez lortu nahi diren helburuak: administrazio publikoen egonkortasun finantzarioa bermatzea, aurrekontuen egonkortasunari dagozkien Europako konpromisoetan indartzea eta Espainiako ekonomiaren egonkortasuna indartzea<sup>12</sup>.

Helburu hauen alde adosturiko erabakiak, aurrekontu publikoen arloan aldaketa nabariak eragin dituzte, hori dela eta sakonago aztertuko ditugu.

Aurrekontuen egonkortasunean, aurrekontuak onartu eta gauzatzeko, superabit estrukturalako egoeran egon behar dutela finkatzen da (3.1 eta 3.2 artikulua). Honek aurrekontuak aurrera eramateko, sarreren lehenengo zazpi kapituluak, gastuen lehen zazpi kapituluaren gainetik egon behar direla esan nahi du. Metodologia hau KSE-95an finkatzen da, oinarritzko dokumentua dela agerian utziaz.

Gaur eguneko eta etorkizuneko gastuak finantzatu ahal izateko, defizitaren eta zor publikoaren mugak ezartzen dira, Europako lege eta normatibetan ezartzen dena (4.2 artikulua). Defizitaren arloan Europar Batzordeak urte hasieran 2012rako %6,3ko defizita estimatu zuen eta 2013rako %4,5koa<sup>13</sup> (2013/02/22) eta zor publikoaren muga BPG-aren %60 (Egonkortasun eta hazkunderako egigunea).

Gastuei dagokionean legearen 12. artikuluan gastuaren erregela definitzen da non gastuaren aldaketak epe ertainera, barne produktu gordinaren hazkunde erreferentzi tasa gainditu ezin duela zehazten den. Hau da, gastuaren hazkuntza herrialdeak sortuko duen aberastasunaren azpitik handitzea nahi da. Gainera sarreren arloan estimazioen gaineko desbideratze positiboa balego, jasotako diru gehigarria ezingo litzateke gastu arruntera bideratu, bere osotasunean zor publikoa murriztera bideratu behar dela ezartzen da.

Legearen beste atal garrantzitsu bat ikusitako azken ideien ildotik doa. Aurrekontuen likidazioa superabit egoeran itxiko balitz, diferentzia, zorpetze netoaren murrizketaren mesedetan erabili beharko dela zehazten du 32. artikulua.

Hortaz laburbilduz, *Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa* gastua, defizit eta zor

<sup>12</sup> Roberto Fernández Llera, Oviedoko unibertsitateko doktorea  
<http://fiscalizacion.es/2012/04/14/estabilidad-sostenibilidad-y-gasto-publico/>

<sup>13</sup> Expansión.com “La Comisión Europea revela sus perspectivas económicas y si abre la mano con el déficit” (2013/02/22) <http://www.expansion.com/2013/02/22/economia/1361511456.html>

publikoa kontrolatzeko aldaketa garrantzitsuak barneratu dituela esan genezake. Hala ere ez da legearen ondorio bakarra, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren bitartez, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen legea eta 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideak onartu zituzten, estatu mailako lege organikoa garatuz.

Bertan aurrekontuen egonkortasun neurriei eta zor publikoari Diputatuen Kontseiluak urtero mugak ezarriko dituztela ebazten dute, beti ere Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutakoa helburuak kontuan hartuz. Egonkortasun neurriei dagokionean, metodologi berdina erabiliko dela zehazten da *aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideetan*. Hau da, KSE-95 oinarritzat hartzen duen sarrera eta gastuen lehen zazpi kapituluaren alderaketa.

Zor publikoaren murrizketaren helburuak ordea estatuarenak baina malguagoak dira. 2. erregelari, 2013ko abenduaren 31ko zor biziaren 2012an likidatutako sarrera arruntaren %95aren azpitik kokatzeko helburua ezartzen du, estatu mailan %75ean kokatzen delarik. Hala ere 2020rako Gipuzkoa mailan, zor biziaren muga %75 parekatzeko helburua finkatzen du. Kontuan hartu behar dugu, zor bizi guztiaren zenbaketa egiterakoan, Udalak Finantzatzeko Foru Fondorengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak kontabilizatzeaz salbuetsita daudela.

Gastuaren mugari dagokionean, gastu konputagarrien bariazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak urtero harturiko erabakiaren arabera izango da. Gastu konputagarria da kalkuluaren oinarria, gastuaren lehen zazpi kapituluaren baturari, gastu finantzarioa eta “beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia” kendu behar delarik. 2012 eta 2013aren arteko gastu konputagarriaren muga bariazioaren %1,7an ezarri dute gehienez.

Azkenik foru arauaren sarreraren erabilpenetan zentratuko gara. Hasteko aurreikusitako goragoko sarrerak eskuratzekotan, lege organikoan ikusi dugu ezin dugula gastu berririk finantzatu, baina bere erabilpenean nabardura bat gehitzen dio foro arauak lege organikoarekin alderatuz. Gipuzkoan sarrera horiekin zor biziaren murrizteko edo zorpetze eragiketa gehiago saihesteko erabili daiteke, errekurso horien erabilpenean malgutuz. Diruzaintza gerakina ere helburu berdinetarako erreserbatzen dela ebazten du foru arauak.

Espainiako eta Gipuzkoako udaletxeek legeen azken aldaketak direla eta betebeharreko erregelen diferentziak irudikatu ditugu 2. taulan. Defizitaren eta gastuari dagokionean 2013rako helburu berdina dituzte. Zor biziari dagokionean ordea, helburuak kuantifikatzeko metodo ezberdinak adostu dituzte. Espainia mailan udaletxeek izan dezaketen zor biziaren metatua, Espainiaren BPG-aren %4aren azpitik kokatu behar da. Gipuzkoan ordea sarrera arruntekiko %95eko helburua zehaztu da 2013rako. 2020rako helburua zor biziaren murriztea dela ikus dezakegu, jomuga horiek lortzeko kontrol elementu ezberdinak erabiliz. Ondorioz, Gipuzkoak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012

*Lege Organikoa* garatu arren, helburuen zehaztapenean parekotasun handia dagoela antzematen da.

## **2. taula: Espainia eta Gipuzkoako udaletxeen helburuen diferentzia**

Helburuak	Espainia		Gipuzkoa	
	2013	2020	2013	2020
<b>Defizita</b>	0 <sup>14</sup>	-	0 <sup>15</sup>	-
<b>Zor Bizia</b>	%4 BPG <sup>16</sup>	%3 BPG <sup>17</sup>	%95 <sup>14</sup>	75% <sup>14</sup>
<b>Gastua</b>	%1,7 <sup>13</sup>	-	%1,7 <sup>14</sup>	-

Iturriak: Ogasun eta Administrazio Publikoen ministerioa, Espainiako Bankua, Espainiar Udal eta Probintzien Federazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Atal honetan aurrekontu publikoen gaineko kompetentziak konplexuak eta zabalak direla ikusi dugu. Bereziki Europar Batasunak jarraitu beharreko gida zehazten du, oinarri den KSE-95 arau jarraituz eta akordio lotesleak hartuz. Gobernu zentralak, maila komunitarioan harturiko helburuak gauzatzeko bideak estrukturatzen ditu eta Espainia ia guztian gauzatzear arduratzen da. Gipuzkoaren kasuan orde Foru Aldundiek dituzten eskumenetan, errespetatu behar dituzten helburu eta arauak lurraldearen baldintzetara egokitzen ditu, eta horiek gauzatzear arduratzen da. Zeharka baina garrantzia maila baxuagoan, Euskal Autonomi Erkidegoak ere aurrekontuei forma ematen parte hartzen du, Ekonomia Itunaren bidez Espainiako Gobernu Zentrala eta lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundien bitartekari gisa egiten duela esan baitezakegu.

<sup>14</sup><http://www.sepg.pap.minhap.gob.es/sitios/sepg/es-ES/Presupuestos/NormativaPresupuestaria/Documents/NORMATIVA%20DE%20ELABORACION/Acuerdo%20Objetivo%20Estabilidad%202013-2015%20y%20LGNF%202013.pdf>

<sup>15</sup> 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideak

<sup>16</sup>[http://www.femp.es/CartaLocal/Front/Noticias/CL\\_ContentidoDetalle/\\_sYcniRvuy5kWRIfMc-G7LX5mu-vBN7WLaNOBxYqjI9k](http://www.femp.es/CartaLocal/Front/Noticias/CL_ContentidoDetalle/_sYcniRvuy5kWRIfMc-G7LX5mu-vBN7WLaNOBxYqjI9k)

<sup>17</sup><http://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/InformesBoletinesRevistas/BoletinEconomico/13/Abr/Fich/be1304-art2.pdf>



#### 4. AURREKONTUEN EGITURA

---

Aurrekontuak, ezarritako helburu ekonomiko eta sozialak betetzeko, baliabideen esleipenean eta gastuen finkatzean erabiltzen den gobernu tresna garrantzitsuenetakoa da, urtebeteko epea barneratzen duelarik.

Aurrekontuak tresna baliagarri gisa definitu ditugu, hala nola, baliabideak esleitzeko edo eta jarduera neurtzeko eta kontrolatzeko lagungarri izan baidateke. Hala ere bere mugak ere baditu. Garrantzitsuena, aurrekontuen partiden arteko transferentzien mugak izan daitezke. Onartutako aurrekontuan, bereziki gastuaren alorrean, ezin dira beti kapitulu batetik bestera transferentziak nahieran burutu. Zenbait kasutan aurrekontuak egonkorregiak izan daitezke jarduera aurrera eramateko. Ordainketa-kredituak udaletxeak gastu partida bakoitzari egokituriko zenbatekoak dira. Horiek azaldu gisan, izaera mugatzailea dute, zehazteko zenbatekoak gainditu ezin direlarik. Alabaina, aurrekontuak malgutzeko binkulazioak erabiltzen dira.

Binkulazioek zenbait gastu partiden zenbatekoak partekatzea ahalbidetzen dute. Partida gastu batek, aurrekontuan egokitutako zenbateko handiago baten ordainketa obligazioa balu, udal entitateak, beste partida binkulatuaren bitartez obligazioari aurre egin ahalko lioke. Hala ere zenbait muga baditu, garbiena, partida binkulatuak zuzenean dagokion gastua aurrekontuan egokitutakoa baino txikiagoa izan beharko lukeela da. Zenbatekoez gain, binkulazioen muga nagusia, gastuaren izaera antzekoa izan behar duela da. Hiru maila ezberdin bereizten dira:

- ✓ Sailkapen ekonomikoko I. kapituluko partida oro binkulatuak daude beraien artean.
- ✓ Kontzeptu mailan lehen mailan eta sailkapen funtzionalean hirugarren mailarainokoak binkulatuak egongo dira II. Kapituluko, III. kapituluko eta IX. kapituluko partidak.
- ✓ Kontzeptu mailan hirugarren mailan eta sailkapen funtzionalean hirugarren mailarainokoak binkulatuak egongo dira IV. kapituluko, VI. kapituluko, VII. kapituluko eta VIII. kapituluko partidak.

Hortaz aurrekontuen zurruntasuna konpontzeko partida binkulatuak erabiltzen dira, baina partida gastuaren izaeraren arabera, gertutasun handiagoa izan beharko dute binkulazioak erabiltzeko. Beraz, aurrekontu bat eratzerakoan, gastuaren partida bakoitza kontuz zehazteaz gain, ideia antzeko gastuen zenbatekoen esleipena jardueraren exekuzioa mugatuko du.

Binkulazioak, ez dira aurrekontuak malgutzeko sistema bakarra. Izaera ezberdineko kredituen bitartez helburu berdina lor daiteke. Horren adibide kreditu globalak dira. Hauek gastu partida baten ez ohizko beharrei edo behar berriei aurre egiteko erabili daitezke. Hala ere ordainketa-kredituen totalaren %5,26 baino gehiago ezin du suposatu.

Kreditu zabalgarriak ere gastu partiden zenbatekoak handitu ditzake zenbait supostutan. Hala ere aurrekontua burutzerakoan partida zabalgarriak zein diren eta zein supostutan erabiliko diren identifikatu behar dira.

Aurrekontuen alde negatiboena, zenbait kasutan jarduera aurrera eramateko zurruneziak izan zitezkeenaren aipua egin dugu. Nolanahi ere, arazo hori konpontzeko zenbait tresna diseinatu direla ikusi dugu. Honela aurrekontuak erabiltzeko markoan ere lan egin dela esan daiteke.

Aurrekontuen analisia sailkapen ekonomikotik burutuko dugu. Bertan oinarrituz, lau taldetan banatuta dago: kapitulua, artikulua, kontzeptua eta azpi-kontzeptua. Atal honetan aurrekontu publikoen kapitulu mailan ematen den sailkapena aztertuko dugu, bakoitzaren osagaiak aztertuz.

Aurrekontuetan ematen den lehen bereizketa, gastu eta sarrerei dagokiona da, hauek independenteki aztertzen direlarik. Halaber, bai gastuetan zein sarreren barruan beste bereizketa garrantzitsu bat ematen da. Alde batetik *eragiketa arruntak*, ohikotasunez udaletxeak burutzen dituen eragiketak dira, urtero izaera bereko eragiketak errepikatzen direlarik. Bestalde *kapitaleko eragiketak* bereizten dira aurrekontu publikotan. Horietan ez-ohiko edo urtero errepikatzen ez diren eragiketak biltzen dira.

### 3. taula: Udal aurrekontuen egitura

<b>Eragiketa Arruntak</b>	<b>Gastuak</b>	<b>Sarrerak</b>
<b>I</b>	Pertsonal Gastuak	Zuzeneko zergak
<b>II</b>	Ondasun Arrunten eta Zerbitzuen Erosketa	Zeharkako Zergak
<b>III</b>	Finantza Gastuak	Tasak eta Bestelako Sarrerak
<b>IV</b>	Transferentzia Arruntak	Transferentzia Arruntak
<b>V</b>		Ondare Sarrerak
<b>Kapitaleko Eragiketak</b>	<b>Gastuak</b>	<b>Sarrerak</b>
<b>VI</b>	Inbertsio Errealak	Inbertsio Errealak Besterenganatetik eta Hirigintzako Jardueretatik Ondorioztatutako Beste Sarrera Batzuk
<b>VII</b>	Kapital Transferentziak	Kapital Transferentziak
<b>VIII</b>	Finantza Aktiboak	Finantza Aktiboak
<b>IX</b>	Finantza Pasiboak	Finantza Pasiboak

Iturria: Toki entitateen eta beren erakunde autonomoen sarreren sailkapen ekonomikoa

Lehen bereizketa nagusia ikusi ondoren, sarrera eta gastuen kapitulu bakoitza banan banan aztertuko dugu.

## Gastu Arruntak

---

### **I. Kapituluua: Pertsonal Gastua**

Udaletxeak bere pertsonalari bere lanagatik ordaindutako ordainsariak, kalte ordainak, Gizarte Segurantzaren kotizazioak eta bestelako ordainketak kontabilizatzen dira atal honetan.

### **II. Kapituluua: Ondasun Arrunten eta Zerbitzuen Erosketa**

Kapitulu honetan, udaletxeak zerbitzu eta ondasun arrunten gastua biltzen du, beti ere ondare publikoaren gehikuntzarik sortzen ez dutelarik. Adibidez, udaletxeek azpikontratutako zerbitzuak eta buruturiko erosketa arruntak biltzen dira.

### **III. Kapituluua: Finantza Gastuak**

Udaletxeek aurre egin behar dien finantza gastuak kontabilizatzen dira, bereziki maileguen ordainketatik eratorritakoak.

### **IV. Kapituluua: Transferentzia Arruntak**

Gastu arrunta finantzatzeko udaletxeak beste entitate publiko naiz pribaturi emaniko kapital kopuruak kontabilizatzen dira kapitulu honetan.

## Kapitaleko Gastuak

---

### **VI. Kapituluua: Inbertsio Errealak**

Kasu honetan udaletxeak eginiko inbertsioak kontabilizatzen dira, epe luzean iraun, suntsikorrak ez diren, inbentariotik at gelditzen diren eta normaltasunez burutzen ez direnak hain zuzen. Hots, II. Kapituluuko baldintza betetzen ez dituztenak bilduko dira.

### **VII. Kapituluua: Kapital Transferentziak**

Kapital izaerako eragiketak finantzatzeko, beste entitate edo pertsonari eginiko transferentziak biltzen dira. Hau da, IV. kapituluakoaren antzekoak baina izaera arrunta ez dutenak.

### **VIII. Kapituluua: Finantza Aktiboak**

Finantza aktiboetatik eratorritako gastuak biltzen dira, hala nola aurrerakinen edo maileguen emateak edo gordailu edo fidantzak eratzetik sortutakoak.

### **IX. Kapituluua: Finantza Pasiboak**

Gastuaren azken kapitulan, eskuratutako mailegu eta zorren ordainketetatik amortizatzen diren zenbatekoak kontabilizatzen dira, bai epe laburrekoak zein epe luzeakoak.

## Sarrera Arruntak

---

### **I. Kapituluua: Zuzeneko Zergak**

Kapitulu honetan kapitala grabatzen duten zergen bidez bildutako zenbatekoak kontabilizatzen dira, hau da, errenta edo patrimonioaren gainekoak. Bertan ondorengo zergak tipifikatzen dira:

- ✓ Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- ✓ Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
- ✓ Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga edo plusbalioak.
- ✓ Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

### **II. Kapituluua: Zeharkako Zergak**

Bertan kontsumoa grabatzen duten zergen ondorioz lortutako diru-bilketa kontabilizatzen da. Zerga ezberdinak biltzen dira bertan, baina garrantzitsuenak Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga da, beti ere, zehaztutako aktibitatea, udal mugen barnean gauzatzen bada

### **III. Kapituluua: Tasak eta Bestelako Sarrerak**

Tributu hauek udaletxeek emaniko zerbitzuagatik herritarren eskutik jasotzen diren kontraprestazioak biltzen ditu nagusiki. Kontzeptu horiengatik jasotako dirua, tasak zehazten duen zerbitzu ematera bideratu daiteke soilik. Tasa garrantzitsuenak zabor, ur, edo eta hirugarren adineko biztanleriari emaniko zerbitzuengatikoa da.

### **IV. Kapituluua: Transferentzia Arruntak**

Kapitulu hau udaletxeen antolaketan garrantzia handia duen kapituluua da. Bertan gastu arrunta finantzatzera bideratzen diren diru transferentziak biltzen dira. Transferentzia hauek Estatutik, Euskal autonomi erkidegotik edo eta Foru aldunditik burutu daitezke. Horien adibide lehenago aztertutako Udal Finantzaketarako Foru Fondoa da, udaletxeen sarreraren erdia baino gehiago suposatzen dezakena.

### **V. Kapituluua: Ondare Sarrerak**

Ondarearen errentatik eratorritako sarrerak biltzen dira bertan. Udal entitateek burtsan inbertitzeko debekua dute, hori dela eta, erreta finakoko inbertsioetatik bildutako sarrerak kontabilizatzen dira oro har.

## Kapitaleko Sarrerak

---

### **VI. Inbertsio Errealak Besterenganazetik eta Hirigintzako Jardueretatik Ondorioztatutako Beste Sarrera Batzuk**

Kapitulu honetan udal entitateen jabetzako ondasunak materialak saltzeagatik lortutako sarrerak barneratzen dira.

### **VII. Kapital Transferentziak**

Udaletxeak inbertsioak burutzeko jasotzen dituzten diru transferentziak biltzen dira kapitulu honetan. Jasotako diru laguntzak ezin da gastu arrunta finantzatzeko erabili, diru-ematea buruturiko kontzeptuaren mesedetan baizik.

### **VIII. Finantza Aktiboak**

Udaletxeek dituzten finantza aktiboak saltzeagatik sorturiko sarrerak biltzen dira. Normalean sozietate publikoen partizipazioen salmentagatik edo desagertzeagatik lortutako sarrerak izaten dira.

Sarreraren kapitulu honetan, aurrekontuetan garrantzizkoa den kontzeptu bat barneratzen da, diruzaintza gerakina. Hori dela eta kontzeptu hau sakonean aztertzekeo parentesi bat irekiko dugu. Diruzaintza gerakina, kontzeptu finantzario gisa defini dezakegu, diruzaintza mugimenduak sortzen dituzten eskubide eta obligazioen gauzatzeak kontuan hartzen baititu, kobru eskubidea edo ordainketa obligazioen sorkuntzaren orde. Esan genezake diruzaintza gerakinak, kobru eta ordainketetan emango diren egoerak kontuan hartuz, ematen den diruzaintza izango litzateke. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 abenduaren 19ko Foru Arauaren 48.artikuloan, diruzaintza gerakina osatzen dituzten elementuak azaltzen dira. Hala ere hauek azaldu baino lehenago, garrantzitsua da aurrekontuen likidazioetan oinarritutako kalkulua dela azpimarratzea. Esan dugu kontzeptu finantzariotzat jo genezakeela, hortaz obligazioen gauzatzeak barneratuko zituela, obligazioen sorketen ondorioez gain. Horiek aurrekontuen exekuzioan agertzen dira, aurrekontu likidatuetan hain zuzen ere.

**4. taula: Diruzaintza Gerakinaren kalkulua**

<b>DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	
<b>1.- DIRUZAINZAKO IZAKIN LIKIDOAK:</b>	_____
<b>2.- KOBRATU GABEKO SALDOAK (+):</b>	_____
· Sarrereren aurrekontuko zordunak: aurtengo ekitaldia (+)	_____
· Sarrereren aurrekontuko zordunak: ibxitako ekitaldiak (+)	_____
· Aurrekontuz kanpoko zordunak (+)	_____
· - Aplikatu gabeko kobrantzak	_____
<b>3.- ORDAINDU GABEKO SALDOAK (-):</b>	_____
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: aurtengo ekitaldia (-)	_____
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: ibxitako ekitaldiak (-)	_____
· Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak (-)	_____
· Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (-)	_____
· - Aplikatu gabeko ordainketak	_____
<b>4.- DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1+2-3):</b>	_____
<b>5.- SALDO KOBRAGAITZAK:</b>	_____
<b>6.- DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA (4-5):</b>	_____
<b>7.- FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA:</b>	_____
<b>8.- GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA (6-7):</b>	_____

Iturria: Erkizia. A.

Diruzaintza gerakinaren kalkulua burutzeko, entitateak dituen fondo likidoetatik hasten gara, hau da, abenduaren 31ean duen diruzaintzaren zenbatekoa.

Zenbateko honi, kobratzeke dauden kobru eskubideak gehitu behar zaizkie. Hauen barnean atal ezberdinak hartzen dira kontuan. Hasteko bukatutako ekitaldian eta aurreko ekitaldian kobratzeko dauzkagun kobru eskubideak barneratzen dira. Atal honen barruan ere aurrekontuz kanpoko zordunen zenbatekoak gehitzen dira. Zordun hauek dagokion entitatearekin zordunak dira baina aldi berean, eragiketaren jatorriak ez du entitatearen gainean eraginik sortzen. Esan dezakegu mota honetako eragiketetan, entitatea bitartekari hutsa dela, zordunak ordaindu beharreko zenbatekoa, beste entitate edo pertsona bati bideratu behar baitio. Azken kontzeptu hau argitzeko adibide bat jarriko dugu. Adibidez eraikuntza enpresa batek udaletxeak eskatutako inbertsio bat eraikitze kontratua adostu da. Askotan, eraikuntza enpresari fidantza bat eskatzen zaio, hitzartu diren baldintzen betekizuna ziurtatzeko. Fidantza hori adibidez dirutan egingo balitz, udaletxeak zenbateko hori aurrekontuz kanpoko hartzekodun gisa kontsideratuko dezakegu, normalean itzuli beharko dugun zenbatekoa baita.

Kobratzeke dauden eskubideen artean kontuan hartzen den azken elementua, aplikatu gabeko kobrantzak dira. Bertan kobraturiko elementuak barneratuta daude, baina bere jatorria ezezaguna denez, ez dakigu entitateari dagozkion eta hortaz ezin da jakin bueltatu beharko ditugun ala ez. Hori dela eta ikur negatiboarekin doa, jada gure fondo likidoen barnean baitaude.

Kobru eskubideak aztertzen diren gisan, ordainketa obligazioekin ere berdina egiten da. Osagai antzekoak dituzte, ekitaldian eta aurreko ekitaldiko ordainketak, aurrekontuz kanpoko hartzekodunak edo eta aplikatu gabeko ordainketak. Kobruen izaera berdina dute, diferentzia bakarra, kobruen orde, ordainketak aztertzen direla. Alabaina, bada beste osagai gehigarri bat ordainketen alorrean, sarrereren aurrekontuko hartzekodunak hain zuzen. Kasu honetan kobratzea egokitzen zitzaiona baino gehiago

kobratu du entitateak. Hortaz jasotako diru gehigarri hori bueltatu egin behar du, sarreren murrizketa bat izanik. Hau da, diru itzulketa horri dagokion zatia erreserbatu egiten dugu, jada diruzaintzako fondo likidoetan barneratuak izan baitira. Kasu hau ohikoa izaten da hiritarren zergen ordainketengatik dagokiona baino gehiago ordaintzen duenean, udaletxeak zati gehigarria bueltatzen diolarik.

Fondo likidoen, kobru eskubideen eta alde negatiboan ordainketen obligazioetatik, diruzaintza gerakin gordina lortzen dugu. Kontzeptu honi saldo kobragaitzak barneraturik, hots, kobratzeko urtebete edo gehiago pasa diren eskubideak, diruzaintza gerakin likidoa lortuko dugu.

Diruzaintza gerakin likidora iritsirik, diruzaintza gerakina bi osagai bereizten dira, finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.

Finantzaketa lotua duten gastuak, urte anitzeko inbertsioak burutzen direnean ematen dira, baldin eta kapitaleko subentzioak izan diren. Diferentzia metatu positiboak izaera horretako diruzaintza gerakinean duten eragina kontuan hartuko dira. Finantrazioaren jatorria inbertsioa izanik, ezin dira beste izaerako gastuetara bideratu, inbertsiotik sortutako beste obligazioak salbu.

Diruzaintza gerakin likidoari finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina kenduaz, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina lortuko dugu.

Beraz, bi diruzaintza gerakin ezberdin bereizten direla ikus dezakegu, gastu orokorretakoa eta finantzaketa lotua duten gastuetakoa, zeinek bere helbururako finantzaziorako soilik erabili daitekeen.

Diruzaintza gerakinen ezaugarri nagusiena, beraien bitartez kreditu txertaketak egiteko aukeran datza. Txertaketak<sup>18</sup> hauek burutu ahal izateko lehen baldintza, diruzaintza gerakinean saldo nahikoa egotea da. Horretaz gain kreditu txertaketak, ezartzen diren ekitaldian aplikatu beharko dira. Azkenik, txertaketak programa funtzionalaren barnean barneratzen dira, horien izaera mantenduaz.

Ikusi dugu, kreditu txertaketen bidez, gastua finantzatzeko diruzaintza gerakina erabili daitekeela. Alabaina, hausnarketa egitea komeni dakiguke. Esan dezakegu diruzaintza gerakina alde batetik kapitaleko sarrerekin finantzatzen dela eta bestetik sarrera arruntekin. Halaber, gerakina gastua finantzatzeko erabili daiteke, beti ere baldintza batzuk beteaz. Hala ere, badira zenbait kasu kapitaleko diruzaintza gerakinarekin, gastu arrunta finantzatzera eramán gaitzakeenak. Kasu hauetan ez ohiko sarrerekin gure jarduera arrunta finantzatzeko gaitzake. Honek bi irakurketa izan ditzake. Diruzaintza gerakina sortzen dugun heinean gastua arrunta handitzea ahalbidetu lezake, zerbitzu gehiago edo hobeak eskaintzeko aukera emanez. Egoera aldatzean ordea, hau da, gerakina sortzen ez denean, zerbitzu horiek finantzatzeko zailtasunak izango genituzke. Gastu arruntak, izaeran, urtetan iraungo duten zerbitzu, pertsonal gastu eta

<sup>18</sup> 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

beste zenbait gastu izango direla ulertu behar dugu. Horiek finantzatzeko, izaera antzekoa duten sarrerekin izatea egokia litzateke, egonkortasun maila bat izateko. Kapitaleko sarrerek bertan sartuz gero, udaletxearen benetako ahalmena distortsionatu dezake eta era honetan bere jarduera nagusia kolokan jarri.

Baliteke gastu arrunta finantzatzeko kapitaleko sarreraren oinarritzat duen diruzaintza gerakina erabiltzea justifikagarria izatea. Adibidez, egoera puntual batean gastu arrunta finantzatzeko, mailegu bat eskatu behar balu, aurreko finantzazio mota egokia izan liteke, mailegu baten kostua ez baitu diruzaintza gerakinak finantzatutako kreditu txertaketek. Nire ustez, honelako egoerak burutzea malgutasuna emango lioke udaletxe bati, beti ere egoera puntual bat izango balitz. Logikoagoa da diruzaintza gerakin ezberdinak izanik, bakoitza izaera berdineko gastuak finantzatzea. Kasu puntaletarako malgutasun puntu bat uztea ere zentzuduna izan daiteke, baina ez arau orokor gisa, udaletxeen izaera, bere gastu arruntean gauzatzen bada eta hori kolokan jartzea oso arriskutsua izan daiteke bai udal entitateentzat, zein sektore publiko osoarentzat.

#### IX. Finantza Pasiboak

Sarreraren bederatzigarren kapituluak, udaletxeek lortutako kanpo finantzaketa islatzen dute. Kapitulu honetan, zorraren jaulkipenetik eratorritako sarrerak eta batez ere, maileguak barneratzen dira.

Azken kapitulu honen gaineko arreta, asko handitu da azken urteotan. Alde batetik, lehenago aipatu dugun bezala, zor muga ezartzeko kontuan hartzen da IX. sarreraren kapituluak. Bestalde, krisi ekonomikoa dela eta, entitate finantzarioetan eskuratutako maileguen baldintzak gogortu egin direlako, udaletxeen ikuspuntutik. Hortaz, koherente izan daiteke, azterketarako udaletxeen hautaketan aldagai hau kontuan hartzea. Halaber, UFFF-ak, udaletxeen diru sarrera garrantzitsuena, aurreikusitakoarekiko diferentzia negatiboak izan dituela aipatu dugu. Ondorioz udaletxeek UFFF-aren ez zegokien aurreratutako zatia bueltatu behar izan dute. Bi elementu hauek erlazionaturik, sakonago aztertuko ditugun udaletxeen aukeraketarako irizpidea finkatu dugu.

Irizpide hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko otsailaren 13an argitaratutako “Gipuzkoako Udalek 2012an hitzartu dituzten epe luzeko kreditu eragiketak” berrian oinarritzen da. Bertan, Gipuzkoako 12 udaletxeek, UFFF-aren likidazioaren diferentzia negatiboaren zati bat finantzatzeko, maileguak eskuratu zituztela zehazten da. Mailegu horiek, taulan ikus daitekeen legez, baldintza berdinetan eskuratu zituzten Caja Rural Navarra banketxearekin, %3,43 + Euriborreko interesarekin.



**5. taula: Gipuzkoako Udalek 2012an 2011ko UFFF-aren likidazioaren saldo negatiboaren zati bat finantzatzeko hitzartu dituzten kreditu-eragiketak**<sup>19</sup>

UDALA	ENTITATEA	ZENBATEKOA	AMORT.	URTEAK GABEALDIA	GUZTIRA	INTERESA	
1	ALTZAGA	CAJA RURAL NAVARRA	10.600	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
2	PASAIA	CAJA RURAL NAVARRA	552.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
3	ELGETA	CAJA RURAL NAVARRA	38.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
4	ATAUN	CAJA RURAL NAVARRA	56.400	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
5	VILLABONA	CAJA RURAL NAVARRA	198.400	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
6	HERNANI	CAJA RURAL NAVARRA	328.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
7	ZUMAIA	CAJA RURAL NAVARRA	318.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
8	ZALDIBIA	CAJA RURAL NAVARRA	51.600	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
9	GAINTZA	CAJA RURAL NAVARRA	9.600	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
10	URRETXU	CAJA RURAL NAVARRA	232.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
11	AZKOITIA	CAJA RURAL NAVARRA	384.000	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
12	ARETXABALETA	CAJA RURAL NAVARRA	228.800	2	0,25	2,25	Euribor + %3,43
		<b>2.407.400</b>					

Iturria: <http://www2.gipuzkoa.net>

Beraz taulan identifikaturik dauden udaletxeak izango dira azterketa zentratuko denetan. UFFF-ko diferentzia bueltatzeko, kanpo finantzaketa zorrotz baten laguntza behar izan baitute. Egoera honek ez du esan nahi udaletxe hauek egoera larrian egongo direnik, motibo ezberdinak egon daitezke kontrakoa justifika lezaketena. Alabaina, egoera ez egonkorrean dauden udaletxeak identifikatzeko irizpide baliagarria izan daiteke, mota honetako udaletxeak, gisa honetako erabakiak hartzeko probabilitate handiagoa egongo litzatekeela pentsa baitezakegu.


<sup>19</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza Departamentua. Gipuzkoako Udalek 2012an hitzartu dituzten epe luzeko kreditu eragiketak. <http://www2.gipuzkoa.net>

## 5. UDALETXEEN ANALISIA

Lanaren atal hau aukeratutako 12 udaletxeen aurrekontuak aztertzeko erabiliko dugu. Horretarako publikoak diren hasierako aurrekontu eta aurrekontu likidatuekin lan egingo dugu. Behin betiko aurrekontuak erabili ezingo ditugunez, ekitaldian egin diren aldaketan ondorioak ezin izango ditugu aztertu.

Analisisa denbora tarte batera mugatu behar dugunez 2008-2012ko urte tarteaz aztertzea erabaki dugu. 2012. urtea eskuragarri izango ditugun azken aurrekontu likidatuak izango direlako aukeratu dugu. Izan ere, Gipuzkoako udaletxeek martxoaren 31ean dute aurrekontu likidatuak aurkezteko epemuga, nahiz eta beti epemuga hori ez bete. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Fidantza Departamentuak eginiko txostenean 2010 eta 2011eko likidazioak jasotako daten arabera grafikoa barneratzen da. Bertan, martxo baina lehen jasotako udaletxeen likidazioak 15 inguru izango lirateke. Beraz udaletxe gehienek aurrekontu likidazioak onartzeko muga legetik aurrerago jasotzen dira eta hortaz beranduago argitaratu. Alabaina, esan beharra dago martxo eta ekaina bitartean udaletxe gehienek likidazioak eskuragarri izan zirela aurreko bi ekitaldietan.

### 1.grafikoa: Udaletxeen likidazioak jasotze data.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza departamentua

Analisiaren hasiera 2008. urtean finkatzearen erabakia, ekonomi krisiak izan duen eragina ikuskatzean datza. Ekonomi krisia analisisian oinarri izango denez, bere jatorri eta ezaugarri orokorrak ezagutzen ahaleginduko gara. Alde batetik lehengaien prezioaren hazkuntzak eragin garrantzitsua izan zuen. Petrolioaren kasua aztertuz, 2008. urtearen hasieran historian lehen aldiz barrileko prezioak 100\$eko prezioa

gainditu zuen prezioak gora egiten jarraitu arren. Urte berdineko uztailean petrolio barrileko prezioa 147,25<sup>20</sup>\$etan saldu zen. Hala ere petrolioa ez zen bere prezioa hazi zuen lehengai bakarra. Jada 2008a baino lehenago beste zenbait lehengai azken urteetako prezio garestienak izan zituzten. Kobreak adibidez, 2004eko irailean tonako prezioa<sup>21</sup> 3.087,50\$eko balioa hartu zuen, 1989tik preziorik altuena.

Bestalde AEBtan emaniko finantza krisia beste faktore garrantzitsua izan da. Finantza krisiaren oinarria etxeen hipotekan datza. Amerikar banketxeek subprime hipoteka edo arrisku handiko hipotekak ematen hasi ziren. Hipoteka hauek, arrisku handia zuten, aplikaturiko interes tipoa beste kredituena baino handiagoa zen. Arriskuaren oinarria, subprime hipotekak sinatzen zituzten bezeroek zuten kaudimenean zetzan, hipotekei aurre egiteko egoera egokienean ez zeudenak. Baina subprime hipoteken arriskuak ez ziren baxentzetan gelditzen, izan ere, merkatuan saltzeko aukera zituztenez, bereziki inbertsio fondo eta pentsio planetan barneratzen ziren. Ondorioz, sistema tradizionalan, etxe erosleak dirua bere mailegatzailerari itzultzen zion. Prozesua luzea zenez, mailegatzailerak kontu handiz neurtzen zituen arrisku guztiak. Sistema berrian, mailegatzailerak hipoteka inbertsio bakuetara saltzen zuten. Inbertsio bankuek, hipoteka eta beste kreditu motak nahastuz, kotxe kredituak, ikasle kredituak edo eta debitu txartelen kredituak *Collateralized Debt Obligations* (CDO) deituriko deribatu konplexuak sortzen zituzten. Deribatuak sorturik, mundu guztiko inbertitzaileek hasieran hipotekak zirenak erosteko aukera zuten. Gainera, inbertsio bankuek, agentzia kalifikatzaileei sortutako deribatuak aztertzeko ordaintzen zieten. Kalifikazioak orokorrean AAA gisa zehazten ziren, kalifikazio balio altuena. Honela kalifikazio maximoekin, inbertsio fondo seguruetan eta bereziki, pentsio fondoetan barneratzeko aukera ematen zieten.

Prozesua urtetan errepikatuaz, CDO deituriko deribatuak mundu guztian gero eta ohikoagoak izaten hasi ziren inbertitzaileen artean. Subprime edo arrisku handiko mailegu gero eta gehiago ematen ziren, arriskuak kanporatzen ziren bitartean. Horren ondorioz, dirua bueltatzea ezinbesteko baldintza izateari utzi zion.

Honetaz gain *Credit Default Swaps* (CDS) izeneko produktu finantzarioak atxikitzen zitzaizkien CDOei. CDSek, aseguru gisa funtzionatzen zuten, CDO deribatua ordaindu gabe geldituko balitz, aseguru konpainia dirua bueltatzeaz arduratuko litzateke. Honek momentuan sarrerak esponentzialki haztea ahalbidetu zuten, CDO deribatuaren jabeaz gain, kanpo espekulatzailerak CDSak eskuratu ahal zituztelako. Era honetan, katearen hazkuntzak eta zabalkuntza indartu zen.

2008ko irailaren 15ean Lehman Brothers inbertsio banku amerikarrak porrot egin zuen, subprime hipoteka ez ordaintze eta banku mailegarien erorketek lagunduta. Gainontzeko finantza entitateak bizkor kutsatu ziren, jada aipatutako erlazio estuak lagunduta. Langabeziak eta BPG azkar egin zuen behera Europa eta AEBetan.

<sup>20</sup><http://www.economista.es/economia/noticias/650205/07/08/Economia-Energia-El-petroleo-marca-nuevos-maximos-y-supera-los-147-dolares-en-Londres.html>

<sup>21</sup>[http://www.cincodias.com/articulo/economia/cobre-alcanza-precio-maximo-dieciseis-anos/20041009cdscdieco\\_8/](http://www.cincodias.com/articulo/economia/cobre-alcanza-precio-maximo-dieciseis-anos/20041009cdscdieco_8/)

Espainaren kasuan BPG-ak 2008an 1,5934 bilioi dolarretik 1,456 bilioi dolarretara murriztu zen, %8,62 erlatiboki eta langabezia %11,3tik %18ra pasa zen<sup>22</sup>. Adierazle hauek ikusiaz, garbi ikus dezakegu zehaztu dugun krisialdiaren hasiera urtea 2008an kokatzea koherentea dela.

12 udaletxeak tamaina eta ezaugarri ezberdinak dituztenez, aurrekontuetan oinarritutako adierazle ekonomiko finantzarioak erabiliko ditugu. Halaber, adierazle hauek, aurrekontuen legedian eman diren aldaketak eta mugekin konparatuko ditugu. Gogoratu behar dugu 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen legea eta 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideak ez direla aztertutako garaian aplikagarri izan, baina bertan ezarritako zenbait helburu jada betetzen diren ikus dezakegu.

Lehenik eta behin, irizpidearen bitartez aukeratutako udaletxeen ezaugarri orokorrak zehaztea komenigarria izan daiteke. Hori dela eta beraien kokapen geografikoa, biztanle kopurua edo dentsitatea aztertzea lagungarria izan daiteke. Kokapen geografikoari dagokionean Gipuzkoako lurralde historikoko zein eskualdetan kokatuta dauden ikusiko dugu.

**6.1. taula: Udaletxeen kokapena eskualdetan.**

Eskualdea	Udaletxeak
GOIERRI	Alzaga
GOIERRI	Ataun
GOIERRI	Gaintza
GOIERRI	Urretxu
GOIERRI	Zaldibia
DEBAGOIENA	Aretxabaleta
DEBAGOIENA	Elgeta
UROLA KOSTA	Azkoitia
UROLA KOSTA	Zumaia
DONOSTIA-BETERRI	Hernani
OIARTZUALDEA	Pasaia
TOLOSALDEA	Villabona

Iturria: www.atlasa.net

Aukeratutako udaletxeen ia erdia, Goierriko eskualdean kokatuta daude, aztertuko ditugun udaletxeen aglomerazio handiena duen eskualdea izanik. Aretxabaleta eta Elgeta, Debagoienako eskualdean kokaturik barnealdeko zonaldea osatuko lukete. Kostaldera joaz, Urola kostako Azkoitia eta Zumaia kokatzen dira. Azkenik Tolosaldeko, Oiartzualdeko eta Donostia-Beterriko Villabona, Pasaia eta Hernani.

<sup>22</sup> Banku Mundiala <http://datos.bancomundial.org/pais/espana>

Beraz Gipuzkoako eskualde bakoitzeko gutxienez udaletxe bat aztertuko dugu, Debabarreneko eskualdekoa izan ezik.

**6.2. taula: Udaletxeen biztanleriaren arabera sailkapena.**

Biztanle kopurua	Kopurua	Udaletxeak
<1.000	2	Altzaga
		Gaintza
1.001-5.000	3	Ataun
		Elgeta
		Zaldibia
5.001-10.000	4	Aretxabaleta
		Urretxu
		Villabona
		Zumaia
10.001-20.000	3	Azkoitia
		Hernani
		Pasaia

Iturria: www.ine.es

Kokapen geografiko anitza osatzen dutela ikusiaz, udaletxeko biztanle kopuruen arabera bereiztea ere komenigarria izan daiteke, era honetan udaletxeen ezaugarri orokorrak ezagutzeko. Herri-kontuen Euskal Epaitegiak beraien analisietarako erabiltzen dituzten estratoetan oinarrituz, lau taldetan bereiz ditzakegu. 1.000 biztanle arteko herri oso txikiak. 1.001 eta 5.000 arteko herri txikiak. 5.001 eta 10.000 biztanleko herri ertainak eta azkenik 10.001 eta 20.000 biztanleko herri handiak. Kasu honetan ere, biztanleriari dagokionean, ezaugarri ezberdineko udaletxeekin jardungo dugula ikus dezakegu. Oro har, udaletxeen biztanleri kopurua ertaintzat jo genitzake, gehiengoak 5.000 biztanletik gora baititu. Gainera 12 udaletxeren biztanleri kopuruaren batez bestekoa 5.000-10.000 estrato zatian kokatzen da. Beraz, biztanleriari dagokionean, udaletxe tamaina ezberdinekoak direla esan genezake, nahiz biztanleri ertaineko udalerriak azpimarratu daitezkeen.

**6.3. taula: Udaletxeen biztanle kopurua 2008-2012.**

Biztanle kopurua	2008/01/01	2009/01/01	2010/01/01	2011/01/01	2012/01/01
Altzaga	157	161	159	160	162
Aretxabaleta	6.646	6.689	6.700	6.725	6.850
Ataun	1.654	1.671	1.670	1.669	1.680
Azkoitia	11.091	11.266	11.351	11.417	11.492
Elgeta	1.050	1.069	1.079	1.106	1.120
Gaintza	132	132	128	130	121
Hernani	19.229	19.289	19.285	19.296	19.284
Pasaia	15.996	15.990	15.977	15.945	15.885

<b>Urretxu</b>	6.812	6.912	6.957	6.930	6.927
<b>Villabona</b>	5.760	5.783	5.822	5.863	5.872
<b>Zaldibia</b>	1.504	1.525	1.504	1.517	1.522
<b>Zumaia</b>	9.099	9.285	9.337	9.461	9.581
<b>GIPUZKOA</b>	701.056	705.698	707.263	709.607	712.097

Iturria: www.ine.es

Azterturiko urte bakoitzeko udaletxetako biztanle kopuruaren datuen berri izatea ere interesgarria da, honela herri tamainen barneko alderaketak ere burutu ditzakegu. Halaber ondoren aztertuko ditugun adierazle ekonomikoak urtez urte erlatibizatzeke ere baliagarriak izan daitezke.

Azkenik biztanleri dentsitatearen arabera udaletxeak ikuskatzea eta sailkatzea erabaki dugu. Biztanleri dentsitateak, azalera unitate batean bizi diren batez besteko biztanle kopurua da. Horrela izanik biztanleria neurtzeko metodo erlatibo gisa kontsidera dezakegu. Aldagai hau aztertzearen arrazoia biztanleriak herrian duen gutxi gora beherako dispersio maila islatzeko erabiliko dugu. Kontuan izan behar dugu, biztanleria oso sakabanatua dagoen herrietan, udaletxeek eman beharreko oinarrizko zerbitzuen kostua garestitu daitezkeela. Adibidez zaborra jasotzeko orduan, udaletxeak baserriz baserri joanez gero, denbora eta gasolina edo beste motatako baliabide gehiago beharko ditu gertuko puntuetan zabor bilketa burutzean baino. Biztanleri dentsitate adierazleak ez du zuzenean biztanleriaren sakabanatzea aztertzen, azalera handiko eta biztanle gutxiko herri batean posible litzatekeelako hiritar guztiak bata bestearen ondoan bizi eta adierazleak hori ez islatzea. Alabaina, ideia orokor bat lortzeko baliagarri izan daiteke, bereziki herriak solairuzko etxetako hiri lur edo familia bakarreko etxez osaturiko landa lurreko estruktura duen.

**6.4. taula: Udaletxeen dentsitatearen araberako sailkapena**

Biztanle dentsitatea	Kopurua	Udaletxeak
<b>&lt;100 bizt/km<sup>2</sup></b>	5	Altzaga
		Ataun
		Elgeta
		Gaintza
		Zaldibia
<b>101-500 bizt/km<sup>2</sup></b>	4	Aretxabaleta
		Azkoitia
		Hernani
		Villabona
<b>&gt;501 bizt/km<sup>2</sup></b>	3	Pasaia
		Urretxu
		Zumaia

Iturria: www.ine.es eta www.atlasa.net

Biztanleri dentsitatearen sailkapenean, dentsitate gutxiko herriak, biztanlerian herri txiki edo oso txikitzat jo ditugunak izan dira. Bestalde beste herrien sailkapenean desberdintasunak topatu ditugu. Hernani eta Azkoitiako herriak, biztanleri arloan herri populatuaren taldean kokatu ditugunak, dentsitateari dagokionean tarteko taldean kokatu dira. Urretxu eta Zumaiaren kasuan ordea, kontrako kasua betetzen dute, hau da, dentsitate handikoen taldean sailkatzen dira, biztanleri sailkapenean ertaineko taldean kokatu ditugularik.

Ikus dezakegu aztertutako herrien estruktura ezberdina izan dezaketela datuei erreparatuz. Hortaz, kontuan izan beharko dugu datu ekonomikoetan eman daitezkeen berdintasunak edo desberdintasunak, herriaren izaerarekin zer ikusia izan dezaketen. Honela antzeko baldintzak betetzen dituzten herriekin konpara ditzakegu egoera berdinetan dauden jakiteko.

### **5.1 Aurrezki Garbia**

Aukeratutako udal herrien ezaugarri nagusiak sailkatu ondoren, sailkapen ekonomikoan oinarritutako aurrekontuen analisiari hasiera eman diezaiokegu. Aztertuko dugun lehen adierazle ekonomiko-finantzarioa aurrezki garbia izango da. Aurrezki garbiak, sarrera arruntei zama finantzarioa eta gastu arruntak kenduz gero lortuko dugun zenbatekoa izango da. Sarrera arruntetik, kontribuzio berezi, urbanizazio-kuota eta hirigintzako aprobetxamenduaren efektua baztertzen dira. Elementu hauen bazterketa beraien izaeran datza. Mota honetako sarrerak eraikuntzarekin erlazio estua dute eta gaurko egoeran bizi dugun legez, urterokotasun handiko elementua dela ikus dezakegu. Beraz denbora seriearen bilakaera homogeneousatzeko intentzioarekin, sarrera arrunt hauen eragina isolatzea erabakitzen da. Aurrezki garbiak, egin behar dituen inbertsioak finantzatzeko gaitasuna islatzen du, hots, gure ohiko jarduerak sortutako aurrezkiarekin inbertsioa finantzatzeko ahalmena islatzen du. Teoriaren arabera aurrezki garbia positiboa izan behar da beti. Positiboa ez balitz, gastu arrunta kapitaleko sarrerek finantzatzeko lukete, gastu arrunt gisa zama finantzarioaren ordainketa kontuan hartuz. Aurrezki garbia negatiboa izateko beste aukera diruzaintza gerakin aldaketa negatiboa izatea izango litzateke, ekitaldiko ordainketa obligazioa, kobru eskubideak baina gehiago izanik. Aurrezki garbia aztertzearen arrazoia udaletxeek bere ohiko jarduera estaltzeko baliabide nahikoak dituen aztertzea da. Era honetan, urteroko eta beraz oinarritzkoa den udaletxearen aktibitatea aurrera eramateko gai den jakin dezakegu.

$$\sum_1^5 S_i^* - \left[ \sum_1^4 G_i + G_9 \right] \geq 0$$

Udaletxeen datuak aztertzen hasi baino lehen, Gipuzkoan UFFF-ak izan duen bilakaera orokorra aztertuko dugu, izan ere, aurrezki garbian nahiz analisiaren gainontzeko ataletan kontuan hartu beharko baita.

**7.1. taula: UFFF-aren bilakaera orokorra:**

UFFF mila €-tan				
Gipuzkoa	Aurrekontua	Likidazioa	Diferentzia absolutua	Diferentzia erlatiboa
2008	458.747,8	404.432,7	-54.315,1	-%11,84
2009	444.946,3	345.895,5	-99.050,8	-%22,26
2010	395.532,5	392.492,2	-3.040,3	-%0,77
2011	407.466,8	355.951,5	-51.515,3	-%12,64
2012	396.934,4	381.223,8	-15.710,6	-%3,96
2008-2012	2.103.627,8	1.879.995,7	-223.632,1	-%10,63

Iturria: www.udalgida.net

Goiko taulan, aztertutako urte bakoitzerako UFFF-aren aurreikuspenak, likidazioak eta bien arteko diferentziak azaltzen dira mila eurotan. Aurreikuspenak Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko urteko urrian burutzen ditu esperotako diru bilketan oinarriturik. Beraz, 2008ko aurreikuspenak 2007ko urrian burutu ziren adibidez. Aurreikuspenetan oinarriturik UFFF-aren banaketa burutzen da ekitaldi bukaeran aurreikusitako diferentzia negatiboak baleude, udaletxe bakoitzak jasotako diru gehigarria bueltatu beharko luke. Datuei erreparatuz 2008an 54.315,1 mila euroko desbiderapen negatiboa izan zuten. Diru itzulketa hori bueltatzeko kantitate garrantzitsua izanik urteetan zehar banatzea erabaki zen. Honela 2008ko UFFF-aren likidazioaren itzulketa 2009 eta 2010. urteetan gauzatzea erabaki zen.

2009. urtean likidazioa eta aurreikuspenen arteko aldea ia bikoiztu egin zen itzuli beharreko zenbatekoa 99.050,8 mila euro izateraino. Udaletxeek urte hasieran UFFF-aren bitartez jasotakoaren %22,26a bueltatzea suposatzen zuten. Hori horrela izanik diruaren itzulketa zatikatzea erabaki zen, kasu honetan 2011, 2012 eta 2013 urteen artean bueltatu behar zutelarik. Beraz 2008 eta 2009ko diferentziak bueltatzeko udaletxeek hurrengo bost ekitaldiak konprometitu zituzten, 2014ko ekitaldiraino hain zuzen ere.

2010. urtean, aurreikuspenak 49.413,8 mila eurotan murriztearekin eta sarreren hazkuntzekin batera, aurreikusitako eta likidatutako UFFF-a ia bat etorri ziren, arazorik sortu gabe. Hurrengo ekitaldian ordea ez zen horrelakorik gertatu, izan ere 2008an sorturiko diferentzia antzeko izan baitzen, %12,64ko desbideratze negatiboa. Horretaz gain, UFFF-aren bitartez eskuraturiko finantzazioa %9,3an murriztu zen. Kasu honetan ez zen itzulketaren zatiketarik adostu eta udaletxeek bueltatu beharreko zenbatekoa 2011. ekitaldian burutu behar izan zuten. Horren arrazoia jada 2009ko diferentzia negatibo itzultzeko oraindik bi ekitaldi gehiago behar izatea izan zitekeen.

Azkenik 2012an UFFF-aren zuzkidura handitu arren, udaletxeei zati bat itzultzea egokitu zitzaion. Kasu honetan 15.710,6 mila euro bideratu behar zituzten udaletxeek Gipuzkoako Foru Aldundiari. Zenbateko hori itzultzeko, identifikatu ditugun hamabi udaletxeak, zorpetu egin behar izan ziren. Hortaz bilakaera orokorra azertuaz, krisian batez beste %10,63ko itzulketa burutu behar izan dute udaletxeek urtero. Itzulketa



garrantzitsuena 2009ko izan da, 2008 eta 2011ko gutxietsi gabe. Horretaz gain, lehen bi urteen itzulketak 2013an amaituko direla ere azpimarratzekoa litzateke. UFFF-aren bilakaera ikusirik, aukeratutako hamabi udaletxeen aurrezki garbia izango dugu aztergai.

## **7.2. taula: Aurrezki garbiaren balio absolutuak.**

<b>AURREZKI GARBIA</b>						
	<b>Udaletxea</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>
<b>1</b>	Altzaga	67.300	13.566	44.030	-28.047	25.157
<b>2</b>	Aretxabaleta	1.662.370	-598.834	558.039	-5.674	952.090
<b>3</b>	Ataun	343.089	240.706	245.712	135.398	266.348
<b>4</b>	Azkoitia	604.668	-512.412	255.087	111.166	591.877
<b>5</b>	Elgeta	-55.555	-96.230	127.624	230.718	-
<b>6</b>	Gaintza	391	-45.917	15.567	-4.558	-
<b>7</b>	Hernani	3.397.475	160.193	1.788.880	1.665.583	-
<b>8</b>	Pasaia	391.179	-2.245.477	2.085.342	-1.023.220	876.739
<b>9</b>	Urretxu	810.779	111.231	-130.081	49.611	537.844
<b>10</b>	Villabona	687.410	-81.355	974.234	122.343	582.770
<b>11</b>	Zaldibia	262.256	166.418	70.054	63.779	-
<b>12</b>	Zumaia	2.104.356	234.247	714.898	1.064.622	246.357
	GIPUZKOA	809.362	389	835.861	295.806	-
	12BAT	856.310	-221.155	562.449	198.477	500.190*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Datu taulan udaletxeek izan duten aurrezki garbia erakusten dute. Hortaz gain Gipuzkoako udaletxeek eta guk aztertzen ditugun 12 udaletxeen batez besteko aurrezki garbia ere ditugu konparagarri. Azpimarratzekoa den lehen puntua, aurrezki garbien balio negatiboak dira, bereziki 2009. urtean non 12 udaletxetik erdiak aurrezki negatiboa izan zuten. 2009. urtea, krisi ekonomikoa baieztatu zuen urte gisa zehaztu genezake, honek ez-ohizko egoerak planteatuz. Egoera honen berezitasuna argitzeko, 2001etik 2008rarte Gipuzkoa osoan aurrezki garbi negatiboa eman zuten udaletxeak gehienez 7 izan ziren eta beti zenbateko oso txikiekin. 2009. urtean 36 izan ziren ekitaldia aurrezki garbi negatiboarekin itxi zuten udaletxeak, hau da, Gipuzkoako udaletxeen %40ak.

2009. urtea analisi guztian gogoan hartuko dugun urtea izango da, hau, ardatz puntu baliagarri gisa jardun dazakelarrik. 2008. urtetik hurrengo urtera aurrezki garbiak izan zuen bilakaera ere nabarmendu beharra dago. Aurrezki garbiak zenbateko negatibora egin duten nahiz positiboan mantendu duten udaletxeek murrizketa garrantzitsua izan dute. Hernaniko udaletxea, biztanleriari dagokionean herri handitzat jo genezakeen, adibide gisa hartuaz, 2008an 3.397.475€ko baliotik 160.193€tako baliora murriztu da. Murrizketaren ondorioa, udaletxeek bere ohiko jardura

finantzatzeko, sarrera arruntekin nahikoa ez duela esan nahi du. Honek kapitaleko finantzazioaren beharra edo diruzaintza gerakina erabiltzera behartzen du. Gainera udaletxeek bere jarduera arrunta estali ezin badute, ez dute inbertsioa finantzatzeko ahalmenik izango, emaniko transferentziez menpeko izanik.

Aztertzen ari garen urtean emandako murrizketaren eragileak, gastuaren hazkuntza edo eta sarreraren murrizketa izan liteke, baita bien konbinaketa ere. Hala ere 2009. urtea krisia kontsolidatu zen urte gisa azpimarratzen ari garenez, hasierako aurrekontuen eta aurrekontu likidatuaren arteko diferentziak alderatzea interesgarria izan daiteke. Konparaketa honek, krisi ekonomikoa aurreikusteko ezintasun edo gutxienez zailtasunean oinarritzen da. Izan ere, urte hasieran egindako aurrekontuetan ekonomiaren nondik norakoak oso gogorak izango zirela kontuan hartzen ez baziren, diferentzia handia egongo litzateke aurrekontu likidatuak islatuko zutenarekin. Beraz, hasierako aurrekontuak onartu ziren udaletxeetan sarrera arrunten eta zama finantzarioaren gastuaren arteko alderaketa burutuko dugu. Halaber sarrera arruntetan UFFF-aren likidazioak izandako eragina ere aztertuko dugu.

**7.3. taula: 2009. urteko aurreikuspenen eta UFFF-aren diferentzia**

	Hasierako eta likidatutako aurrekontuen artean	2009					
		Sarrera arrunten aurreikuspen diferentzia		UFFF-aren likidazio diferentzia		Gastu zama finantzarioaren aurreikuspen diferentzia	
		Udaletxeak	Absolutua	Erlatiboa	Absolutua	Erlatiboa	Absolutua
1	Altzaga	-42.656	%19,27	-20.226,11	-%14,4	8.909	%36,06
2	Aretxabaleta	-1.084.695	%15,62	-494.736,60	-%15,6	175.364	%58,86
3	Ataun	-37.304	%2,49	-120.671,31	-%15,7	57.694	%95,12
4	Azkoitia	-770.109	%6,58	-823.909,60	-%15,7	217.683	%16,68
5	Elgeta	-60.995	%4,19	-461.498,26	-%16,5	18.281	%12,15
6	Gaintza	-34.305	%20,07	-75.893,20	-%14,2	9.845	%40,44
7	Hernani	-2.237.143	%11,06	-17.952,14	-%13,8	-212.082	%33,21
8	Pasaia	-	-	-1.521.282,61	-%16,4	-	-
9	Urretxu	-745.432	%10,63	-1.406.774,19	-%18,0	-37.921	%2,11
10	Villabona	-658.243	%12,92	-588.896,59	-%18,1	47.191	%41,79
11	Zaldibia	-83.526	%5,47	-111.480,65	-%15,9	3.314	%4,96
12	Zumaia	-873.176	%9,02	-677.378,00	-%15,5	3.314	%4,96
	12 BAT	-6.627.584		-6.320.699		291.592	
	12 BAT batez beste	-602.508	%10,67	-574.609	- %15,82	26.508	%25,06

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

Sarrera arruntetan hasierako aurrekontuetan eginiko estimazioak, diferentzia nabaria izan zuten aurrekontu likidatuekiko. Azterturiko udaletxe orok gainestimatu zituzten bere ohiko jardueratik lortuko zituzten sarrerak. Batez beste, 12 udaletxe hauen artean, bere sarrera arrunt likidatuen %10,67ko sarrera txikiagoak izan zituzten. Aurrezki garbiaren oinarritzko osagaia, sarrera arruntak izanik, emaitza negatiboaren ondorioa eragile nagusienetako gisa kontsidera dezakegu. Sarrerren murrizketa azaltzeko UFFF-aren likidazioaren diferentzia oso esanguratsua da. Pasaiaren datuak kontuan hartu gabe, sarrerren aurreikusitako diferentzia -6.627.584€koa izan zen, UFFF-ak 12 udaletxeen benetako diferentzia -6.320.699€koa izanik. Hortaz, Sarrera arrunten diferentzia sortzearen elementu nagusia UFFF-aren ondorioa izan zela ondoriozta dezakegu, beste elementuak baztertu gabe. Udaletxe batek bere ohiko jarduerarekin espero baino gutxiagoko sarrerak baditu, kapitaleko sarrerren finantzazioa handitu dezake. Horrek zama finantzarioaren gastuak sortuko lituzke. Mota honetako gastuek hasierako aurrekontuekin izandako diferentziak garrantzitsuak izan dira ere. Orokorrean izaera honetako esperotako gastuen diferentziak handitu dira, Hernani eta Urretxuko udalerritan izan ezik. Batez beste hasierako aurrekontuetatik %25,06ko diferentzia positiboa izan dute, hots, batez beste espero baino 26.508€ gehigarri gastatu zituzten.

Beraz ekitaldian emaniko egoerak negatiboki eragin zien udaletxeko aurrezki garbiari dagokionean. Sarrera arruntetan espero baino txikiagoak izan ziren. Gainera 2009ko hasierako aurreikuspenak jada 2008koen azpitik edo pare zeuden udaletxe gehienetan, beraz ardurazko murrizketa bat eman zela ondoriozta dezakegu. Horretaz gain zama finantzarioaren gastua ere hazkuntza garrantzitsua jasan du, bai termino absolutuetan bai esperotakoarekiko diferentziarekiko. Hortaz, 2009an aurrezki garbiaren murrizketa eta balore negatiboen eragileak azaldu ditugu.

Aurrezki garbiaren eboluzioaren azterketarekin jarraituaz, 2010. urtean egoera hobetu zen. Bere ohiko jarduerak, inbertsioetarako soberakina sortzeko gaitasuna izan zuten. Aldaketa honen arrazoi nagusia sarrera arrunten hazkuntzan eman zen, eta bereziki sarrerren IV. kapituluari dagozkionak, transferentzia arruntak. Sarrera mota honen osagai nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiak udaletxeei UFFF-aren bitartez eginiko transferentziak dira. Hori dela eta 2009 eta 2010ean fondoaren bilakaera erlazonaturik egon liteke. UFFF-ak Gipuzkoako 88 udaletxeei bideratutako totala %11,87an handitu zen 2009tik 2010era, 12 udaletxeen taldearen ia berdina, %11,96ean kokatu delarik. Udaletxeen artean ere antzeko proportzioko hazkuntza dute, UFFF-ren oinarri biztanleria izanik, desbideraziorako tarte gutxi egon ohi baita. UFFF-a udaletxeen sarrera nagusietakoa dela esan dugu aurreko ataletan, beraz sarrerren hazkuntza garrantzitsua suposatzen du, aurrezki garbiaren hazkundearen arrazoi nagusia dela frogatuz.

**7.4. taula: 2009-2010ren arteko UFFF-aren likidazioaren aldaketa**

<b>UFFF-aren aldaketa 2009-2010 likidazioan</b>		
<b>Udaletxeak</b>	<b>Aldaketa Absolutua</b>	<b>Aldaketa Erlatiboa</b>
<b>ALTZAGA</b>	27.639,27	%16,47
<b>ARETXABALETA</b>	474.797,20	%13,03
<b>ATAUN</b>	125.712,14	%14,03
<b>AZKOITIA</b>	816.925,45	%13,47
<b>BILLABONA</b>	351.423,04	%11,16
<b>ELGETA</b>	65.047,63	%10,88
<b>GAINTZA</b>	23.976,26	%15,52
<b>HERNANI</b>	1.208.998,83	%11,55
<b>PASAIA</b>	964.952,73	%10,96
<b>URRETXU</b>	409.143,78	%11,17
<b>ZALDIBIA</b>	108.866,77	%13,46
<b>ZUMAIA</b>	609.232,94	%12,26
<b>12 BAT</b>	5.186.716,04	%11,96

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

Gipuzkoaren aurrezki garbiaren batez besteko zenbatekoak, 2008. urtekoetara izatera pasa ziren. Hala ere, lehenago ikusi dugun legez, aukeratutako udaletxeak ezaugarri ezberdineko udal herriak dira, Gipuzkoa osatzen duten modukoa. Hori dela eta aurrezki garbiaren datuak konparagarri egin behar ditugu amankomunean eman diezazkigukeen aldagai berri bat emanez. Ondorioz, biztanleriaren menpean jarriko dugu, era honetan Gipuzkoako batez besteko eta aukeratutako udalerriak beraien artean alderatu dezakegu. Aldagaia biztanleriaren gain erlatibizatzeke, aztertuko denbora tartean herri bakoitzeko biztanleriaren batez bestekoan oinarritu gara.

**7.5. taula: Aurrezki garbia biztanleko**

<b>AURREZKI GARBIA/ Biztanleria</b>						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
<b>1</b>	Altzaga	421,94	85,05	276,05	-175,84	157,72
<b>2</b>	Aretxabaleta	246,35	-88,74	82,70	-0,84	137,09
<b>3</b>	Ataun	205,81	144,39	147,40	81,22	159,78
<b>4</b>	Azkoitia	53,55	-45,38	22,59	9,85	52,42
<b>5</b>	Elgeta	-51,20	-88,69	117,63	212,64	-
<b>6</b>	Gaintza	3,09	-362,98	123,06	-36,03	-
<b>7</b>	Hernani	176,43	8,32	92,90	86,49	-
<b>8</b>	Pasaia	24,54	-140,87	130,82	-64,19	55,00
<b>9</b>	Urretxu	118,03	16,19	-18,94	7,22	78,29
<b>10</b>	Villabona	118,19	-13,99	167,51	21,04	100,20
<b>11</b>	Zaldibia	173,34	109,99	46,30	42,15	-
<b>12</b>	Zumaia	225,31	25,08	76,54	113,99	26,38
	GIPUZKOA	100,80	0,05	104,10	36,84	-
	12BAT	142,95	-29,30	105,38	24,81	89,12*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Aurrezki garbiaren balio erlatiboa erabiliz 2010eko 12 udaletxeren batez bestekoa, Gipuzkoarenaren gainetik kokatzera pasa zen. Hala ere udal herrien artean diferentzia nabariak eman ziren. Horren adibide dira Altzaga eta Urretxuren arteko aldeak 276,05eko eta -18,94ko balioekin.

2011. urtean bere jarduerak gastu orokorrak estaltzeko adina izaten jarraitu zuten udaletxeen batez bestekoari so eginez. Hala ere, inbertsioetara edo beste jardueretara bideratu zezakeen soberakina murriztu zen. Gipuzkoak, 12 udaletxeren taldearen bilakaera berdina izan zuen, batez besteko aurrezki garbiaren neurriak bi herenetan murriztuz. Aurrezki garbi negatiboa edo neutrotik hurbil dauden udaletxeek, sarrera arruntetan murrizketa jasan dutenak osatzen dute oro har. Horretaz gain, maileguen amortizazioengatiko gastuaren hazkuntzak ere aurrezki gordinaren murrizketaren ondorio dira. Altzaga, Aretxabaleta edo Pasaia dira horren adibide, biztanleko zuten aurrezki garbiaren neurria %100ean baino gehiago murriztu baitzaie. Altzaga bezalako herri batean horrelako aldaketak jasatea normalagoa izan daiteke, biztanle gutxiko herria izanik, aldaketa absolutuek zuzenean eragiten diote. Honela bereziki sarreretan 47.801€ko sarreraren murrizketa izan da biztanleko aurrezki garbiaren eboluzioa baldintzatu duen aldagai nagusia. Era berean, ezin dugu gastu arruntaren %10,87aren hazkuntza ahaztu. Aretxabaleta eta Pasaiaren kasuetan arrazoi nagusiak ezberdinak izan dira. 7.5. taulan so eginez gero, sarrera arruntan, gastu arruntan eta finantza pasiboen gastuek izan duten eboluzioa ikus ditzakegu. Gastu arruntak gutxi gora behera mantendu dira, horien barruan, zorraren interesengatik ordaindutako zenbatekoak barneratzen direlarik. Sarrera arruntek ere murrizketa garrantzitsua jasan dute bi udaletxeetan, bereziki Pasaiaren kasuan 2.611.316€ gutxiagoko sarreraren izan dituelarik, zeharkako zergen murrizketen ondorioz bereziki. Alabaina, aurrezki garbia negatibo egitearen eragile nagusiak finantza pasiboen amortizazioengatiko gastuen hazkuntza

delako kontsideratu dezakegu. 2010 eta 2011 urteen artean nagusiki maileguren amortizazio gastua 56.491€tan handitu zen Aretxabaletako udalean eta 472.638€tan Pasaiaren kasuan. Mota honetako gastua zor biziarekin eta bere eboluzioarekin zuzenki erlazionatuta dago, mailegurik gabe ezin baitugu amortizazio gasturik izan. Zor bizia aztertzerakoan bi udaletxeren kasua sakonago aztertuko dugu bi kontzeptuak elkarrekin osatuz.

**7.6. taula: Aretxabaleta eta Pasaiaren sarrera eta gastuen aldaketa**

2010-2011	Aretxabaleta	Pasaia
Sarrera arrunten aldaketa	-%7,97	-%16,27
Gastu arrunten aldaketa	%0,22	%1,81
IX. kapituluko gastuaren aldaketa	%18,67	%35,53

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

2012an aurrezki garbia batez beste hazi egin da aukeraturiko eta datuak publikaturiko udaletxeen artean. Kasu honetan ez dugu Gipuzkoako batez besteko aurrezkiarekin konparatzerik, udaletxe guztiek ez baitituzte aurrekontu likidatuak publikatu. Zumaia izan ezik, gainontzeko udaletxeek beraien aurrezki garbia handitu dute. Esanguratsua da Aretxabaletak eta Altzagak aurreko ekitalditik izan duten aldaketa, aurrezki garbi negatibotik, aukeratutako udaletxeen batez bestekoaren gainetik kokatu baitira. Orokorrean sarreraren hazkuntzak, UFFF-aren likidazioak lagunduta, eragin du adierazlea haztea. Hala ere oraindik 2008ko zenbatekoengandik tartea izaten jarraitu du.

Aurrezki garbiaren urtez urteko eboluzioa ikusirik, aldagai honen arabera joera orokorra argitu daiteke. 2009. urtea esan dugu krisia kontsolidatu zen urtea izan zela. Gertaera hau kontuan izanik, eginiko aurreikuspenak ez ziren errealitatean gertatu zenarekin bat etorri eta horrek diferentzia nabariak sortu zituzten. Garrantzitsuenak sarrera arrunten murrizketa izan zen, urte horretako aurrezki garbia asko kaltetuz. Gertaera ondo adierazten duen datuetako bat, Gipuzkoako aurrezki garbiaren batez besteko neurria ia zeroan kokatzera eraman zuela izan zen, aztertutako 12 udaletxeena oraindik larriagoa izanik. Hauek beraien ohiko jarduera estaltzeko nahikoa baliabide ez izatera pasa ziren batez beste. 2010ean egoerak hobera egin zuen, UFFF-aren hazkundeak eragindako sarrera arrunten hazkuntzan oinarriturik. Aldaketa honek aurrezki garbiaren baloreak 2008ko mailara parekatzea lortu zuen. Hurrengo urteak aldiz ez zuen zentzu positiboarekin jarraitu. 2011an aztertutako udaletxeren herena jada, ez ziren bere ohiko jarduerak sortzen zituen obligazioak estaltzeko gai. Kasu honetan, sarrera arrunten murrizketak alde batera utzi gabe, maileguren amortizazio gastuak nabaritzen hasi ziren. Zenbait kasutan izaera honetako gastuak %20etik gora egin zuten. Azkenik 2012an, aztertutako udaletxeen taldean, udaletxe guztiek bere jarduerari aurre egitea lortu zuten. Honek batez besteko aurrezki garbia haztea ondorioztatu zuen.

$$\sum_{i=1}^5 S_i^* - [G_1 + G_2 + G_4] \geq 0$$

Aurrezki garbiaren bilakaera orokorra ikusi arren, finantza eragiketak sortzen dituzten gastuen eragina isolatuko ditugu, era honetan aurrezki garbiaren balio negatiboak jardura berak edo interesak eta maileguen amortizazioek sortu duten jakin ahal izango dugu. Ondorioz, aurrezki garbiari III. eta IX. gastuen kapituluken zenbatekoak kenduko dizkiogu.

**7.7. taula: Eragiketa finantzarioko gastuak bazterturiko aurrezki garbia.**

AURREZKI GARBIA ERAGIKETA FINANTZARIOAK ISOLATURIK						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	81.947	38.275	68.340	250	52.252
2	Aretxabaleta	1.732.120	-300.915	804.224	311.315	2.248.189
3	Ataun	350.742	301.359	310.306	242.674	351.369
4	Azkoitia	1.633.356	792.587	2.674.405	1.707.313	2.536.820
5	Elgeta	53.105	54.216	300.257	434.556	-
6	Gaintza	16.369	-21.573	39.335	22.413	-
7	Hernani	4.116.938	798.742	2.403.430	3.174.440	-
8	Pasaia	1.163.402	-1.289.998	3.000.462	379.528	2.066.436
9	Urretxu	810.779	1.908.603	149.979	442.761	1.063.758
10	Villabona	1.162.449	312.833	1.372.656	497.384	923.975
11	Zaldibia	347.802	279.354	181.197	187.807	-
12	Zumaia	2.201.967	301.061	725.571	1.064.622	249.498
	12BAT aurrezki garbi ez-finantzarioa	1.139.248	264.545	1.002.513	705.422	1.186.537*
	12BAT aurrezki garbia	856.310	-221.155	562.449	198.477	500.190*
	<b>Diferentzia [G3+G9]</b>	<b>282.938</b>	<b>485.700</b>	<b>440.064</b>	<b>506.945</b>	<b>686.347</b>

Iturria: www.udalgida.net

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Bilakaera orokorra aurretik azaldu dugunez, eragiketa finantzarioek sortutako eraginean zentratuko gara, “**Diferentzia**” deituriko atalean bereziki. Bertan ikus dezakegu azterturiko epealdian %142,57an hazi da aurrezki garbian duen eragina. 2009. urtean ohiko jardura estaltzeko nahikoa baliabide ez edukitzearen arrazoia izateraino izan da. Horren adibide Azkoitia, Elgeta eta Villabonako udalak dira, beren ohiko jardura ez finantzarioari aurre egiteko gai izan arren, ekitaldia, aurrezki garbi negatiboarekin itxi dute.


2010eko ekitaldian, interes eta maileguen amortizazio gastuen eragina antzeko mantendu arren, ohiko jardura eskusiboan oinarrituriko aurrezkiko hazkuntzak, egoera hobetu zuen. Urretxuko udala izan zen finantza eragiketak aurrezki garbi negatiboak izatera eraman zuten udaletxe bakarra.

2011. urtean berriz ere egoera okerrera egin zuen. Alabaina, ekitaldi honetan azterturiko udaletxe guztiak, beraien jardura eskusiboari aurre egiteko gai izan ziren beraien ohiko sarrerekin. Finantza eragiketek eragina dutenez Altzaga, Aretxabaleta, Gaintza eta Pasaia udalak, aurrezki garbi negatiboa izatea ondorioztatu zuten.

Azkenik 2012ko ekitaldian argitaratu diren datuen arabera, finantza eragiketen eragina %35,98an handitu da aurreko ekitalditik. Hala ere, udaletxeek hazkuntza honi aurre egin ahal izan diote, beraien ohiko jarduera estaltzeko nahiko baliabide sortu baitituzte.

Finantza eragiketek aurrezki garbian sortzen duten karga argiago islatzeko Azkoitiko udalaren datuak aurkeztuko ditugu.

**2.Grafikoa: Azkoitiko aurrezki garbian finantza eragiketen eragina**



Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

Azkoitiko udaletxeak finantza eragiketen baldintzapen handia du aurrezki garbiari dagokionean. 2009an izaera horretako gastuak, bere aurrezki garbi ez finantzarioa baino handiagoak izan ziren, aurrezki garbia negatiboa izateraino. Halaber 2010 eta 2011 ekitaldietan interes eta amortizazio gastuak aurrezki ez finantzariotik oso hurbil kokatu dira, azken hau hazi izanagatik ere. 2012an aurrezki garbia 2008ko zenbatekotara hazi da, baina estrukturari dagokionean oso ezberdina dela ikus dezakegu. Finantza eragiketen gastuak ia bi miloi eurokoak izan ziren 2012an 2008an miloi batera doi doi iristen zirelarik.

Beraz aurrezki garbiaren bilakaera sarreren gora beherez gain, finantza eragiketak zuzeneko eragina izan dutela ikus daiteke. Jarduera eskusibotik lortutako aurrezki krisialdian hazi egin behar izan da zenbait udaletxetan, finantza eragiketen hazkuntzari aurre egiteko

**5.2 Zor Finantzarioa**

Aurrezki garbia aztertzen geunden bitartean, zor biziak zer esan garrantzitsua izan zezakeela nabaritu dugu. Hori dela eta, azterketa zentratuko dugun hurrengo puntua zor biziaren bilakaeran izango da. Zorrak izan duen bilakaera ikuspegi ezberdin askotatik aztertu dezakegu. Balio absolutuetan aztertzea baino, egokiago iruditzen zaigu biztanleriaren menpe erlatibizatzea, lehen ikuspegi orokor bat izateko.



**8.1. taula: Biztanleko zor biziaren balio erlatiboak.**

<b>Zor bizia / Biztanleko</b>						
	<b>Udaletxea</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>
<b>1</b>	Altzaga	330,4	250,8	168,0	84,5	0,0
<b>2</b>	Aretxabaleta	7,6	1.224,9	1.224,9	1.224,9	1.102,4
<b>3</b>	Ataun	0,0	0,0	0,0	503,9	478,9
<b>4</b>	Azkoitia	498,0	1.137,8	980,6	908,5	799,0
<b>5</b>	Elgeta	1.096,4	1.035,4	947,4	1.083,5	958,7
<b>6</b>	Gaintza	855,3	761,7	661,4	561,6	460,5
<b>7</b>	Hernani	226,2	195,4	165,6	136,0	106,5
<b>8</b>	Pasaia	394,1	343,4	352,6	317,3	274,4
<b>9</b>	Urretxu	0,0	218,4	509,5	483,4	427,4
<b>10</b>	Villabona	598,0	540,7	575,4	526,3	481,3
<b>11</b>	Zaldibia	197,2	162,6	126,6	90,5	53,9
<b>12</b>	Zumaia	8,2	1,1	0,0	182,0	479,8
	GIPUZKOA	626,2	659,7	682,8	658,0	610,5
	12BAT bb	350,9	489,3	476,0	508,5	468,6

Iturria: www.udalgida.net

2008. urtean Gipuzkoako udaletxeen biztanleko batez besteko zorra 626,2€koa zen. 12 udaletxeen zorpetze maila biztanleko ia Gipuzkoarenaren erdian kokatu zen. Hala ere, Elgeta eta Gaintzako udaletxeak, Gipuzkoako batez besteko mailaren gainetik kokatu ziren, biztanleko 1096,4€ko eta 855,3€ko zorra onartuz hurrenez hurren. Bestalde aztertutako udaletxeen taldearen herenak ia ez zuten zor bizirik onarturik, Zumaia, Aretxabaleta eta zor gabeko Ataun eta Urretxuko udalak hain zuzen.

Hurrengo urtean, 12 udaletxeren biztanleko batez besteko zorra 2008an zuenaren heren batean handitu zen, Gipuzkoakoaren batez bestekoa %5eko hazkuntza izan zuelarik. Aurrezki garbiaren datuak gogoraraziz, 2009. urtean aztertutako taldearen erdiak aurrezki garbi negatibo izan zuten. Beraien sarrera arruntek, ohiko gastuei aurre egiten ez ziotenez, sarrera gehigarriak zorpetze bidez lortu zituztela antzeman dezakegu. Baldintza hau argien betetzen duten udaletxeak, Aretxabaleta eta Azkoitikoak dira. 2009. urtean aurrezki garbi negatiboa eta beraien biztanleko zorpetzea pertsonako mila eurotik gorakoa izatera pasa ziren.

**8.2. taula: Aretxabaleta eta Azkoitiaren 2009ko aurrezki garbi eta zorpetze aldaketa.**

<b>2009</b>		
<b>Udaletxeak</b>	<b>Aurrezki garbia</b>	<b>Zorpetze aldaketa garbia</b>
<b>Aretxabaleta</b>	<b>-598.834</b>	8.214.595
<b>Azkoitia</b>	<b>-512.412</b>	7.224.334

Iturria:udalgida.net

2010. urtean zorpetze maila ez zen hazi aztertutako udaletxeen artean Gipuzkoako batez bestekoak kontrakoa egin arren. Urte honetan ere aurrezki garbiaren eboluzioarekin bat dator 12 udaletxeen taldearen eboluzioa, hots, aurrezki gabi positiboarekin, zor bizia ez dela handitzen. Zor biziak hazkuntza esanguratsua izan duen udaletxe bakarra Urretxu izan zen. Bere zor bizia bi miloi eurotan hazi zuen urtebeteko epean. Kasu honetan ere aurrezki garbiaren bilakaerak, ondorio hau azaltzen lagun diezaguke, izan ere, 12 udaletxeren artean aurrezki garbi negatiboa izan zuen bakarra Urretxuko udala izan baitzen.

Azken bi urteak aintzat harturik, zorpetze maila eta aurrezki garbia gertuko portaera dutela antzematen da. Egia esan, bilakaera komuna izatea logikoa da. Aurrezki gabia positiboa edo handitzeko arrazoi nagusia, sarrera arrunten aldaketa positiboa izan dela aztertu dugu. Bereziki UFFF-ak jasandako aldaketek, sarrera arrunten bilakaeraren zati handi bat azaltzen du. Era honetan, udaletxeak bere ohiko gastuak estaltzeko baliabideak baditu, finantzazio ahalmena izango du beste izaerako eragiketak burutzeko. Bestalde zorpetzeko erabakia hartzeko supostu nagusienetako bat, sarrerren finantzazio ahalmen falta izan daiteke. Udaletxeak ekitaldirako diru nahikoa ez badu, kanpo finantzazioaz finantzatzea hartu ohi da. Beraz, diru nahikoa duen finkatzen duen aldagaia, aurrezki garbia kontsidera genezake, era honetan zor bizia eta aurrezki garbia erlasionatu. Ezin dugu ahaztu zeharkako edo era zuzenago batean sarrerren garrantzia, zor bizian eta aurrezki garbian eragiten duen elementua baita.

2011. urtean, zorpetze maila hazi egin zen aztertutako udaletxeen artean, 2009ko maila gaindituaz. Hala ere urte batetik bestera emandako aldaketei dagokionean, aldaketa lausoagoa izan zen 2008-2009 urtekoekin alderatuta. Alabaina Gipuzkoako batez bestekoak ez zuen gora egin, kontrakoa baizik, nahiz eta aldaketa ez oso nabaria izan, %3,7 inguruko murrizketa jasan zuen. Biztanleko zor biziak, aurrezki garbiarekin duen erlazioa azertuaz, 12 udaletxeen batez bestekoekin bat dator urte honetan ere. Hala ere eboluzio hau engainagarria izan daiteke, zorrik ez zuten udaletxeek zor berriak onartzean.

**8.3. taula: Zor biziaren balio absolutuak.**

<b>ZOR BIZIA</b>						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	52.698	39.996	26.789	13.475	0
2	Aretxabaleta	51.050	8.265.644	8.265.644	8.265.655	7.439.090
3	Ataun	0	0	0	840.000	798.281
4	Azkoitia	5.623.387	12.847.722	11.072.056	10.257.831	9.021.771
5	Elgeta	1.189.576	1.123.368	1.027.888	1.175.623	1.040.221
6	Gaintza	108.196	96.350	83.661	71.039	58.255
7	Hernani	4.354.875	3.762.585	3.189.153	2.619.794	2.049.907
8	Pasaia	6.281.712	5.473.706	5.621.027	5.057.379	4.373.592
9	Urretxu	0	1.500.000	3.500.000	3.321.038	2.936.151
10	Villabona	3.478.032	3.144.984	3.346.817	3.060.686	2.799.069
11	Zaldibia	298.319	246.070	191.614	136.995	81.569
12	Zumaia	76.274	10.630	0	1.700.000	4.481.000
	GIPUZKOA	442.470.918	466.104.666	482.479.917	464.956.288	431.385.468
	12 BAT	21.514.118	36.511.054	36.324.648	36.519.516	35.078.906

Iturria: www.udalgida.net

Zor biziaren datu absolutuetan argiago ikusten den legez, 12 udaletxeen zor bizi metatua haztearen eragilea, Zumai eta Ataungo udalen zor bizi berrien onarpena da, aurreko urtean zor bizirik onartu ez zutelarik.

Aurrezki garbiaren kontzeptu nagusiak azaltzean, aurrezki garbi negatibo bati aurre egiteko bi soluzio posible planteatu ditugu. Alde batetik kapitaleko sarreraren hazkuntzaren bidezko finantzazio zen, zor biziaren hazkuntza izan daitekeena. Bestea diruzaintza gerakinaren erabilpena. Posible da 2011ean aurrezki garbiaren murrizketari eta zenbait kasutan, aurrezki negatiboari aurre egiteko erabakia, diruzaintza gerakinean kontzentratzea izan zitekeela. Hori dela eta aurrerago diruzaintza gerakinaren azterketa burutuko dugu.

**8.4. taula: Zumaiako udalaren zorpetzearen bilakaera.**

Zor bizia	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Zumaiak	1.099.223	848.498	594.610	337.766	166.895	76.274	10.630	0	1.700.000	4.481.000

Iturria: www.udalgida.net

Azkenik 2012an bai Gipuzkoako zein 12 udaletxeen zor bizia murriztu egin zen, %7,8 eta %4,1ean hurrenez hurren. 12 udaletxeei banan banan so eginez gero, beraien zor bizia murriztu dutela ikus dezakegu, Zumaiaren kasuan izan ezik. Zumaiak bere zor bizia %163,6ean handitu ua, 2.781.000€-tan hain zuzen ere. Aldaketa hau datu interesgarria da ikuspuntu ezberdinetatik jorratuaz. Alde batetik, Zumaiak azken hamar urteetan izan duen zorpetze maila altuena duelako da interesgarri. Gainera 2012an onartutako zor bizia, ia 2003-2011 urteetako zor biziaren berdina da. Hortaz ez ohiko egoera batean dagoela islatzen dute datuek. Egoera hau eragileen bilakaerari dagokionean halaber, azpimarragarria da, izan ere, 2012. Urtean zumaiak aurrezki negatiboa izatera pasa zen. Horretaz gain aurreko urteko aurrezki garbiarekiko

murrizketa nabaria izan zen. Beraz aldaketa honek aurretik aipatutako aurrezki garbi eta zor biziaren erlazioaren teoria indartzen du.

Aurrekontuen kompetentziak atalean, AEFILOn eta ondoren Gipuzkoan 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren bitartez, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen legea eta 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideen bitartez garatzen den legean, zor biziari dagozkion zenbait muga azaltzen dira. Horiek aztertutako denbora epean aplikagarri ez izan arren, baldintza horiek udaletxeek betetzen dituzten aztertuko dugu.

Legeak zor bizia 2013an 2012ko likidazioko sarrera arruntentzen %95aren azpitik kokatzeko helburua ezartzen du eta 2020ean %75aren azpitik kokatzea. Guk osatutako taulan zor bizia, urte berdinen menpeko sarrera arrunt likidatuaren gain jarri dugu, gure helburua iraganeko urteek baldintza betetzen duten jakitea baita eta ez etorkizuneko egoera kontrolatzea.

**8.5. taula: Sarrera arruntekiko zorpetze maila.**<sup>23</sup>

<b>Zor bizia / Sarrera Arruntak</b>						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	%19,7	%18,1	%10,5	%6,5	%0,0
2	Aretxabaleta	%0,7	%119,0	%103,7	%111,9	%93,4
3	Ataun	%0,0	%0,0	%0,0	%62,8	%56,1
4	Azkoitia	%46,0	%109,8	%92,6	%90,4	%75,4
5	Elgeta	%83,9	%77,1	%60,8	%71,2	-
6	Gaintza	%51,5	%56,4	%40,9	%38,8	-
7	Hernani	%19,4	%18,6	%14,2	%11,5	-
8	Pasaia	%35,6	%34,6	%30,1	%31,5	%25,8
9	Urretxu	%0,0	%21,4	%48,1	%44,6	%38,6
10	Villabona	%60,6	%61,7	%56,2	%59,3	%50,3
11	Zaldibia	%20,0	%16,1	%14,3	%10,1	-
12	Zumaia	%0,7	%0,1	%0,0	%16,4	%43,3
	GIPUZKOA	%51,9	%57,3	%55,1	%56,3	-
	12 BAT	%24,3	%44,9	%40,3	%42,8	%56,5*

Iturria: www.udalgida.net

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Goiko taulan, 2008-2012 urte tartean, zor biziak, sarrera arrunt likidatuaren portzentajea erakusten du. 2008an zentratuaz, Gipuzkoako batez bestekoak 2013ko zein 2020ko baldintza beteko luke, %23,1eko marjinarekin. Aztertutako 12 udaletxeak ere batez bestekoari so eginez gero nahiko errez egingo liokete aurre baldintzei. Hala ere Elgetako udalak, 2013ko %95eko baldintza bete arren, %75eko mailaren gainetik kokatuko litzateke.

<sup>23</sup> Datuak ekitaldiko zor bizia eta sarrerak biltzen dituzte: Zor bizia<sub>1</sub> / Sarrera Arrunt likidatuak<sub>1</sub>

Hurrengo urtea izan zen baldintzak ez betetzeari dagokionean urte desegokiena, bereziki sarrera arrunten murrizketek Gipuzkoako nahiz 12 udaletxeen batez besteko maila handitzera eramán zutelarik. Elgetako udaletxea 2020ko helburuaren gainetik kokatuta jarraitzen zuen, baina esanguratsuen, Aretxabaleta eta Azkoitiko udalena izan zen, zor bizia bere horretan aztertu dugunean azpimarratu ditugun bi udaletxeak hain zuzen ere. Bi kasu hauetan zor bizia, urte berdineko sarrera arrunt likidatuen zenbatekoaren gainetik kokatzen zen. Ondorioz, ez litzukete legeak ezartzen zituzten baldintzak betetzen, ez 2013ko ezta 2020koa.

2010eko eta 2011ko etorkizuneko baldintzen betepena zor bizia eta aurrezki garbia aztertutako bilakaera antzekoa izan zuen, hots, 2010ean batez beste indizea hobetu zen eta 2011ean zertxobait gogortu, 2009ko mailaren azpitik kokatuz. Aldaketa nagusia Azkoitiko udalak bi urtetan %95eko 2013ko baldintza betetzen duela da. Aipatu ere 2011ean Elgetako udaletxeak mugako egoerara gerturatuko litzatekeela %75eko baldintzari dagokionean.

2012. urtean sarrera arruntekiko zorpetze maila gutxitu egin zen, datuak eskuratutako udaletxeetan. Zor helburua ez betetzetik gertuen egongo liratekeen udaletxetan zentratuaz, Azkoitiko udala 2020ko helburua betetze mugan kokatuko litzateke. Bereziki bere zor bizia 1.236.060€ko murrizketan zentratu da bilakaera hori, sarrera arruntek ere lagundu duten arren. Aretxabaletako udaletxea bere zorpetzea %93,4raino murriztu du, hurrengo ekitaldiko %95eko muga beteaz. Krisi ekonomikoa hasi zenetik ekitaldi bukaerako zor bizia %10ean murriztu zuen, sarreraren hazkuntzarekin batera, adierazlea hobetzera eramán du. Hala ere 2020ko helburua betetzeko zor bizia murrizten jarraitu beharko du.

#### **8.6. taula: Zorraren helburua betetze mailaren sailkapena.**

Finantzen iraunkortasuna				
ZORRAREN HELBURUA BETETZE MAILA				
UDALEZ UDAL				
	2012	2013	2016	2020
<%75	71	74	77	81
%75-%95	6	4	6	7
>%95	11	10	5	0
<b>Guztira</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>


(1) Hipotesia: sarrera arruntak %5ean handitzen dira urtero eta zorra mantendu egiten da.  
Ondorioa: egoera okerreanean dagoen udalak urtero %2,5ean gutxitu beharko luke zorra.

Iturria Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza departamentua

Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko aurreikuspenen arabera 2013an hamar udaletxeek ezarritako baldintza ez lukete beteko, beti ere sarrera arruntak %5ean handitu eta zorra %2,5ean murriztuaz. Planteamendu hori 2020ko egoerara luzatuaz, zazpi udaletxek, gaindituko lukete zor helburua. Beraz, udaletxe horiek zor bizia, sarrera arrunt likidatuen menpean duten zenbatekoa murrizteko, supostu zorrotzagoa aplikatu beharko dituzte.

Zor bizia aztertzen bukatzeko, aurrezki gordinarekin erlazionatzen saiatu gara. Zorraren bilakaerak, aurrezki garbiarekin erlazioa izan dezakeela ikusi dugu. Hala ere, aurrezki gordinaren menpean jartzea egokiagoa dela deritzogu, honela, ohiko sarrerei definizioz sarrera arruntak kenduta izango dugun emaitza lortuko baitugu. Datu honekin, momentu bateko zor bizia itzultzeko beharko genukeen gutxi gora beherako denbora aurreikusi dezakegu. Gure kasuan, udaletxeek 2012an zuten zor bizirik abiatuko gara, gaur eguneko egoeran oinarritzeko. Aurrezki gordinari dagokionean, ez dugu 2012ko datua soilik kontuan hartu, egoera puntual baten menpe egongo bailitzateke. Seriea logikoagoa izan dadin, aurrezki gordinaren batez besteko datua kalkulatu dugu, 2005-2012ko datuak kontuan harturik. 2005-2007 urteak krisiaren eraginetatik kanpoko eta 2008-2012 urte tartea krisialdi garaikoa.

**3. Grafikoa: Aurrezki gordina zor biziarekiko.**



Grafikoko zutabe urdinak, 12 udaletxeren 2012ko biztanleko zor bizia irudikatzen dute. Zutabe berdeek bai Gipuzkoako eta 12 udaletxeen batez besteko biztanleko zor bizia. Azkenik puntu gorriek, aurrezki gordinaren batez besteko datuetatik lortutako emaitza, bere osotasunean, zorra kitatzera bideratuko balute, zor guztia kitatzeko beharko luketen urte kopurua erakusten du.

Gipuzkoako datuak eta 12 udaletxeen batez besteko datuak alderatuz gero, Gipuzkoako udaletxeek batez beste 3,18 urte beharko lituzkete zor bizi osoa itzultzeko. Aukeratutako udaletxeen batez bestekoa, Gipuzkoarenaren azpitik kokatzen da, proportzionalki, zorpetze maila baxuagoa baitu. Udaletxeetako datuei sakonago so

eginez gero, taldearen batez bestekoaren azpitik kokatzen diren udaletxeek ezaugarri arruntak dituzte, hau da, biztanleko zorpetze maila eta zorra itzultzeko epe teorikoa gertukoak dira. Zorra itzultzeko epea 2,5 urtetik 4raino dauden udaletxeek ordea, ezaugarri ezberdinak dituzte. Multzo honetan dauden udaletxeek, biztanleko zor mailak, ez du zorra itzultzeko epearekin gertuko erlaziorik. Ideia hau azaltzeko, biztanleko zorpetze maila antzeko duten hiru udaletxetan zentratuko gara. Ataungo, Gaintzako eta Villabonako udaletxeek duten biztanleko zorpetzea biztanleko 460-480 euroko tartean kokatzen da, gutxi gora behera. Alabaina, zorra itzultzeko epeek urte beteko diferentzia izatera iristen dira. Ataungo udaletxeak 2,27 urte beharko lituzkete zor guztia itzultzeko baina Gaintzako udalak urtebete gehiago, hau da, 3,29 urte. Beraz, kasu honetan ikus dezakegu, zor gordina baino, garrantzitsuago izan daitekeela bere eragiketak sortzen dituen baliabideak. Aurrezki gordinaren edo ohiko jarduerarekin lortutako soberakinaren garrantzia garbiago ikusten da Pasaiako udalaren kasuan. Pasaiako udalak, biztanleko zorrari dagokionean, Zumaiak duenaren ia erdia du, 274,37 euro biztanleko. Ordea zorra itzultzeko beharko lukeen denbora teorikoa, Zumaiarenaren gainetik kokatzen da, 2,77 urteko balioan kokatuaz. Ezaugarri hau grafikoki, zutabe urdinaren eta puntu gorriaren tartea izango litzateke, hots, geroz eta tarte handiagoa, ohiko jarduerarekin sortutako baliabideak urriagoak izango dira eta beraz, zorra itzultzeko denbora luzeagoa beharko lukete.

Azkenik, zor bizia eta aurrezki gordinaren arteko konparaketari dagokionean, Aretxabaletaren kasua aipatzea komeni dakiguke. Aretxabaleta, aztertutako udaletxeen artean biztanleko zorpetze maila altuena duen udalerrria da. Grafikokan, zorra itzultzeko behar duen denbora irudikatzen duen puntua, zutabearen azpitik kokatzen da. Honen eragina, aurrezki gordin nahiko garrantzitsua izatearen ondorio da, gutxienez ingurukoekin alderatuz gero.

Zorpetzea aldagai garrantzitsua izanik, ikuspegi ezberdinetatik aztertu dugu. Aztertutako hamabiko taldeak batez beste, Gipuzkoako batez besteko zorpetze mailaren azpitik kokatu da bilakaera guztian. Alabaina, Gipuzkoak ez bezala, onartutako zor biziaren zenbatekoa handitu egin du bost urteetan. Gipuzkoaren batez bestekoaren bilakaera bera izan dute 12 udaletxeek, hots, 2011 eta bereziki 2009. urtean zorpetzea handitu eta 2010 eta 2012an zertxobait murriztu. 2009. urteko zorraren hazkuntza, aurrezki gordinaren beherakadarekin erlazonaturik izan dela aztertu dugu. Hurrengo urtekoa, bereziki UFFF-aren aldaketa positiboak eraginda. 2011ean, aurrezki garbiak beherakada nabaria izan arren, zorpetzea ez zen asko handitu eta 2012an egoera nahiko berdintsu mantendu zen. Bestalde legedi berrien ondorioz ezarritako helburuak betetzeko zein egoeretan egongo ziren aztertu dugu. Batez beste udalek bai 2013ko zein 2020ko baldintzak bete dituzte. Hala ere Aretxabaleta eta Azkoitiako udalak bere zorpetzean jasan duten hazkuntzaren ondorioz, mugen gainetik edo inguruan kokatu dira. Azkenik, etorkizunera begira jarri gara 2012ko zorra itzultzeko epe teoriko bat kalkulatu. Bertan aurrezkiak zorpetzean duen garrantzia azpimarratzeko baliatu dugu.

### 5.3 Diruzaintza gerakina.

Diruzaintza gerakina, aztertuko dugun ondorengo adierazlea da. Lanaren puntu ezberdinetan adierazlearen kontzeptu eta ezaugarriak aipatu ditugu. Halaber, aurrekontuen bilakaeran izan zezaken ondorioa. Ondorioz, aldagaia sakonago aztertzea logikoa izango da.

Gogoratu dezagun hitz bitan, diruzaintza gerakina udaletxeek duten diru likidoari ordainketa obligazio eta kobru eskubideen emaitza dela. Horretaz gain, diruzaintza gerakinaren garrantzia ere azaltzea komeni zaigu. Gaur egun, defizita zehazteko KSE-95an oinarrituriko metodologia erabiltzen da. Gastuen eta sarreren lehen zazpi kapituluaren diferentziaren arabera defizit edo superabit egoeran dagoen zehazten du. Metodologia hori zehaztu baina lehenago diruzaintza gerakina defizita zehazteko erabiltzen zen. Diruzaintza gerakin negatiboarekin ixten zuen udaletxea, defizit egoeran zegoela kontsideratzen zen. Ondorioz hurrengo urtean defizit hori estaliko zuen superabiteko aurrekontuak onartu behar ziren. Beraz, diruzaintza gerakinak bere definizioagatik emaniko informazioaz gain, garrantzizko adierazlea dela konproba dezakegu.

#### **9.1. taula: Gastu orokorretarako diruzaintza gerakinaren balio absolutuak**

Diruzaintza Gerakina							
	Udaletxea	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	102.941	137.781	103.297	80.667	89.328	7.034
2	Aretxabaleta	5.587.141	3.416.506	2.870.164	2.607.352	915.740	-177.044
3	Ataun	719.464	2.485.271	824.128	150.785	-207.948	-29.628
4	Azkoitia	2.707.685	1.712.802	1.840.342	1.478.268	-400.585	579.117
5	Elgeta	-22.248	132.465	164.242	370.706	135.459	-
6	Gaintza	55.050	35.287	-3.529	-38.366	-41.251	-
7	Hernani	3.861.463	5.168.930	2.456.908	629.512	10.070	-
8	Pasaia	2.161.308	1.880.405	419.130	2.349.312	173.367	623.095
9	Urretxu	565.219	1.196.832	1.211.378	296.778	-458.288	146.156
10	Villabona	451.128	694.576	750.046	638.244	477.580	1.218.292
11	Zaldibia	507.545	359.776	508.660	610.613	237.985	-
12	Zumaia	7.691.498	6.517.024	3.860.677	2.372.235	308.279	1.235.027
	Gipuzkoa bb	2.024.866	1.995.409	1.649.042	1.999.375	1.212.284	-
	12 BAT bb	2.032.350	1.978.138	1.250.454	962.175	103.311	450.256*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Diruzaintza gerakina aztertzeko, 2007-2012 urte tartetean aztertutako udaletxeek zein Gipuzkoa osoko balioak aztertuko ditugu. 2008an azterturiko udaletxe guztiek diruzaintza gerakin positiboarekin itxi zuten. Gipuzkoako udalen batez besteko diruzaintza gerakina eta 12 udaletzek osatzen zutenaren antzeko mailetan zebiltzan.



Hurrengo ekitaldian, bai Gipuzkoa zein 12 udaletxeen diruzaintza gerakina murriztu zen, bereziki 12 udaletxeen batez bestekoa, zeinek %36,79ko murrizketa jasan zuen. Garrantzitsua da Gaintzako udalak 2009an diruzaintza gerakin negatiboa izatea, hau da, ondasun likido eta kobru eskubideek, ez zituzten ordainketa obligazio guztiak estaltzen. 2010eko ekitaldian bilakaera kontrajarriak izan zituzten Gipuzkoako udalen batez bestekoak eta 12 udaletxeen taldeak, azken hau, bere diruzaintza gerakina murriztu zuelarik. Oro har udaletxe gehienak beraien diruzaintza gerakina murriztu egin zuten, Elgeta, Pasaia eta Zaldibiaren kasuan izan ezik.

2011. ekitaldia aztertutako denbora tartean diruzaintzak izan zuen bilakaera negatiboa izan zuen, bai Gipuzkoa zein aukeratutako udaletxeei dagokionean. 2009ko datu okerragoak izan ziren, jada diruzaintza nahiko murrizturik egonaz gain. Lau udaletzek 2011. urtea diruzaintza gerakin negatiboarekin itxi zuten, bere ordainketa obligazioak estaltzeko nahiko baliabide ez izanik.

Azkenik 2012an egoerak hobera egin du. Argitaratutako datuak azertuaz, diruzaintza gerakina negatiboa zuten udaletxeak, egoera hobetzea edo aldatzea lortu dute, zenbaitek gerakina izateraino. Salbuespena Aretxabaletako udaletxea da, diruzaintza gerakin osoa erabili baitu. Alabaina, datuak hobera egin arren, ez dira 2010eko balioetara iritsi, izan ere, batez beste 511.919€ gutxiagoko gerakina baitzuten hamabi udaletzek.

Diruzaintza gerakinaren ekitaldi bukaerako balio absolutuek informazio interesgarria izan arren, analisisan sakontzeko itxura egokia ez dute. Bilakaera eta egoera orokorrari buruzko informazioa lortzen dugu eta bereziki, Gipuzkoako eta 12 udaletxeen arteko aldeak argitzen lagun diezaguke. Alabaina diruzaintza gerakinean oinarrituz adierazle ekonomiko-finantzario bat sortu dugu, azterketa zuzenagoa burutzeko.

Adierazle ekonomiko-finantzarioak urte batetik bestera diruzaintza gerakinak izan duen diferentzia jasotzen du eta diferentzia hori, sarrera arrunt likidatuaren menpe erlatibizatzen da. Demagun udaletxe baten diruzaintza gerakina 10 unitatetan hazten dela eta urte horretako sarrera arrunt likidatuak 100eko unitatekoak zirela. Ondorioz adierazle ekonomikoak %10eko balioa izango zuen, hots, bere ohiko sarreraren %10eko diruzaintza gerakina sortu duela ekitaldian zehar. Diruzaintza gerakina eta binkulazioak azaldu ditugunean, gerakina eragiketak finantzatzeko baliagarri izan zitekeela azaldu dugu, hortaz baliabide gehigarriak lortu genituela ere interpreta\_genezake.

$$\text{Adierazlea} = \frac{(DZgerakina_2 - DZgerakina_1)}{\text{Sarrera Arrunt Likidatuak}_2}$$

Aztertuko dugun adierazlearen lehen urtea 2008-2009 urteen artean eman diren aldaketak dira. Datu absolutuetan denbora tarteko bilakaera negatiboa izan dela adierazi dugu, 12 udaletxeek diruzaintza positiboa izanagatik ere, batez besteko diruzaintza gerakina 727.684€tan murriztu baita. Adierazlearen arabera zenbatekoa, sarrera likidatuaren %10,7ko murrizketa suposatzen du. Hala ere, aztertutako udaletxetik zazpik

soilik izan zituzten adierazle zenbateko negatiboak. Azpimarratzekoa da Atauneko udalak jasan duen diruzaintza gerakin aldea, bere sarrera arruntak baino handiagoa izan baitzen. Bilakaera hau, 2009. urteko jarduera aurrera eramateko, bere ohiko jarduerarekin lortu zituen bezainbesteko sarrera gehigarria behar izan zituela interpreta dezakegu.

**9.2. taula: Gastu orokorretako diruzaintza gerakinaren adierazlea.**

<b>(DZ gerakina<sub>2</sub> – Dzgerakina<sub>1</sub>)/ Sarrera arrunt likidatuak<sub>2</sub></b>					
	Udaletxea	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
1	Altzaga	-%15,6	-%8,8	%4,2	-%36,9
2	Aretxabaleta	-%7,9	-%3,3	-%22,9	-%13,7
3	Ataun	-%110,9	-%46,6	-%26,8	%12,5
4	Azkoitia	%1,1	-%3,0	-%16,6	%8,2
5	Elgeta	%2,2	%12,2	-%14,2	
6	Gaintza	-%22,7	-%17,0	-%1,6	
7	Hernani	-%13,4	-%8,1	-%2,7	
8	Pasaia	-%9,2	%10,3	-%13,6	%2,7
9	Urretxu	%0,2	-%12,6	-%10,1	%7,9
10	Villabona	%1,1	-%1,9	-%3,1	%13,3
11	Zaldibia	%9,8	%7,6	-%27,4	
12	Zumaia	-%27,4	-%13,6	-%19,9	%9,0
	GIPUZKOA	-%3,7	%3,5	-%8,4	
	12BAT	-%10,7	-%3,8	-%12,1	%3,8*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Ezin dugu ahaztu, aurrezki garbi negatiboko egoera konpontzeko bi aukera nagusi daudela, zorpetze maila handitzea edo diruzaintza gerakina erabiltzea. Horretaz gain, aurrezki garbiaren beherakadaren eragile nagusizat, sarrerren murrizpena izan zela ere definitu dugu. Beraz, sarrerren murrizketak sortutako gastuen finantzazio falta estaltzeko, diruzaintza gerakina erabil daiteke. Zor biziaren analisisian ikusi dugun moduan, 12 udaletxeren zor bizia handitu egin zen 2009an. Hala ere hazkuntza, ez zen partikularki udaletxe guztietan eman, Aretxabaleta, Urretxu eta Azkoitiko udaletan soilik handitu baitzuten. Hiru horien artean, soilik Aretxabaletak murriztu zuen bere diruzaintza gerakina, logikoa dena, aurrezki garbi murrizketa handienetako udaletxea izan baitzen. Beraz, gainontzeko udaletxeak 2009. urteko zailtasunei aurre egiteko ez zuten zorpetzea handitzea erabaki.

Beste talde horretan eta taulako adierazlea erabiliz, aurrezki garbiko murrizketei aurre egiteko diruzaintza gerakina erabili izan dezaketela islatzen da. Orokorrean, diruzaintza gerakinaren adierazleak bilakaera negatiboena izan duten udalak, aurrezki garbiaren murrizketaren antzeko eboluzioa izan dute. Hau da, udalen tamaina kontuan

hartuz, bere ohiko jarduerak sortutako baliabideen murrizketa, diruzaintza gerakinarekin konpondu dutela hain zuzen. Hernaniko udala hartuko dugu eredu gisa. Aurrezki garbia positiboa izan arren, 3.237.382€tan murrizketa jasan zuen. Horri bere ekitaldi bukaerako zor biziaren jaitsiera gehitu behar zaio. Ondorioz, baliabideen murrizketa, aurrezkiaren adierazten dena, diruzaintza gerakinarekin estali duela ondoriozta dezakegu, gerakinaren erabilera sarrera arrunten %13,4ko ekibalentzia izanik.

2010. ekitaldian adierazlearen batez besteko zenbatekoak handitu egin ziren, bai Gipuzkoan zein 12 udaletxeen taldean. Bilakaera esplikatzen bi alderdi ezberdin daude. Alde batetik sarrera arrunten zenbatekoak gora egin zuten. Aurrezki garbiaren analisisian, UFFF-aren 2010eko datuetan erreparatu gara. Horietan %10etik gorako hazkuntza jasan zuten udaletxeek, diruzaintza gerakinaren adierazlea txikituz. Bestalde, diruzaintza gerakina murriztu arren, bere erabilera erdira gutxitu zen. Datu horiek, 2009an diruzaintza gerakina murriztu zuten udaletxetan identifikatu daitezke 2010ean bere erabilera txikitu zutelarik. Hau da, 2009ko adibide hartu dugun Hernanin 2.712.022€ko gerakinaren murrizketatik 1.827.396€rainko bilakaera izan zuen.

Aztertzen ari garen adierazlean so eginez gero, Gipuzkoak batez beste, %3,5eko gerakina sortu zuten. 12 udaletxeen taldean gerakinaren erabilpenak sortzeko gaitasunaren gaintu zuen. Hala ere azaldutako faktoreek adierazlearen zenbatekoa murriztea azaltzen dute. Banan banako azterketan Urretxuko udalaren bilakaera interesgarria da. 2010ean sarrera arrunten hazkuntza izan arren, aurrezki garbi negatiboa izan zuen udaletxe bakarra da, 12 udaletxeen artean. Horretaz gain ekitaldi bukaerako zor bizi beste bi miloi eurotan handitu zuten. Gerakinaren adierazleak gainera, beste udalen kontrako bilakaera izan zuen, -%12,6ko balioa hartuz. hiru faktore hauek kontuan hartuz, aurrezki garbiaren eboluzio negatiboari, zorpetzearekin eta diruzaintza gerakinaren erabilpenaren bitartez aurre egin diotela ikus daitezke. Pasaiako udalak kontrako gertaera izan zuen. Kasu honetan bere adierazlea %10,3ko balio positiboa lortu du. Pasaiaren bilakaera zentzugabetzat edo gutxienez ulertzen zailtzat joenezake sarreraren joera orokorra ikusita. Izan ere, UFFF-aren hazkuntza garrantzitsua izan zen eta gerakinaren adierazlea murriztu lezake, zatitzaile den sarrera likidatuak handituz eta ondorioz adierazlea murriztuz. Hala ere beste ikuspuntu batetik, oso ulergarria da. Aurrezki garbia aztertzerakoan UFFF-ak oso positiboki eragin ziola adierazi dugu. Era honetan Pasaiako udalak 2.085.342€ko aurrezki gordina lortu zuen, zenbateko negatibotik etorriaz 2009an. Baliabide gehigarri horiek ez zituen zor bizi murriztera bideratu, ezta inbertsioetara, beraz diruzaintza gerakina handitzea lortu zuen 1.930.182€tan. Hortaz 2010ean egoera kontrajarriak eman ziren udaletxeen artean, baina orokorrean Pasaiaren eredu bizi izan zuten udaletxe gehienek, UFFF-aren sarreraren hazkuntzan oinarriturik.

2011ko adierazlearen datuak agerian uzten dute urte garrantzitsua dela azterketarako, izan ere, udaletxe bakarra da zenbateko positiboarekin. Gipuzkoako udalek batez beste bere sarrera arrunten %8,4 balioko gerakina erabilera zuten. Aztertutako udaletxeen artean, batez beste bere gerakinaren erabilpena ere handitu da,

kasu honetan bere sarrera arrunten portzentaje handiagoa suposatuz (%12,1). 2009ko datuekin alderatuz gero, adierazlearen datuak negatiboagoak izan ziren. Gainera 2011ean sarrera arrunten zenbatekoak 2009aren gainetik kokatu ziren, negatibotasunaren hazkundearen arrazoia, diruzaintza gerakinaren aldaketan zentratuaz. Halaber, 2011 ekitaldiko zor biziaren bilakaera aztertzean, aurrezki garbiaren aldaketa negatiboa konpontzeko ahaleginak diruzaintza gerakinean zentratu zirenenaren susmoa planteatu dugu, zor bizia ez baitzen ia handitu.

**9.3. taula: Aurrezki garbi eta diruzaintza gerakinaren aldaketa 2010-2011an**

2010-2011	Aurrezki garbi aldaketa	Diruzaintza gerakin aldaketa	Iturria:
Altzaga	-72.077	8.661	
Aretxabaleta	-563.712	-1.691.612	
Ataun	-110.314	-358.733	
Azkoitia	-143.920	-1.878.853	
Elgeta	103.094	-235.247	
Gaintza	-20.124	-2.885	
Hernani	-123.297	-619.442	
Pasaia	-3.108.562	-2.175.945	
Urretxu	179.693	-755.066	
Villabona	-851.891	-160.664	
Zaldibia	-6.275	-372.628	
Zumaia	349.725	-2.063.956	
<b>GIPUZKOA batez beste</b>	<b>-540.055</b>	<b>-787.091</b>	
<b>12BAT batez beste</b>	<b>-363.972</b>	<b>-858.864</b>	

www.udalgida.net

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Goiko taulan, aurrezki garbiak eta diruzaintza gerakinak 2010 eta 2011ko ekitaldien arteko diferentziak adierazi ditugu. Udaletxe gehienak oro har, diruzaintza gerakina murriztu dute, beraien aurrezki garbiaren aldaketa eta zenbait kasutan balio negatiboekin aurre egiteko. Beraz, 2009 eta 2011ean arazo antzekoekin aurre egiteko bide ezberdinak jorratu dira, hots, 2009an zorpetzean zentratu zen eta 2011ean diruzaintza gerakinaren erabilpenean. Alabaina garbi utzi behar dugu erabaki bat bestetik baztertzailerik ez dela, osagarriak izan ohi baitira.

Goiko paragrafoko ideien arrazoiak ikertzeko, 2008-2012 urte tartean onartu diren kredituen baldintzak aztertu ditugu. Bertan kreditu erakundeekin onartutako mailegu guztiak bildu ditugu urtez urte eta batez besteko datuak lortu ditugu. Mailegu gehienetan ezartzen den interes tipoa, hiru hilabeteko euriborra eta honi aplikatzen zaion diferentziala izan ohi da. Hala ere mailegu guztiak ez dira baldintza hauetan sinatzen, beraz zenbait kasutan datuak parekatzeko zailtasunak eduki ditugu. Hori dela eta

euriborrari gehitzen zaion batez besteko diferentziala datu orientatibo gisa kontsideratuko dugu, errore marjina handia izango ez den arren.

**10. taula: 2008-2012n hitzartutako kreditu-eragiketak eta aplikaturiko batez besteko diferentziala.**

	Kreditu zenbatekoak	Kredituak eskatutako udaletxe kopurua	Batez besteko kredituak	Batez besteko diferentziala
<b>2008</b>	60.741.891,64	23	2.640.951,81	%0,50
<b>2009</b>	79.062.860,89	26	3.040.879,27	%1,21
<b>2010</b>	54.142.369,13	30	1.804.745,64	%1,43
<b>2011</b>	22.830.232,94	21	1.087.153,95	%2,43
<b>2012</b>	24.200.669,85	18	1.344.481,66	%4,14

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

2008. urtean zehar 60.741.891,64€ko maileguak onartu ziren Gipuzkoako udaletxeen artean. Aplikaturiko baldintza orokorrak hiruhilabeteko euriborrari %0,50ko diferentzialeko interesen sinatu ziren. 2009. urtean aztertutako urteetan mailegu gehien sinatu ziren urtea izan zen. Maileguak sinatu zituzten udaletxeen artean batez beste 3.040.879,27€koak izan ziren. Aurreko urtearekiko hogeit hamar milioi euroko aldea egon arren, maileguak ez dira baldintza hobeetan sinatu, izan ere aplikaturiko diferentziala %1,21ekoa izan baitzen. Beraz gastuak estaltzeko finantzazio falta, zorpetzearekin estaltzeko joera datu hauetan ere garbi islatzen da.

2010. urtean interesen diferentziala %1,43an kokatu zen, 0,22 puntu portzentualeko hazkuntza jasanaz aurreko ekitalditik. Sinatutako maileguen zenbatekoak murriztu ziren 54.142.369,13€koak izateraino. Aurreko ekitaldian baino ia 25 milioi euro gutxiago sinatu ziren. Honen arrazoi nagusia, aurreko ataletan aztertu ditugun sarreraren hazkuntza izan daiteke.

Sakonago aztertzen ari garen ekitaldian, 2011. urtea, onartutako maileguak batez beste 1.087.153,95€koa izan ziren. Urte honetan aplikaturiko interesaren diferentziala puntu oso batean handitu zen ekitaldi batetik bestera. Interesaren diferentzialak aztertzeko arrazoiak 2009 eta 2011eko ekitaldietan egoera antzekoen aurrean irtenbide ezberdinak jorratzea izan da. 2009an 56.232.627,95€ko gehiagoko maileguak sinatu zituzten 2011ean baino. Diferentzialaren aldea ordea %1,22koa zen, 2009ko interes diferentzial bikoitza. Honek esan nahi du, 2011ean 2009ko mailegu berdina sinatuko balira, diferentzialari dagokionean, 686.038,06€ko kostu handiagoa izango luketela urtero. 2011ean sinaturiko maileguak batez beste 11,33 urteko iraupena bazuten totalen 7.772.811,23€ko kostu gehigarria suposatuko lukete. Kostuaren hazkuntza kontuan hartuz, logikoa dirudi 2011ean diruzaintza gerakinaren erabilera 2009an baino handiagoa izatea, beste faktoreak baztertu gabe. Alabaina nahiko adierazgarria dirudi

diferentzialaren hazkuntzak, kostuen hazkuntza suposatzen duena, zor biziaren eta diruzaintza gerakinaren erabilpenaren bilakaerarekin bat etortzea.

Azkenik, parentesi honekin amaitzeko, 2012an aurreko ekitaldian baino 1.370.436,91€ gehiago sinatu zituzten maileguetan, udaletxe gutxiagoren artean izan arren. Gainera interesari ezarritako diferentziala %4,14ean kokatu zen. Diferentzial hau aztertutako denbora tartean diferentzial altuena da. 2008tik aplikaturiko diferentziala zortzi aldiz hazi zen, hau da, bost urtetan euriborraren gaineko diferentzialak sortutako kostua 8,26aldiz garestiagoa da.

Diruzaintza gerakinaren analisiarekin jarraituz, 2011eko joera orokorra zuzenki jarraitu ez duten zenbait udaletxe identifikatu ditugu. Hauen artean lehena Altzaga izan da. Bertan aurrezki garbi negatiboarekin itxi zuten ekitaldia, beraz, bere sarrera arruntekin bere ohiko gastuak estaltzeko nahiko baliabide ez zituzten. Arazoa konpontzeko ez zuten zor bizi gehigarri onartu ekitaldi bukaeran. Hala ere bere diruzaintza gerakina handitzea lortu zuten udaletxe bakarria izan zen. Hazkuntza honen arazoia kobratzeko dituen zenbateko handiak izan litezke. Beste suposaketa, aktibo likidoen hazkuntza izango litzateke, baina sarrera arrunten finantzazio ahalmen ez nahikoak eta zorpetze erabilpen ezak, neurri handi batean baztertuko luke. Hala ere, supostu hauek konfirmatzeko edo baztertzeko ez dugu informazio nahikorik, beraz ezin ditugu bilakaeraren faktore justifikagarriak identifikatu.

Hurrengo salbuespena Elgetako udaletxea izango litzateke, aurrezki garbi positiboa izan arren, diruzaintza gerakinaren murrizketa jasan duena. Zorraren azterketan erabilitako datuetan oinarrituz, 2011 urte bukaeran bere zorpetze mailak handitu zituen. Beraz, Alzagaren kontrako kasuan egongo litzateke, finantza iturri baliabide gehiagorekin diruzaintza gerakina murriztea. Batetik, Alzagaren kasuan ez bezala, hots, gutxiago edukita aurreztea, Elgetak dituen baliabideak erabiltzea logikoagoa da. Bestetik, inbertsioetara bideratutako partidek, gastuaren aldeko diferentzia islatzen dute. Hortaz baliteke diruzaintza gerakina, diferentzia inbertsioak estaltzeko erabili izatea.

Urretxuren udalak aurrezki garbiaren aldaketa positiboa izan arren diruzaintza gerakinaren erabilera, 2010eko ekitaldian izan dezake oinarria. Urte horretan sarrera arruntak handitu arren, 12 udaletxeetatik aurrezki garbi negatiboarekin itxi zuen bakarria izan zen. Halaber bere zorpetze maila azken hamar urteetako puntu gorenean kokatu zen, ekitaldi bukaeran 3.500.000€ko zorra onartuz. Azkenik kapitaleko sarreraren %94,89ko murrizketak, izaera bereko gastua estaltzeko zailtasunak sor litzake. Hortaz, faktore anitzen gain egon daiteke diruzaintza gerakinaren erabilpenaren arazoia.

**11. taula: Zumaiako udalaren adierazle esanguratsuenak.**

Zumaia	2008	2009	2010	2011	2012
Aurrezki Garbia	2.104.356	234.247	714.898	1.064.622	246.357
Zor Bizia	76.274	10.630	0	1.700.000	4.481.000
Diruzaintza Gerakina	6.517.024	3.860.677	2.372.235	308.279	1.235.027
Diruzaintza Gerakinaren Aldaketa	-1.174.474,16	-2.656.347,07	-1.488.442,23	-2.063.955,81	926.748

Iturria: www.udalgida.net

Puntu honetan aztertuko dugun azken udaletxea Zumaiakoa izango da, zor bizia aztertzerakoan jada bere bilakaera azpimarratu genuena. Hori dela eta 2008-2012 urte tartetan emaniko bilakaera orokorra ezagutzeko baliatuko dugu. Lehenengo hiru urteetan finantzazio baliabide garrantzitsu gisa diruzaintza gerakina erabili duela ikus dezakegu. Bere zorpetze maila ordea zeroraino murriztu du. Erabilpenaren gorakada nabari bat ikusten da 2009. urtean aurrezki garbiaren murrizketa garrantzitsuarekin batera. Hala ere, estrategia honen ondorioa diruzaintza gerakina urtez urte murriztean ondorioztatu da. 2011. urtean lehen aldiz bere zorpetzea handitu zuen, diruzaintza gerakinarekin batera. Azterketan azaltzen den joera nabarmena, krisiaren ondorio ekonomikoak diruzaintza gerakinaren erabilpenarekin aurre egin diola da. Diruzaintza gerakina agortzen joan ahala zorpetzea erabaki du 2011 eta 2012ko ekitaldietan ageri den gisan. Hala ere 2012an Zumaiak diruzaintza gerakina sortzeko gai izan da.

2012an, krisialdian lehen aldiz, diruzaintza gerakina erabiltzeko baino sortzeko joera nagusitu da. Alde batetik, zenbait udaletxetan diruzaintza gerakin negatiboarekin itxi zuten 2011, beraz ez daukatena erabiltzea zaila izango litzateke. Alabaina, aurrezki garbiarekin lotura estuago du. Udaletxeek bere ohiko jardueratik lortutako aurrezki handitu egin dute batez beste. Aurrezki handituaz, finantza baliabide gehigarriak erabiltzeko beharra baztertu dezakete. Honela, diruzaintza gerakina ez erabiltzeko baldintzak sortzen dira, bere sorkuntza lagunduaz. Altzagako eta Aretxabaletako udaletxeak, aurrezki garbia handitu arren, diruzaintza gerakina erabiltzen jarraitu dute. Honen arrazoi nagusia inbertsioetan datza izaera horretako sarrerak ez baitira gastuak estaltzeko gai. Aretxabaletaren kasuan halaber, bere zorpetzea murrizteko maileguzen amortizazio ordainketak eragina izan dezakete.

Diruzaintza gerakina aztertzen bukatzeko, zeharka esan arren, zuzenean aipatu ez dugun ezaugarri bati buruz arituko gara. Izan ere, 2008an udaletxeek zuten diruzaintza gerakinaren mailaren azpitik daude gaur egun. 2008-2012 urte tartean diruzaintza gerakinaren murrizketa krisiaren ondorioetako gisa kontsideratu daiteke, udaletxe gehienak ia ekitaldiro bere erabilera behar izan baitute. 2008. urtean 12 udaletxeek batez beste 1.978.138€ko diruzaintza gerakina zuten. 2011ean ordea batez beste 103.311€ko balioetara jaitsi ziren. 2012, salbuespen gisa kontsidera dezakegu aztertutako urtean tartean, izan ere, diruzaintza gerakina sortzeko gaitasuna izan baitute udaletxe gehienek. Bilakaera orokorra kontuan hartuz, krisialdi ekonomikoak sortzen

dituen zailtasunak diruzaintza gerakinarekin erantzuteko aukerak mugatzean izan daiteke, azterturiko 12 udaletxeei dagokionean. Datu hauek egoera konpontzeko hartu beharreko erabaki posibleen multzoa mugatu dezakeela isla dezakete, bereziki baliabide nahikoa ez sortzeari dagokionean.

#### 5.4 Defizit analisia

Diruzaintza gerakina aztertzerakoan inbertsiora bideraturiko gastu eta sarrerak orekatuak egon ez direla ikusi dugu. Orokorrean gastuaren aldeko diferentzia izan da, bereziki 2009 eta 2011 urteetan. Inbertsioak bere osotasunean inbertsioetako sarreraren bidez soilik ez finantzatzea ohikoa izaten da, izan ere, aurrezki garbiaren soberakina edo eta zorra baliozko finantza baliabideak baitira. Ideia hau abiapuntutzat hartuta, sarrera eta gastuen arteko diferentzia aztertuko dugu, aktibo nahiz pasibo finantzarioen efektua baztertuaz. Beste era batean esanda udaletxeek defizit edo superabit egoeran itxi duten aztertuko dugu, KSE-95eko metodologia erabiliaz.

#### 12.1. taula: Defizita KSE-95 metodologian oinarrituta

	Sarrerak		Gastuak
I	Zuzeneko zergak	I	Pertsonal Gastuak
II	Zeharkako Zergak	II	Ondasun Arrunten eta Zerbitzuen Erosketa
III	Tasak eta Bestelako Sarrerak	III	Finantza Gastuak
IV	Transferentzia Arruntak	IV	Transferentzia Arruntak
V	Ondare Sarrerak		
VI	Inbertsio Errealak Besterenganazetik eta Hirigintzako Jardueretatik Ondorioztatutako Beste Sarrera Batzuk	VI	Inbertsio Errealak
VII	Kapital Transferentziak	VII	Kapital Transferentziak

Iturria: elaborazio propioa

$$SUPERABITA = \sum_1^7 S_i > \sum_1^7 G_i$$

$$DEFIZITA = \sum_1^7 G_i > \sum_1^7 S_i$$

Udaletxe bat defizit edo superabit egoeran dagoen ikusteko 12.1 taulan oinarrituko gara, bertan kalkulua osatzen duten osagai guztiak barneratzen baitira. Alde batetik eragiketa arrunten kapituluak bereizturik ageri dira eta inbertsio eragiketak beste aldetik. Beste era batera esanda lehen bost kapituluak, eragiketa arruntak, eta VI eta VII. kapituluak, inbertsio eragiketak, daude. Honela sarreraren eta gastuen lehen zazpi kapituluak alderatzen ditugu. Emaitza positiboa bada aurrekontuak superabit egoeran egongo lirake eta defizit egoeran emaitza negatiboa balitz.

Halaber, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak



2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren bitartez, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen legea eta 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideak 2013rako defizit arloan ezarritako helburuak beteko ziren aztertzeko baliatu dezakegu.

### **12.2. taula: KSE-95an oinarritutako defizitaren balioak**

<b>SARRERA ETA GASTU LIKIDATUEN I-VII KAPITULUEN EMAITZA</b>						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	28.331	-50.876	510	36.507	-43.203
2	Aretxabaleta	-2.295.024	-1.994.755	-182.195	-5.597.048	-1.964.631
3	Ataun	1.487.088	-1.776.680	-586.911	-95.075	265.751
4	Azkoitia	-2.909.166	-8.430.435	4.161.223	-722.475	1.890.326
5	Elgeta	-414.604	-13.820	146.699	-29.450	-
6	Gaintza	-52.090	-54.385	-12.174	22.198	-
7	Hernani	2.220.706	-3.932.441	-486.355	672.936	-
8	Pasaia	-199.989	-2.339.817	3.046.801	-365.750	626.359
9	Urretxu	-1.385.381	-642.016	-627.467	-376.427	879.740
10	Villabona	-256.522	-402.976	-156.302	21.815	716.586
11	Zaldibia	319.326	-366.408	135.064	-245.664	-
12	Zumaia	-939.580	-2.142.694	-1.212.275	-1.104.167	33.068
	12BAT	-4.396.905	-22.147.303	4.226.618	-7.782.600	2.403.996*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

2008a krisiaren hasiera urtea izan arren, bere ondorioak hurrengo urteetan kontsolidatzen hasi zirela esan dugu. Horrela izanagatik ere, 2008. urtean aztertutako udaletxeen artean soilik lau udaletxek itxi zuten ekitaldia superabitarekin. Kontuan izan behar dugu beste aldagaiak orokorrean egoera positiboan zeudela, beraz jada krisialdiari hasiera defizit egoera batetik eman zioten.

2009. urtean defizitaren alorrean aztertutako urteetan zailena izan zen. 12 udaletxeen artean 22.147.303€ko defizita pilatu zuten ekitaldi bukaeran. Balioa biztanleriarekiko erlatibizatuz, batez beste biztanleko 277,5€-ko defizitarekin itxi zuten ekitaldia. Biztanleko beste datu batzuekin alderatuz, 489,3€ko zorra edo -29,30€ko aurrezki garbia zuten 2009. urtean. Zenbatekoaren garrantziaz gain, aztertutako udaletxe guztiek itxi zuten ekitaldia defizit egoeran. Herri gehienetan inbertsioen gastu eta sarreraren arteko diferentziak dira emaitza negatiboak sortzearen faktoreak. Hala ere 2009. urtean Gaintza eta Pasaiaiko udaletxeak bere gastu arruntak sarrera arruntak baino handiagoak ziren, beraz, bere ohiko jarduera, maileguen amortizazioengatik gastuak baztertutik, defizitarioa zela esan genezake.

Datu negatibo hauek aztertu ditugun beste adierazleekin bat datoz, hala nola aurrezki garbi edo eta diruzaintza gerakinaren beherakadarekin. Halaber, urte bukaerako zor biziaren hazkuntza azal lezake. Kasu honetan azterturiko udaletxe guztiek bere inbertsio eta jarduera orokorra estaltzeko baliabide nahikoak ez badituzte, beharrezko izango lukete beste finantza baliabideak erabiltzea. Ikusi dugu diruzaintza gerakinaren erabilera handitu zela 2009. urtean eta zor biziak bilakaera bera izan zuela.

Defizitaren datuak balio absolutuan, bilakaera orokorraren argazki orokor bat lortzeko baliagarri dira. Hala ere ez ditu udaletxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen. Beraz balio erlatiboak lortzea, analisia aberasteko interesgarria izan daiteke. Kasu honetan, lehenengo zazpi kapituluaren gastu eta sarreraren arteko diferentzia, kapitulu berdinaren sarreraren menpean jarri ditugu. Honela beraien sarreraren gaitasunaren proportzionaltasuna ikus dezakegu.

**12.3. taula: KSE-95an oinarritutako defizita sarrerarekiko erlatibizatuz**

DEFIZITA/ SARREREN I-VII KAPITULUAK						
	Udaletxea	2008	2009	2010	2011	2012
1	Altzaga	%10,6	-%15,0	%0,2	%13,2	-%18,6
2	Aretxabaleta	-%29,6	-%23,2	-%1,7	-%72,0	-%23,2
3	Ataun	%38,3	-%70,9	-%12,7	-%4,4	%17,0
4	Azkoitia	-%20,0	-%59,2	%26,1	-%5,7	%14,9
5	Elgeta	-%17,3	-%0,6	%6,7	-%1,5	-
6	Gaintza	-%23,5	-%16,1	-%5,1	%10,7	-
7	Hernani	%8,8	-%14,9	-%2,0	%2,9	-
8	Pasaia	-%0,9	-%11,0	%13,7	-%2,1	%3,3
9	Urretxu	-%18,1	-%7,6	-%6,0	-%5,0	%11,3
10	Villabona	-%4,2	-%6,3	-%2,3	%0,4	%12,7
11	Zaldibia	%14,3	-%17,5	%7,4	-%17,4	-
12	Zumaia	-%8,9	-%18,5	-%9,4	-%10,5	%0,3
	12BAT	-%4,2	-%21,2	%3,8	-%8,6	%3,6*

Iturria: [www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Aretxabaleta, Ataun eta Azkoitiko udaletxeen balioak esanguratsuak dira 2009an. Ataunek bere lehen zazpi kapituluaren sarreraren %70,9ko balioko defizitarekin itxi zuen ekitaldia. Bere aurrezki garbia positiboa izanik, garbi dago inbertsioetan sortu zela diferentzia negatiboa. Egoera konpontzeko ez zuen zor bizirik onartu urte bukaeran, baina diruzaintza gerakinak aldaketa garrantzitsua jasan zuen. Gerakinaren erabilera garbi ikusten da aurretik azterturiko adierazlean, izan ere, -%110,9ko sarrera arruntaren balioko murrizketa izan baitzuen, adierazlea azterturiko denbora tartean, balio negatiboena. Aretxabaleta eta Azkoitiko kasuak ere aipagarriak dira, jada balio absolutuetan bereizgarriak izan daitezkeenak. Biak batera aztertu arren garbi dago zenbateko ezberdinez jardungo dugula, izan ere, Azkoitiko defizitaren balioak Aretxabaletarenaren bikoitzetik gora kokatzen baita. Bi udaletxe hauen aurrezki garbia

balore negatiboetan kokatzen zen, nahiz eta, gastu arruntak estaltzeko adina baliabide bazituen. Hortaz defizitaren sortzailea inbertsio eragiketetan eman zen. Hala ere, Ataungo udalak ez bezala, zor bizia handitzea erabaki zuten. Atal hori aztertu dugunean jada Aretxabaletako eta Azkoitiko udalak azpimarratu ditugu. Gogorazteagatik 2009an beraien ekitaldi bukaerako zor bizia beraien sarrera arrunten %119 eta %109,8an kokatu ziren hurrenez hurren. Aretxabaletako udalak diruzaintza gerakina ere murriztu zuen, nahiz eta Ataungo kasuarekin zer ikusirik ez izan. Hortaz, Aretxabaletako eta Azkoitiko zorpetzearen hazkuntzetako arrazoietako bat, lehen zazpi kapituluaren arteko diferentzia negatiboa estaltzeko ahalegina izan daiteke.

2010. urtean 12 udaletxeek beraien defizita gutxitu eta ia erdiak superabitarekin ixtea lortu zuten. Izaera arrunteko eragiketetan udaletxe denek, beraien gastuak estaltzeko baliabide nahikoak eragin zituzten. Gainera inbertsioen arloan Azkoitia, Pasaia eta Zaldibiako udalek, transferentzien bitartez soilik finantzatu ahal izan zituzten. Baliabide horiek beste izaera baterako erabili izan zituzten, Pasaiako eta Zaldibiko kasuan adibidez, diruzaintza gerakina handitzeko baliagarri izan zitezkeen. Aurreko ekitaldiko egoera defizitarioa konpontzeko sarreraren hazkuntza berriz ere azpimarratzea garrantzizkoa da, baliabide gehiago jartzen baititu udaletxeen eskutan.

Hurrengo ekitaldian udaletxeen egoera bateratua defizit egoerara bueltatu zen. Alabaina, zenbatekoak ez ziren 2009ko ekitaldikoetara parekatu. Horren isla da Alzaga, Gaintza, Hernani eta Villabonako udalek ekitaldia superabitarekin itxi zutela. Alde negatiboan ordea Aretxabaleta, Zaldibia eta Pasaiako udalak jarriko ditugu, defizit maila baxuko edo superabit egoeratik, murrizketa garrantzitsua izan baitute defizit maila handiagotan kokatuaz. Alde batetik Zaldibiaren kasua aztertuko dugu bere defizitaren adierazleak %17,4ko balioa negatiboa izan zuelarik. Bere ohiko jarduerak inbertsio edo beste gastuak estaltzeko soberakina sortu arren, ez zen inbertsio eragiketak sortutako diferentzia estaltzeko nahikoa. Beraz beste baliabideak behar zituen diferentzia honi aurre egiteko. Zor bizia murriztu zuten, diruzaintza gerakina izango litzateke tresna logikoena. Gerakinak 2010etik 2011era sarrera arruntekiko izan zuen balioa %27,4ko balio negatiboa izan zuen, bere erabilera agerian utziaz.

Pasaiako kasuan defizit maila hain handia ez izan arren, hiru miloi euro inguruko superabitetik 365.750€ko defizitarekin ixtea da azpimarratzekoa. Bere sarrera arruntek bere gastu arruntak estaltzeko adina izan ziren doi-doi, aurrezki garbia negatiboa izan arren. Bestalde kapitaleko transferentzien zenbatekoak %57,81ean murriztu zitzaizkion. Bere inbertsioak ere gutxitu zituen 2011eko ekitaldian baina ez proportzio berean. Honek inbertsioak estaltzeko ohiko jarduerako baliabideak erabiltzera behartzen zuen. Esan dugun gisan sarrera eta gastu arrunten diferentzia ia neutro izanik, defizit egoera onartu behar izan zuen. Honek diruzaintza gerakinaren 2009ko mailaren gainetik erabiltzera eraman zuen.

Azkenik Aretxabaletaren kasu oso garrantzitsua izan daiteke, 2009. ekitaldian arreta jarri dioguna. Adierazlearen zenbatekoei so eginez gero ere ez da ohiko kasua, hots, ekitaldia bere lehen zazpi kapituluaren sarreraren %72ko defizitarekin itxi baitzuen. Aurrezki garbi negatiboa izan arren, gastu arruntak estaltzetik sortutako soberakina,

finantza zamari aurre egiteko erabili behar izatearen ondorioa zen. 2011ean oraindik bere zor bizia, sarrera arrunten %111,9an kokatzen zen, beraz, zama finantzarioaren karga altua izatea koherentea da. Berriz ere, inbertsio eragiketak sortutako autofinantzaketa ezak, defizitaren zenbatekoak areagotu zituzten.

**12.4. taula: Aretxabaletako inbertsio eragiketak.**

Aretxabaleta	2010	2011	Aldaketa
Sarrerak VI-VII	2.439.060	2.439.060	0,00%
Inbertsio Gastuak	5.363.176	6.744.435	25,75%

Iturria: www.udalgida.net

Taulan ikus dezakegun gisan, Inbertsio gastua %25,75ean handitu zen bitartean, kapital transferentziagatik eta inbertsio errealengatik sarrerak berdin mantendu ziren. Honi, bereziki sarrera arrunten murrizketen ondorioz, aurrezki gordinaren soberakina sortzeko gaitasun eza gehituz gero, defizitaren hazkuntza laguntzen duten faktore multzo nagusia osa dezakete.

Zorpetze maila oso altuak izanik, zorra handitzeko aukera gutxienez zaila dirudi. Ondorioz diruzaintza gerakinaren eboluzioa ikustea komenigarria litzateke, 2011eko egoeran ohikoa izango bailitzateke honen erabilpena. Diruzaintza gerakinak 1.691.612€ko murrizketa izan zuen bere sarrera arrunten %22,9a suposatuz. Hala ere, 5.597.048€ko defizita izan zuela kontuan hartuz, egoera konpontzeko beste egoera batzuk hartu zituela suposatu dezakegu. Zoritxarrez suposaketa hori konfirmatzeko nahikoa informazio ez dugunez, biztanleko 829,4€ko defizita konpontzeko gerakinaren erabileran soilik zentratu ahal izan dugu.

Argitaratutako udaletxeen datuetan 2012. urtean bi udaletxek soilik itxi zuten defizit egoeran. Gainontzeko udaletxeek superabitarekin bukatu zuten ekitaldia, hots, ohiko jarduera eta inbertsio eragiketak finantzatzeko nahikoa baliabide zituzten. Inbertsioak eragiketak finantzatzeko beste izaerako baliabideen beharra izan arren, gastuen aldeko diferentzia murriztu egin da 2011ekin alderatuz gero. Halaber, eragiketa arruntetatik lortutako emaitzak hazkuntza garrantzitsua izan du (Eragiketa arrunten emaitzaren hazkuntza %195,01), inbertsioetako alde negatiboa finantzatzeko adina izatera iristeraino.

Altzagaren kasua aipatu genezake, defizitarekin itxi duen udaletxea baita. Bertan, 2011rekiko inbertsio eragiketen gastua handitu da, izaera berdineko sarrerak murriztu diren bitartean. Bertan sortutako aldea ez du bere jarduera arruntarekin estaltzeko aukera izan, defizit egoeran itxiaz. Hala ere, portzentualki zenbateko garrantzitsua izan arren, balio absolutuetan 43.203€ko defizita suposatuko luke. Aretxabaletaren kasuan ordea, bere inbertsio gastua %40,9an murriztu eta aurrezki

garbia handitu arren, defizit egoera mantendu du. Ekitaldia defizitean itxi arren, bere sarrerekiko portzentajea ere murriztu %23,2raino murriztu du, superabit egoerara gerturatuz.

Legedi berriak defizitaren alorrean ekitaldia superabitean ixteko helburu eta obligazioa ezartzen du. Datuak ikusiaz 2008-2011 urte tartean udaletxe bakan batzuk beteko lukete baldintza hau. 2009an azterturiko udaletxe denak defizitaren helburua ez lukete beteko. Halaber, udaletxe konkretuetan zentratuaz, aipatutako denbora tartean badaude ekitaldi oro defizitarekin itxi zutenak. Horiek Zumaiako eta Aretxabaletako udaletxeak dira. Bi udaletxe hauek lan guztian zehar azpimarragarriak diren zenbait adierazle azpimarratu ditugu, hala nola, zor bizia edo diruzaintza gerakinaren azterketan. 2012an ordea, aurrekontuen egonkortasunaren erregela betetzearen aldeko apustu serioagoa izan dute. Argi ikus daiteke udaletxe gehienak beraien ekitaldia superabit egoeran itxi baitzuten.

### **5.5 Gasturaren Aldaketa**

Aztertuko dugun azken adierazlea udaletxeen gastu totalen bilakaera izango da. Orain arte aztertu digun zenbait adierazlek, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritako helburuen kontrolerako baliatu ditugu. Gipuzkoan lege honen garapena eta helburuen kuantifikazioa eman zela azaldu dugu ere. Horren adibide izan daiteke zor bizia sarrera arrunten menpeko zein portzentaje osatzen zuten jakiteko eginiko analisisa. Era honetan Gipuzkoak 2013rako eta 2020ko %95 eta %75eko helburuak betetzeko egoera ikus genezake. Aurreko atalean ere defizita izan dugu aztergai. Ezarritako helburua aurrekontuak superabit egoeran ixtearena da. Honela legeak aipatzen dituen hiru helburuetako bi aztertu ditugu puntu honetarako. Hori dela eta aztertzeko falta zaigun azken helburua gastuarekin erlazionaturikoa da. Puntu honetan, 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren bitartez, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen legea eta 2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibideetan zehazturikoa hartuko dugu kontuan. Bertan gastu konputagarria ohiko jarduerarekin eta inbertsioekin erlazionaturikoa osatzen dutela zehazten da, gastu finantzarioak eta beste herri administrazioetatik datozen sarrera finalisten gastuaren zatia bazterturik. Guk gure kalkuluetan gastu finantzarioak soilik baztertuko ditugu, izan ere, sarrera finalisten zenbatekoak ezezagunak baitira. Legean gastu helburua, gastu konputagarriaren bariazioan oinarritzen da, zenbateko finko bat ez duena. Urtero, bariazioaren muga ezarriko dela dio eta muga ezartzeren ardura Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak izango du. 2012-2013 urtetarako %1,70 muga ezarri du. Honela muga horrek aztertutako epealdian bete den edo ez aztertzeko baliagarria izan daiteke.

**13. taula: Gastu konputagarriaren kalkuluaren metodologia**

<b>GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA</b>	
a1	2012ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)
a2	SEC doiketak
a3	2012ko interesak
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2012an
<b>a=a1+a2-a3-a4</b>	<b>2012ko gastu konputagarria</b>
b1	2013ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)
b2	SEC doiketak
b3	2013ko interesak
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2013an
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina
<b>b=b1+b2-b3-b4-b5</b>	<b>2013ko gastu konputagarria</b>
<b>c=(b/a-1)*100</b>	<b>Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)</b>

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ogasun eta Finantza departamentua

Goiko taulan Gipuzkoako udaletxeek gastu konputagarriaren kalkulua burutzeko metodologia zehazten da. Bertan, oinarri gisa aurrekontuen gastuen lehen zazpi kapituluak hartzen dira. Zenbateko honi interesak eta finantzaketa lotua duten gastuen eragina baztertzeko da, KSE-95ak eskatzen dituen doiketekin batera. Gure kasuan informazio nahikoa ez dugunez, aurrekontu likidatutako gastu totalei interesak eta aktibo zein pasibo finantzarioen gastuen eragina baztertu diegu, joera orokor bat lortzeko baliagarria izanik.

**14. taula: Gastu konputagarriaren bariazioaren aldaketa.**

<b>Gastu Konputagarriaren Bariazioa</b>						
	Udaletxea	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2008-2012
<b>1</b>	Altzaga	%64,17	-%30,70	-%10,89	%14,63	%16,21
<b>2</b>	Aretxabaleta	%5,30	%13,59	%11,09	-%23,30	%1,92
<b>3</b>	Ataun	%79,14	%21,78	-%57,19	-%42,48	-%46,29
<b>4</b>	Azkoitia	%31,15	-%48,83	%13,82	-%19,51	-%38,51
<b>5</b>	Elgeta	-%19,04	-%10,13	-%4,10	-	-
<b>6</b>	Gaintza	%45,63	-%35,57	-%27,01	-	-
<b>7</b>	Hernani	%32,54	-%17,18	-%10,83	-	-
<b>8</b>	Pasaia	%4,20	-%18,07	-%5,75	%2,55	-%17,48
<b>9</b>	Urretxu	%0,18	%22,23	-%28,26	-%13,80	-%17,48
<b>10</b>	Villabona	%7,63	%1,06	-%25,52	-%4,94	-%24,28
<b>11</b>	Zaldibia	%31,39	-%31,79	-%1,45	-	-
<b>12</b>	Zumaia	%19,53	%2,96	-%17,81	-%10,71	-%9,68
	12BAT	%18,00	-%13,35	-%10,50	-%12,16	-%20,44*

Iturria: www.udalgida.net

\* 8 udaletxeen batez besteko batura

Azterturiko gastu konputagarriaren lehen urteko bariazioa 2008-2009 urtekoa izango da. Bertan batez beste gastu konputagarria hazi den urte bakarra izan da azterturiko denbora tartean. Batez beste %18an hazi zen 12 udaletxeen gastua. Puntu honetaraino aztertu dugunarekin, datua logikoa izango litzateke . 2008an, azterturiko lehen urtean, orokorrean adierazle ekonomikoak positibo gisa kontsideratu ditugu, krisialdi ekonomikoaren ondorioak nabaritzen hasiak izan arren. 2009. urtean ordea aldaketa negatibo esanguratsua jasan zuten udaletxeek. Horren adierazle izan daitezke azterturiko udaletxeen erdiak aurrezki garbi negatiboa izatea, batik bat, UFFF-aren murrizketa zela medio. Sarrerak arruntak murriztu egin ziren 2009an, beraz, logikoa izango litzateke gastuak joera berdina hartzea. Ordea, batez beste gastu arruntak gutxi gora behera mantendu egin ziren. Bestalde, inbertsioarekin lotutako sarrera eta gastuak bilakaera ezberdina izan zuten. Batez besteko datuei so eginez, gutxi gora behera %50eko hazkuntza jasan zuten gastuek nahiz sarrerak. Hortaz orokorki, gastu konputagarrien hazkuntza, inbertsioen gastuaren hazkuntzarekin lotuta dago, izaera berdineko sarreren hazkuntzak baliabideak horniturik.

Hurrengo ekitaldian, gastu konputagarriak batez beste behera egin zuen. Ohiko jarduerari so eginez gero gastuak ia ez zuen aldaketarik jasan. Gogoratu 2010. urtean azterturiko udaletxe denek %10etik gorako sarrerak jaso zituztela UFFF-aren bitartez, horrek gastu arruntetan gehiegi eragin gabe. Beraz, kasu honetan ere eboluzio orokorraren arrazoia inbertsio gastuarekin lotua dago. Kasu honetan 2008ko mailaren azpitik kokatu ziren 12 udaletxeek eginiko inbertsio gastuak. Taulan zenbait udaletxeren datuak more kolorez agertzen dira. Udaletxe horietan, gastu konputagarria hazi duten

udaletxeak dira, joera orokorraren kontra. Halaber %1,7tik gorako hazkuntzak azpimarratu dira. Badakigu erreferentzia 2012-2013 urterako dela baliagarri, datua makroekonomikoak ezberdinak baitira aztertutako garaian eta gaur egun. Hala ere aldaketa hori emateko erraztasun edo zailtasuna islatu dezake eta hori dela eta erreferentzia oinarritzat hartzea interesgarria izan daiteke.

Ataun, Aretxabaleta eta Urretxuko udalek, beraien gastu konputagarria haztearen arrazioa inbertsio eragiketetan dago. Lehenengo bi udaletan, gastuen inbertsio errealetan jasan duten hazkuntza, kapital transferentzietatik lortutako finantzazio gehigarritik justifika daiteke. Urretxuren kasuan ordea, inbertsio errealeen besterenganatzetik lortu ditu bere inbertsioak hazteko aukera eman dizkion sarrerak. Gehiegi sakondu gabe, Ataunek eta Aretxabaletak, udaletik kanpoko sarrerak lortu ditu inbertsioak finantzatzeko, hala nola, administrazioan maila goreneko organoren baten transferentziak. Bestalde Urretxuk bere ondarea osatzen zuen elementu baten salmenta suposatuz genezake. Beraz udaletxeak buruturiko eragiketaren bitartez bere gastua haztea ahalbidetuko luke.

Gastuaren urtez urteko aldaketaren azterketarekin jarraituz, 2010-2011ko bariazioa aztertuko dugu. Gogoratu 2011ean diruzaintza gerakinak eta aurrezki garbiak bilakaera negatiboa izan zituela. Faktore horiek kontuan hartuz, gastu konputagarriaren beherakada logikoa izan litzateke, krisialdiko erabakien gako nagusia jarraituz. Kasu honetan bi faktore azpimarratzea egokia litzateke. Alde batetik, gastu arruntaren aldaketa eta bestetik inbertsioen bilakaera noski. Gastu arrunta bere horretan hartuz gero zenbatekotan ez da nabaria izan, gordinik hartuta 117.202€-ko murrizketa izan baitu. Baina gastu konputagarriaren barnean, gastu finantzarioa isolatu behar dugula kontuan hartuz gero, aldaketa interesgarria izan daiteke. Gastu finantzarioak 2010-2011 epealdian 1.572.172€ko hazkuntza jasan zuen 12 udaletxeen artean. Gastu finantzarioak zor biziaren eta aplikatutako interesen menpe daude. Zor bizia aztertzerakoan krisi hasieratik zorpetzea hazi zela ikusi genuen. Ondoren diruzaintza gerakina aztertzerakoan maileguren interesari aplikatutako diferentzialaren eboluzioa ere kontuan hartu genuen, urtez urte hazi egin zena. Beraz gastu arruntak bere osotasunean hazi ez arren, interesgarria da gastu finantzarioen hazkuntza beste osagaien murrizketaren bidez ematen dela ikustea. Hortaz gastu konputagarrian kontuan hartzen den gastu arruntei dagokionean, murriztu egin direla esan genezake.

Bestalde inbertsioen bilakaera dugu, kontzeptualki hain interesgarria izan ez arren, zenbatekoetan eragin zuzena du. Kasu honetan ere batez besteko joera bertan eman den murrizketan oinarritzen da, %32,77an murriztu baita.

Banan banako udaletxeei so eginez gero, Aretxabaleta eta Azkoitia dira gastu konputagarria handitu duten bakarra. Hala ere beste zenbait udaletxe kontrakoarengatik ere azpimarra genitzake, hain zuzen beraien gastu konputagarriaren murrizketa handiarengatik. Ataun, Gaintza, Urretxu edo eta Villabonako udalak izan daitezke honen adibide, baina udal hauek 12 udaletxeen bilakaera orokorra jarraitzen dute, edo egokiago, bilakaera orokorra ezartzen dute. Hori dela eta kontrako norabidea duten bi



kasuetan zentratuko gara. Lehenik gogoratu Aretxabaleta eta Azkoitiko udaletxeak 12 udaletxeen artean zorpetze maila altueneko udaletxe gisa identifikatu ditugula, 2011eko zorpetzea beraien sarrera arrunten %90etik gora kokatzen direlarik. Bestalde Aretxabaletako udala, aurrekontuen defizit maila neurtzerakoan azpimarratu genuen, 2010-2011eko epealdian. Beraz bi udaletxeak jada zenbait ezaugarri komunean izateagatik azpimarratu ditugu. Kasu honetan inbertsio errealetan eginiko gastua, beraien gastu totalen %9-10eko hazkuntza jasan dute. Gastu horien hazkuntza ez da sarrerekin erantzun eta hori dela eta defizita hazten lagundu dute. Alabaina, gastu konputagarriaren hazkuntza inbertsioen hazkuntzan oinarritzen da, horiek finantzatzeko sarrerak sortu ez arren.

2012. ekitaldian ere, udaletxeek buruturiko gastu konputagarria murriztu egin zen batez beste. Beste urteetan gastu konputagarria murriztu den ekitaldietan baino proportzio antzekoan murriztu da. Gastuaren beherakada orohar, inbertsio eragiketen murrizketaren ondorioz eman da. 2012ko datuak argitaratu dituzten udaletxeen artean %35,59a murriztu dira inbertsioak, sarrera arruntetan %4,52 murriztu direlarik.

Pasaiak eta Alzagak, ordea, gastua konputagarriak handitu egin dituzte. Pasaiaren kasuan hazkuntza ez da oso handia izan, inbertsioen hazkuntzek, %2,55 gastu konputagarri gehigarria suposatu baitio. Alzagaren kasuan gastu arrunta azken 5 urteetako baxuena izan duen arren, bere gastu konputagarria handitu du. Ez da 2009ko mailara iritsi baina arrazoiak inbertsio eragiketen gastuan datza, aurreko ekitaldiko inbertsio gastuak laukoiztuz.

Gastuaren urtez urteko azterketaz gain, krisialdi hasieratik 2012rarte gastuak izan duen bilakaera ere interesgarria izan daiteke. Kasu honetan, gastuaren mugaren nondik norakoak aztertu baino, udaletxeek krisiaren ondorioz gehiago edo gutxiago gastatzen duten ikusteko baliatu dezakegu. Kontuan izan behar dugu, datuetan barneratutako gastuak finantza eragiketak baztertuak daudela. Azterturiko 12 udaletxeek batez beste 2008-2012 urte bitartean, beraien gastua %20,44an murriztu dute. Murrizketa bereziki inbertsio eragiketetan eman da %45,05ean murriztu baitira. Hori dela eta inbertsioak egoerak ekonomikoarekin erlazio estua duela ikus dezakegu. 2012an aurrekontuak argitaratu dituztenen artean soilik Aretxabaleta eta Alzagako udalek handitu dute beraien gastu konputagarria 2008arekiko. Bi udaletxeetan inbertsio gastuetan izan dute hazkuntza bereziki, joera orokorra kontrajarriz. Hala ere krisialdiak gastu konputagarrian izan duen ezaugarri nagusia, burutzen diren inbertsioen murrizketak direla ondoriozta dezakegu.

## 6. ETORKIZUNERA BEGIRA

---

Lanaren puntu honetan, etorkizunerako ikuspegi labur bat burutuko dugu. Bertan helburuen betetze maila edo eta plataforma berriei buruz informatzen saiatuko gara, 12 Gipuzkoar udaletxeen adierazle nagusiak aztertzean lortutako ezaugarriak kontuan hartuz.

Lehenik eta behin zorraren, defizitaren eta gastuaren kontrolerako buruturiko lege organiko eta foru arauen helburuak betetzeko egoera islatuko dugu. Datuen analisisian azertu dugun gisan, zorraren arloan 2013ko zor bizia sarrera arrunten %95eko helburua betetzeko zailtasunak izango dituzten zenbait udaletxe egongo direla aurreikusten da. 6.taulan ikus dezakegunez, 10 udalek helburua ez betetzea aurreikusitako da. Hala ere, 5.5.taulan Gipuzkoako batez bestekoa %56,3an kokatu zen. Hortaz zorpetzeari dagokionean ez dirudi orokorki ezarritako helburuak betetzeko zailtasun handiegirik izango dutenik. Defizitaren arloan ordea, helburua superabit estrukturalarekin ixtean zehazten dena. 2008-2011 urteetan, krisialdian hain zuzen ere, datuak ez dira positiboak izan. Horren isla da 2009an aztertutako 12 udaletxeek defizit egoeran itxi izana. Alabaina 2012ko argitaraturiko udaletxeen datuek helburua betetzetik gertu egon daitezkeela pentsa genezake, izan ere 12 udaletxeetan zentratuz Alzagako eta Aretxabaletako udalek soilik itxi zuen defizitarekin<sup>24</sup>. Azkenik gastuaren helburuari dagokionean, eginiko inbertsioen araberakoa izango dela pentsa genezake. Aurreko ekitaldietan gastu konputagarriaren bariazio positiboa izan duten udaletxe gehienek, inbertsio eragiketetan izandako hazkuntzagaririk izan da, beraz eragiketa hauetan izango da betetze edo ez betetzearen gakoa.

Hiru helburuak orokorki betetzeko ez ditugu zailtasun gehiegi aurreikusten, nahiz eta zenbait udaletxeek zorpetzean (Aretxabaleta edo Azkoiti) eta defizitean (Alzaga edo Aretxabaleta) bereziki mugaren gainetik koka daitezkeen.

Gastu arloan ordea, 2013ko helburuetan zentratu ordez, Gipuzkoa mailan ezarritako plataforma baten berri eman nahiko genuke. *2011ko otsailaren 22ko 3/2011eko Foru dekretuan*, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorraren Kontratazio Mahaia arautzen da. Era berean Foru Kontratazio Zentrala sortzeko ere baliagarria da. Legeak dioen arabera, zentralizazioak entitate publikoen kontratazioa eraginkorragoa egiteko du helburu. Alde batetik, gestioari dagokionean tramitazioa arintzeko eta sinplifikatzeko aukera ahalbidetzen du. Bestetik, Foru Kontratazio Zentralak udaletxeek behar dituzten elementuak kostu txikiagoan eskuratzeko aukera ematea du helburu, bolumen handiagoko eskarietako deskontuak edo indibidualki duena baino negoziazio botere handiagoa baliatuz.

Beraz, Gipuzkoako udaletxeei Kontratazio Zentralera atxikitzeak aukera ematen die, bertako kide izateko obligaziorik ezarri gabe. Gainera, soilik ondasun edo zerbitzu batzuetarako sistema zentralizatua erabiltzeko aukera ere bermatzen du, udaletxearen egokitasunaren arabera.

---

<sup>24</sup> 2013/05/24ko datuen arabera.

Bestalde sarrerei dagokionean udaletxeen gestioa hobetu lezakeen beste ezaugarri bat azpimarratu genezake. UFFF-a udaletxeen diru sarrera arrunten zati garrantzitsua dela azaldu dugu. Halaber, UFFF-aren banaketa urte hasieran eginiko aurreikuspenetan burutzen dela. Urte bukaeran diferentzia negatiboak baleude, aurreraturiko dirua Foru Aldundiari bueltatu beharko lieteke udaletxeek. Horren adibide da azterketa zentratu dugun udaletxeen aukeraketan ezarritako irizpidea. Diferentzia negatiboak oso larriak izan daitezke udaletxeentzat, izan ere sarrerek estali beharreko gastuak estuki loturik baleude, sarrereren murrizketak gastua zalantzan jarri behar izatea suposatuko luke. Bere garrantzia azpimarratuta, logikoa deritzot UFFF buruturiko aurreikuspena eta likidazioaren informazioaren kontrol jarraitua burutzea eta era berean, udaletxeei horren berri unean informatzea. Zaila da jakitea informazio trukaketa hori nola ematen den batez ere, pribatuki eman baidateke. Halaber, zaila izan daiteke aurreikuspenen betetzea kontrolatzea, bereziki krisialdi ekonomikoan bizi dugun aldaketak direla eta. Hala ere, zaila izanagatik eta UFFF-aren transferentziak udaletxeetan duten eragina ikusirik, kontuan hartzeko faktorea dela deritzot.

UFFF-arekin zer ikusia duen beste ezaugarrietako bat, udaletxeek aurreikuspen eta likidazioaren arteko diferentzietatik sorturiko itzulpen obligazioak dira. Analisiaren hasieran 2008 eta 2009ko itzulpenak zatitu egin zirela azaldu dugu, azken itzulpena 2013an izango delarik. Hori dela eta 2014a azken bost urteetan lehen aldiz, aurreko urteen UFFF-aren itzulketen zama jasango ez duten lehen urtea izango da Gipuzkoako udaletxeentzat. Beraz, egoerak hobera egiteko motiboa izan daiteke.

Beste motibo bat azken egunotan defizitaren arloan izaten ari diren albisteekin lotura izan daiteke. Alde batetik Europar Batzordeak Espainiaren 2013rako BPGren %3ko defizitaren helburua malgutzeko baimena du. 2013rako helburua %6,5an<sup>25</sup> ezarriko litzateke %3aren azpitik kokatzeko helburua 2016raino atzeratuz (%2,8). Horretaz gain, defizitaren malgutzeta autonomi erkidegoekin partekatuko da neurri batean hasierako %0,7ko helburutik %1,2raino<sup>26</sup>. Horren harira autonomi erkidegoen artean helburu berdina hautsi eta autonomi erkidegoen artean jomuga ezberdinak ezartzearen aldeko iritziak jaso dira. Horren adibide Cristóbal Montororen, Ogasun eta Administrazio Publikoen ministroak, iritzia da aurreko ekitaldian defizitaren arloan egindako akordioak bete ez zituzten autonomi erkidegoei laguntzeko baliagarria izan daitukelakoan<sup>27</sup>.

Beste gai baten arloan ere albiste da Cristóbal Montoro eta berak zuzentzen duen ministerioa. Azken berrien arabera administrazio lokalen legearen erreforma aurkeztar dago eta zenbait aldaketen berri emango direla espero da. Esanguratsuen udaletxeek ematen dituzten zerbitzuen kostu estandarren zehaztapenean datza<sup>28</sup>. Hasiera batean estatuak zehaztuko lituzke zerbitzuen prezio homogeneousak, baina azken informazioen

<sup>25</sup> [http://economia.elpais.com/economia/2013/05/29/actualidad/1369851488\\_344529.html](http://economia.elpais.com/economia/2013/05/29/actualidad/1369851488_344529.html)

<sup>26</sup> <http://m.berria.info/78788>

<sup>27</sup> <http://www.expansion.com/2013/05/22/economia/136922291.html>

<sup>28</sup> [http://politica.elpais.com/politica/2013/05/21/actualidad/1369139530\\_669809.html](http://politica.elpais.com/politica/2013/05/21/actualidad/1369139530_669809.html)

arabera udalen eta autonomi erkidegoen irizpideak ere kontuan hartuko omen dira<sup>29</sup>. Legearen erreforma 2014ko urtarrilean indarrean egotekotan da. Garai horretan 20.000 biztanletik beherako udaletxeak hiru hilabeteko kontrola izango lukete emaniko zerbitzuak dagokion kostu estandarra errespetatzen duten ala ez ikusteko. Ezezkoa balitz, udaletxeak zerbitzu hori emateari utziko liokete eta diputazioek (autonomi erkidegoak probintzia bakarreko kasutan) hartuko lukete ardura hori bost urtez. Euskal Autonomi Erkidegoan ere Euskal Udalen Legea sortzeko mugimenduak ematen ari dira, udaletxeek diru banaketan duten garrantzia Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzak duenarekin parekatu edo gutxienez gerturatzeko. Hala nola, oraindik aldaketak egiaztatu ez arren, udaletxeen egituraren aldaketa garrantzitsuak emango direla aurreikusi dezakegu.

---

<sup>29</sup> 2013/05/13 El Diario Vasco

## 7. ONDORIOAK

---

Gipuzkoako udaletxeen aurrekontuetan egitura konplexua da, izan ere bost organo ezberdinek zuzenki edo zeharka eragin baidezakete bertan. Euroa eta bereziki krisialdi ekonomikoa dela eta, Europak zenbait helburu ezartzeko akordioak hartu ditu. Hori dela eta estatuko gobernu zentralak, helburu horiek gauzatzeko bideak definitzen dituen legea zehaztu du. Gipuzkoaren kasuan estatu mailan ezarritako helburuak jorratzeko bide ezberdinak finkatu ditu, bere konpetentzien menpean. Honela etorkizuneko aurrekontuak bete beharreko baldintzak ezartzeko hiru organok zuzenean hartu dute parte.

Konpetentzien konplexutasunaz gain, ezarritako helburuen ezarpena, krisialdi ekonomikoak kontrolaren aldeko joera ere azpimarratzekoa da. Gastuaren, zorpetzearen eta defizitaren helburuak, aurrekontuen egituraketan eta gauzaketan zenbait muga ezartzeaz gain, malgutasun galera ere suposatzen du. Malgutasun hori bereziki garrantzitsua izan daiteke, 2009 edo 2011eko urteetan izandako adierazle ekonomikoek erakusten duten urte zailak errepikatuko balira. Halaber, helburuak betetzeko egin beharreko esfortzua ez dirudi orokorrean jarduera gehiegi baldintzatuko duenik. Bereziki zero defiziteko eta zenbait kasutan zorpetzearen helburuak izan daitezke konplexuenak. Defizitaren kasuan, krisi ekonomiko joera aldatzea izango letzatekelako eta zorpetzearen kasuan, bereziki 2009an eskuratutako maileguen ondorioz.

Azterturiko udaletxeetan krisialdi ekonomikoak izaniko zenbait ondorio atera ditzakegu. Alde batetik, 2009. urtea azterturiko denbora tarteko urte zailenetako gisa kontsidera genezake. Urte honetan batez beste 12 udaletxeak ez ziren bere ohiko jarduera aurre egiteko gai, ohiko jarduera, gastu arrunta eta maileguen amortizazioa kontsideratuz. Bilakaera negatibo honi aurre egiteko, joera orokorra zorpetzea izan zen biztanleko zorpetzea 138,4€tan handituz. Diruzaintza gerakinak ere desorekari aurre egiteko ere erabilia izan zen sarrera arrunten %10,7ko erabilera izanik. 2011. urtean ere ohiko jarduerari aurre egiteko gai ez ziren lau udaletxe identifikatu ditugu hamabikotearen tartean, nahiz eta batez besteko egoera hori ez izan. Hala ere, ohiko jardueraren emaitzak %64,71an muuriztu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuz. Horri aurre egiteko, diruzaintza gerakina erabili zuten bereziki sarrera arruntekiko %12,1ean murriztuz. 2009rekiko maileguei ezarritako diferentzialaren bikoizketak eraginda, udaletxeak ez zuten beraien zorpetzea handitu. Salbuespenak Zumaia eta Ataungo udalak izango lirake, diruzaintza gerakinaren guztiz edo neurri handi batean husteak, zorpetzera behartu dituzte. Beraz krisialdi ekonomikoan eman diren bi urte zailenetan hamabi udaletxeek oro har erabaki ezberdinak hartu dituzte egoerari aurre egiteko. 2009an zorpetzean oinarritu ziren, 2011ean, diruzaintza gerakinaren erabileran zentratu ziren bitartean.

UFFF-a udaletxeentzat duen garrantzia krisialdian ere garbi islatu da. 2009 eta 2011 urteetan sarreraren murrizketak udaletxeak egoera ekonomiko zaila bizitzea eragin zuten. UFFF-a bi urte hauetan batez beste %16,55 eta %10,38 murriztu ziren hurrenez

hurren hamabi udaletxetan. Udaletxeen sarrera arruntak ia zenbateko berdinean egin dute behera, hortaz, sarreren murrizketa nagusia UFFF-ak azalduko luke. Horretaz gain, aurreikuspenekiko izaniko aldeak ere garrantzitsuak izan ziren, bereziki 2009. urtean. Beraz, UFFF-ak duen garrantzia azalduaz eta krisialdi garaiko egonkortasun eza ikusiaz, bere bilakaera estuki kontrolatzea eta informazio jarraitua izatea aurrerapauso bat izan liteke.

## 8. BIBLIOGRAFIA

---

- Atlasa. (2013). Eskuratze-eguna: 2013ko Maiatzak 30. Iturria: <http://www.atlasa.net/>
- Banco de España. Hernández de Cos, P.; Pérez, J. (2013). La nueva ley de estabilidad presupuestaria. Iturria: HYPERLINK <http://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/InformesBoletines/Revistas/BoletinEconomico/13/Abr/Fich/be1304-art2.pdf>
- De las Heras, P. (2013). El Gobierno fijará a las autonomías un coste estándar por los servicios que prestan. *El Diario Vasco*. 32. orr.
- De Miguel, B. (2011). *¿Qué está pasando?* Bartzelona: Centro Libros PAPP, S. L. U.
- Duarte Atoche, M<sup>a</sup> Teresa; Pérez López, J. Ángel; Sierra Molina, Guillermo J.. *Análisis Conceptual del SEC-95 desde un punto de vista contable*. Sevilla: HYPERLINK [http://www.ti.usc.es/lugo-xiii-hispano-lusas/pdf/05\\_contabilidad/04\\_sierra\\_perez\\_duarte.pdf](http://www.ti.usc.es/lugo-xiii-hispano-lusas/pdf/05_contabilidad/04_sierra_perez_duarte.pdf)
- Efe. (2013). La Comisión Europea revela sus perspectivas económicas y si abre la mano con el déficit. *Expansión*. Iturria: HYPERLINK <http://www.expansion.com/2013/02/22/economia/1361511456.html>
- Erkizia, A. (2013). *Zenbait Aurrekontu Kontzeptuen Azterketa*.
- Europa Press. (2013). Montoro defiende el déficit a la carta para evitar que las CCAA incumplidoras agraven la recesión. *Expansión*. Iturria: HYPERLINK <http://www.expansion.com/2013/05/22/economia/1369222291.html>
- Europa Press. (2008). El petróleo marca nuevos máximos y supera los 147 dólares en Londres. *El economista*. Iturria: HYPERLINK <http://www.eleconomista.es/interstitial/volver/acierto-abril/economia/noticias/650205/07/08/Economia-Energia-El-petroleo-marca-nuevos-maximos-y-supera-los-147-dolares-en-Londres.html>
- Eusko Jaurlaritzak. (2012). *Aurrekontuak irekia Euskadi*. Eskuratze-eguna: 2013ko Apirilak 04. Iturria: <http://aurrekontuak.irekia.euskadi.net/es/budgets>
- Eusko Jaurlaritzak. (2013). *Euskadi.net*. Euskadiko administrazioen ataria: [http://www.euskadi.net/r33-2220/eu\\_helbidetik\\_eskuratua](http://www.euskadi.net/r33-2220/eu_helbidetik_eskuratua)
- Federación Española de Municipios y Provincias. (2013). Iturria: HYPERLINK [http://www.femp.es/CartaLocal/Front/Noticias/CL\\_ContentoDetalle/\\_sYcniRvuy5kWRlfMc-G7LX5mu-vBN7WLaNOBxYqj19k](http://www.femp.es/CartaLocal/Front/Noticias/CL_ContentoDetalle/_sYcniRvuy5kWRlfMc-G7LX5mu-vBN7WLaNOBxYqj19k)
- Fernandez, J. (2013). Espainiak %0,7tik %1,2ra igoko die defizit muga Jaurlaritzari eta Nafarroari. *Berria*. Iturria: HYPERLINK <http://m.berria.info/78788>
- Fernández, M. (2013). El Gobierno no intervendrá directamente los pequeños municipios con déficit. *El País*. Iturria: HYPERLINK

[http://politica.elpais.com/politica/2013/05/21/actualidad/1369139530\\_669809.html](http://politica.elpais.com/politica/2013/05/21/actualidad/1369139530_669809.html)

Ferguson, C. (Zuzendaria). (2010). *Inside Job* [Filma].

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza departamentua. (2006). *Gipuzkoa*.

Eskuratze-eguna: 2013ko Apirilak 04. Iturria:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasananet/aurrekontuak/comparaPresupuestos.aspx?g=2>

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza departamentua. (2013). Eskuratze-eguna: 2013ko Maiatzak 30. Iturria:

[http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/hdDbjoIwEAbgZ\\_EBNm3BlnpZoC6HDQTSFHpjgHW7hpOKroenFxOTvVqcu0m-P\\_NngAQZmuqaAac6NkAKZJv\\_bIV-3HZtXj92SdYo0DgzEYN04VnQ5cKzEteEhngEsgHAf4bB8bz2zI-AF\\_fjzWnNY7ACclQ66AnGmr7qGjhdswHZwIw\\_9o4Fg25ih\\_MAIQ9qBHhAqrorhu8tRXa-2B](http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/hdDbjoIwEAbgZ_EBNm3BlnpZoC6HDQTSFHpjgHW7hpOKroenFxOTvVqcu0m-P_NngAQZmuqaAac6NkAKZJv_bIV-3HZtXj92SdYo0DgzEYN04VnQ5cKzEteEhngEsgHAf4bB8bz2zI-AF_fjzWnNY7ACclQ66AnGmr7qGjhdswHZwIw_9o4Fg25ih_MAIQ9qBHhAqrorhu8tRXa-2B)

Gipuzkoako Foru Aldundia Ekonomia eta Turismoko departamentua. (2000). *Estructura económica de Gipuzkoa*. Donostia.

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza departamentua. (2013). *2013-03-13 jardunaldia egonkortasuna arrazionalizazioa*. Donostia.

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza departamentua. (2012). *Gipuzkoako Udalek 2012an hitzartu dituzten epe luzeko kreditu eragiketak*. Iturria: HYPERLINK

[http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/hZFdb4IwFIZ\\_kWmLrLBLqCCg LZ9V2xuCziCMgjMwor9-LDHZ1fDcnJzkefPkzQESCGQsNRMvTWSAA5Bt8V2VRV91bdH83hLniGm OZSMLmk1AoO9kAeG-DV2oT4CYAPjPWHaUb9j4mZ8BXvjT85A7KdgDOWvKtBeAh57AXJVXZZj XqTMQE2b8YesVdaHPI4pcH0MSYpCBA9TztL5f\\_YzmNF0mdFs17MHWE WPCl2qvQnLeXzfH1tW4wp8f-LLt8ZviSi6EEeqFFQRsU439lqPQoq2Bh-S4HmLirKzbHQRAIk13nN63mzxxbY7dJIUjr3cxO5VdZqIou4\\_Dg\\_ecnS7skfa7 aVMoTKKX11XEo\\_fWS9wktr9ujecCJRvXTP1aLxbiB2yAX3g!/dl4/d5/L0IJSkl KSUpKZ0EhIS9JTmpBOUF4QUFFU29BQ0ltWWchIS80SmtHUUW9RdHV5R WQtVVIRL1o2XzFOMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSknVNSUIwN0I2L1o3Xz FOMkVBQjFBMEc1VEEwSVVEUEZOMTFKMEs1LzA!/?contenido=hweoga sunaeulbr%2Fogasuna%2Fhweactualidadeconomica-020sta%2Fhweudalgida-020-050sta%2Fe4f0d80b-b2ea-49be-8cab-2bb3bb92d041](http://www2.gipuzkoa.net/wps/portal!/ut/p/b1/hZFdb4IwFIZ_kWmLrLBLqCCg LZ9V2xuCziCMgjMwor9-LDHZ1fDcnJzkefPkzQESCGQsNRMvTWSAA5Bt8V2VRV91bdH83hLniGm OZSMLmk1AoO9kAeG-DV2oT4CYAPjPWHaUb9j4mZ8BXvjT85A7KdgDOWvKtBeAh57AXJVXZZj XqTMQE2b8YesVdaHPI4pcH0MSYpCBA9TztL5f_YzmNF0mdFs17MHWE WPCl2qvQnLeXzfH1tW4wp8f-LLt8ZviSi6EEeqFFQRsU439lqPQoq2Bh-S4HmLirKzbHQRAIk13nN63mzxxbY7dJIUjr3cxO5VdZqIou4_Dg_ecnS7skfa7 aVMoTKKX11XEo_fWS9wktr9ujecCJRvXTP1aLxbiB2yAX3g!/dl4/d5/L0IJSkl KSUpKZ0EhIS9JTmpBOUF4QUFFU29BQ0ltWWchIS80SmtHUUW9RdHV5R WQtVVIRL1o2XzFOMkVBQjFBMDhSSkMwSUVUSknVNSUIwN0I2L1o3Xz FOMkVBQjFBMEc1VEEwSVVEUEZOMTFKMEs1LzA!/?contenido=hweoga sunaeulbr%2Fogasuna%2Fhweactualidadeconomica-020sta%2Fhweudalgida-020-050sta%2Fe4f0d80b-b2ea-49be-8cab-2bb3bb92d041)

Gobierno de España Ministerio de Empleo y Seguridad Social. (2013). Eskuratze-eguna: 2013ko Maiatzak 15. Iturria: [http://www.seg-](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Presupuesto_aprobado/Ingresos/174952)

[social.es/Internet\\_1/Estadistica/Est/Presupuesto\\_aprobado/Ingresos/174952](http://www.seg-social.es/Internet_1/Estadistica/Est/Presupuesto_aprobado/Ingresos/174952)



- Gobierno de España Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas. (2012).  
Iturria: HYPERLINK  
<http://www.sepg.pap.minhap.gob.es/sitios/sepg/es-ES/Presupuestos/NormativaPresupuestaria/Documents/NORMATIVA%20DE%20ELABORACION/Acuerdo%20Objetivo%20Estabilidad%202013-2015%20y%20LGnF%202013.pdf>
- Gómez Urteaga, M. (2004). Fondo Foral de Financiación Municipal: concepto y cálculo de la dotación. *UdalGida*, 17-23.
- Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.(2010). *EAEko Udal Entitateen Kontuei buruzko txostena*
- Instituto Nacional de Estadística. (2013). *ine*. Eskuratze-eguna: 2013ko Apirilak 04.  
Iturria: <http://www.ine.es/>
- Llera, R. F. (2012). *Fiscalización*. Eskuratze-eguna: 2013ko Apirilak 04. Iturria: <http://fiscalizacion.es/2012/04/14/estabilidad-sostenibilidad-y-gasto-publico/>
- Pérez, C. (2013). Giro (retórico) en Bruselas. *El País*. Iturria: HYPERLINK  
[http://economia.elpais.com/economia/2013/05/29/actualidad/1369825524\\_347541.html](http://economia.elpais.com/economia/2013/05/29/actualidad/1369825524_347541.html)
- R.Morris, C. (2008). *The Trillion Dollar Meltdown*. PublicAffairs.
- Reuters. (2004). El cobre alcanza su precio máximo en dieciséis años. *Cinco días*.  
Iturria: HYPERLINK [http://www.cincodias.com/articulo/economia/cobre-alcanza-precio-maximo-dieciseis-anos/20041009cdscdieco\\_8/](http://www.cincodias.com/articulo/economia/cobre-alcanza-precio-maximo-dieciseis-anos/20041009cdscdieco_8/)
- Samuels, M. (Zuzendaria). (2010). *La caída de Lehman Brothers* [Filma].
- World Bank. (2013). Eskuratze-eguna: 2013ko Maiatzak 30. Iturria:  
<http://datos.bancomundial.org/pais/espana>
- 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 legea, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta euren Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzkoa
- 1996ko ekainaren 25eko kontseiluko erregelamendua (EK) zk. 2223/96 europar kontu nazional eta komunitateko erregioen sistemari buruzkoa, Egunkari Ofiziala zk. L310/11/1996.
- 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Lege Organikoa, Euskal Autonomi Erkidegoarekin ekonomi ituna onartzen den legearen osagarria.
- 2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2004ko abenduaren 21eko 100/2004 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituen.
- 2007ko urriaren 25eko 28/2007 Legea, Euskal Autonomi Erkidegoarekin ekonomi ituna onartzen den maiatzaren 23ko 12/2002 legea modifikatzen duena.

2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzeko.

2012ko apirilak 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena..

2013rako aurrekontuak prestatzeko Gipuzkoako toki enteiteek jarraitu beharreko jarraibidea.

## ERANSKINAK

ALTZAGA															
SARRERAK															
HASIERAKO AURREKONTUAK	2008			2009			2010			2011			2012		
<b>Sarrera Arruntak</b>	<b>249.465</b>	<b>95,95%</b>	<b>100,00%</b>	<b>264.000</b>	<b>95,65%</b>	<b>100,00%</b>	<b>235.000</b>	<b>77,81%</b>	<b>100,00%</b>	<b>248.000</b>	<b>97,25%</b>	<b>100,00%</b>	<b>241.000</b>	<b>90,72%</b>	<b>100,00%</b>
1 Zuzeneko zergak	18.800	7,23%	7,54%	21.650	7,84%	8,20%	23.800	7,88%	10,13%	24.400	9,57%	9,84%	23.562	8,87%	9,78%
2 Zeharkako zergak	6.000	2,31%	2,41%	6.000	2,17%	2,27%	2.376	0,79%	1,01%	300	0,12%	0,12%	1.500	0,56%	0,62%
3 Tasak eta bestelako zergak	16.300	6,27%	6,53%	18.300	6,63%	6,93%	20.350	6,74%	8,66%	21.793	8,55%	8,79%	22.093	8,32%	9,17%
4 Transferentzia arruntak	198.165	76,22%	79,44%	207.550	75,20%	78,62%	180.724	59,84%	76,90%	194.747	76,37%	78,53%	188.845	71,09%	78,36%
5 Ondare sarrerak	10.200	3,92%	4,09%	10.500	3,80%	3,98%	7.750	2,57%	3,30%	6.760	2,65%	2,73%	5.000	1,88%	2,07%
<b>Kapitaleko Sarrerak</b>	<b>10.535</b>	<b>4,05%</b>	<b>100,00%</b>	<b>12.000</b>	<b>4,35%</b>	<b>100,00%</b>	<b>67.000</b>	<b>22,19%</b>	<b>100,00%</b>	<b>7.000</b>	<b>2,75%</b>	<b>100,00%</b>	<b>24.638</b>	<b>9,28%</b>	<b>100,00%</b>
6 Inbertsio errealak bestereganatzea	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%
7 Kapital transferentziak	10.535	4,05%	100,00%	12.000	4,35%	100,00%	5.000	1,66%	7,46%	7.000	2,75%	100,00%	1.000	0,38%	4,06%
8 Finantza aktiboak	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%
9 Finantza pasiboak	0	0,00%	0,00%	0	0,00%	0,00%	62.000	20,53%	92,54%	0	0,00%	0,00%	23.638	8,90%	95,94%
<b>= Totala</b>	<b>260.000</b>	<b>100,00%</b>		<b>276.000</b>	<b>100,00%</b>		<b>302.000</b>	<b>100,00%</b>		<b>255.000</b>	<b>100,00%</b>		<b>265.638</b>	<b>100,00%</b>	
GASTUAK															
HASIERAKO AURREKONTUAK	2008			2009			2010			2011			2012		
<b>Gastu Arruntak</b>	<b>201.800</b>	<b>77,62%</b>	<b>100,00%</b>	<b>214.125</b>	<b>77,58%</b>	<b>100,00%</b>	<b>225.700</b>	<b>74,74%</b>	<b>100,00%</b>	<b>219.636</b>	<b>86,13%</b>	<b>100,00%</b>	<b>199.385</b>	<b>75,06%</b>	<b>100,00%</b>
1 Pertsonal gastuak	75.800	29,15%	37,56%	85.615	31,02%	39,98%	85.565	28,33%	37,91%	82.995	32,55%	37,79%	78.396	29,51%	39,32%
2 Gastak ondasun arruntean	94.950	36,52%	47,05%	95.535	34,61%	44,62%	108.887	36,06%	48,24%	104.150	40,84%	47,42%	92.900	34,97%	46,59%
3 Finantza gastuak	3.300	1,27%	1,64%	3.600	1,30%	1,68%	700	0,23%	0,31%	700	0,27%	0,32%	450	0,17%	0,23%
